


Euskal Hezkuntza-Sistemaren diagnostikoa

2021



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZERO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

@ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza Saila

ARGITARALDIA

2021ko uztaila

ARGITARATZAILEA

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. ISEI-IVEI

www.isei-ivei.hezkuntza.net/eu/inicio

EGILEA

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. ISEI-IVEI

ITZULPENA

Lete Itzulpenak Traducciones SL

DISEINUA, ILUSTRAZIOAK ETA MAKETAZIOA

Belén Moreno Zaldibar

Aurkibidea

1. Aurkezpena	7
2. Hezkuntzaren diagnostikoa egiteko erreferentziako markoa	11
2.1. Erreferentziako marko programatikoa	12
2.2. Diagnostikoa egiteko erreferentziakoak diren informazioko eta ebaluazioko sistemak	13
3. Euskadiko eskola-ingurunearen azterketa	15
3.1. Eskola-sistemako ikastetxeak	15
Ikastetxeen tamaina	18
3.2. Ikasleen eskolatzea	20
Jaiotzen datuak	33
3.3. Euskadiko ikastetxeetako irakasleak	35
3.4. Zerbitzu osagarrien erabilera	37
3.5. Bekak	38
4. Hezkuntza-sistemaren adierazle nagusien azterketa	43
4.1. Testuinguruaren adierazleak	45
4.1.2. Eskolatze-tasa garbia 16-18 urtekoen kasuan	46
4.1.3. 25-64 urteko biztanleriaren prestakuntza-tasa	47
4.1.4. Hirugarren mailako ikasketak burutu dituzten 30-34 urteko biztanleen ehunekoa	50
4.1.5. Helduen parte-hartzea etengabeko prestakuntzan	52
4.2. Baliabideen adierazleak	52
4.2.1. Irakasle bakoitzeko ikasleen ratioa eta talde bakoitzeko ikasleen ratioa	52
4.3. Emaizten adierazleak	54
4.3.1. Hezkuntzaren uzte goiztiarraren tasa (18-24 urte)	54
4.3.2. DBHko graduazio-tasa	56
4.3.3. Egokitasun-tasa	56
4.3.4. Irakasle errepikatzailak	57
4.3.5. Irakurtzeko, matematikarako eta zientzietarako gaitasunen gutxieneko maila lortu ez duten neska-mutil eta nerabeen proportzioa	59
5. Euskal hezkuntza-sistemako eremu estrategikoen azterketa	63
5.1. Ekitatea eta bikaintasuna euskal hezkuntza-sisteman	63
5.1.1. Ekitatea eta bikaintasuna PISAn	64
5.1.2. Ekitatea ebaluazio diagnostikoetan	69
5.1.3. Bikaintasuna ebaluazio diagnostikoetan	87

5.1. Eskola inklusiboa	89
5.2.1. Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen eskolatzea	89
5.2.2. Atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzea	104
5.3. Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren esparrua	117
5.4. Ikastetxeen digitalizazioa	129
5.4.1. Ikastetxeen heldutasun teknologikoa	130
5.4.2. Sakabanaketa teknologikoa	131
5.4.3. WIFI konektagarritasuna	132
5.4.4. Euskadiko etxeetako hornidura	133
6. Eranskinak	135
Oharrak	160
7. Eranskineko grafiko eta taulen aurkibidea	161



1. Aurkezpena



Zergatik eta zertarako Euskal Hezkuntza Sistemaren panoramika bat? Gure ustez, ebaluazio ororen helburua sistemaren etengabeko hobekuntza da. Baliabide asko inbertitzen diren zerbitzu publikoa den aldetik, Euskal Hezkuntza Sistema ebaluatu egin behar da. Gizartearen eskaera bat dira ebaluazioak, eta, ebidentzien bitartez, ebaluatutakoa zein egoeratan dagoen jakiteko balio dute. Bestalde, ondorioek prozedurei buruzko informazioa ematen digute hobetze aldera. Horregatik, euskal hezkuntza-sistemaren lehentasunetako bat ebaluazio-sistema propioa izatea da, zorrotza eta fidagarria. Eta, gure hezkuntza-sistemaren idiosinkrasiatik abiatuta, sistema horren egoerari buruzko datuak izatea: ikasleen ikaskuntza, inklusioa, bizikidetza, solidaritatea...

Gure hezkuntza-sistemaren eraginkortasuna neurtu behar dugu, arrazoizko kostuaz hezteko duen gaitasuna ezagutzeko, betiere ikasle guztiengarapen integrala bultzatuta. Sistemaren ekitateak, gainera, eskatzen du eskolatzeari eta eskolatzearen onurak sisteman ekitatez zenbateraino banatzen diren aztertzea.

Ebaluazioak ere lehentasunezko lekua izan behar du ikastetxeetan: hezkuntza-prozesuak ebaluatzea eta etengabeko hobekuntza bilatzea ikasleen beharrei, ikastetxeen antolamenduari, eskola-giroari eta irakasleen baldintzei erantzuteko. Hezkuntza-erakundeek hausnarketarako gune izan behar dute erabakiak hartzeko garaian, betiere ikasleen aurrerapena eta sistemaren kalitatea bermatzeko.

Hala ere, kalitatea kontzeptu biziki konplexua da, eta ebaluazio-prozesua baldintzatzen duten hainbat aldagai biltzen ditu. Hain zuzen ere, hain konplexua izateagatik, ez da mugatu behar emaitzei erreparatzera soilik; kontuan hartu behar dira emaitzak kokatzen diren testuinguruak, emaitza horiek lortzeko erabiltzen diren baliabideen balorazioa eta azterketa global batean eragina duten beste aldagai batzuk –finkoak eta testuinguruari dagozkionak, hain zuzen–.

Euskal Hezkuntza Sistemaren datu horiek guztiak publiko egitea sistemarekiko berarekiko eta herritarrekiko konpromisoa da. Gardentasunean urrats bat aurrera egitea da, garenaz eta egiten ari garenaz pentsatzeko gaitasuna eskatzen diguna. Non gauden onartzea da, eta nora joan nahi dugun hausnartzen laguntzea.

Aurkeztuko dugun begiradak ikuspuntu asko biltzen ditu; nazioarteko, Europako, eta ELGAko adierazleetan agertzen den informazioa biltzen du, eta gure inguruko herrialdeen pare jartzen gara. Inguruko herrialde horiek askotarikoak dira, eta gure errealitatea kontrastatzeko eta baloratzeko balio digute; gure argiekin harro egoteko eta gure itzalak ezagutzeko, aurrera egin ahal izateko, alegia.

Estatuko informazio eta adierazleak ere biltzen dira, eta gure hezkuntza-marko berean mugitzen diren autonomia-erkidegoak aipatzen dira, marko berarekin askotariko errealitateak daudela ikusarazteko.

Badakigu aurkeztuko dugunaren zati handi bat ideia bat dela; hain zuzen ere, gure testuingurutik kanpo gure sistemaz dagoen ideia. Nola ikusten gaituzten aztertuko dugu, zein den gure sistemak kanpora erakusten duen irudia, datuek eta konparazioek munduan zein posiziotan kokatzen gaituzten.

Barneko informazioak ere erabiltzen ditugu, geure datuak, gure hezkuntza-lanaren egunerokoan erabakiak hartzeko erabiltzen ditugunak, antolaketarako eta irakaskuntzarako erabakiak hartzeko, erabaki orokorrak eta ikastetxeko nahiz ikasgelako erabakiak hartzeko.

Adibidez, kanpoko probak baliagarriak izan daitezke hezkuntza-sistemaren funtzionamenduaren berri izateko, baita ikastetxe jakin batzuen arazoak hautemateko eta hobetzeko proposamenak egiteko ere. Kanpo-ebaluazioak “garrantzitsua” zer den markatu dezake, eta gure sisteman eta gure ikastetxean

hobekuntza-marko jakin batzuk detektatzen lagun diezaguke. Baina gure sistemaren argazkiaren zati bat baino ez digute eskaintzen. Horregatik, ikertzen jarraitu behar dugu galdera berrien bilaketa osatzen lagunduko diguten tresnak ezagutzeko eta aplikatzeko, hezkuntzako esku-hartzeen plangintzetan eta hobekuntzetan eragina izateko.

Azken batean, jardunbide egokiak identifikatu behar dira etapa eta testuinguru guztietan, eta hainbat dimentsiori eman behar zaio arreta. Horiek aztertu eta ebaluatu behar dira, ikastetxeei aldaketaren eta hobekuntzaren aldeko elementuak zeintzuk diren identifikatzen laguntzeko; emaitzetan eta ebidentzietan baliozkotutako erabakiak hartzen jarraitu ahal izateko; eta ezagutza hori sistemara transferitu ahal izateko.

Gure sistemari tenperatura hartzen jarraitu behar dugu, pandemia-testuinguru batean planteatu behar ditugun funtsezko galderak identifikatze aldera; izan ere, oztopoak eta ziurgabetasunak gainditu baititugu pandemia-egoera horretan, eta ikastetxeetan nolabaiteko normaltasun batez lan egiten jarraitu ahal izan dugu. Batez ere, aurre egin beharreko erronkak zeintzuk diren identifikatzen jarraitu nahi dugu, eta ikastetxeen eta, oro har, hezkuntza-komunitatearen aholkularitza eta laguntza hobetu nahi ditugu.

Jakina, ebaluazio-tresnak zorrozten eta ikaskuntza neurtzeko modu berriak bilatzen jarraitu behar dugu, hezkuntza-sistemaren etengabeko hobekuntzan eragin ahal izateko aukera berriak txertatuz; hezkuntza-prozesu horietan arreta handiagoa jarri behar dugu, eta ikaskuntzarako arrakastaren aldeko elementuak eta hobetzeko aukerak zeintzuk diren identifikatu.

Zalantzarik gabe, ebaluazioak hezkuntza-programak hobetzen laguntzeko balio behar du, bai sistemari dagokionez, bai ikastetxeari

dagokionez, ikasleen premien eta eskubideen zerbitzura egon behar baitute. Irakasleen jarduna ez ezik, hezkuntza-erakundeen eta, oro har, sistemaren funtzionamendua baloratzeko ere balio behar dute. Garrantzitsuena zera da, ebaluazio horiek testuinguruan kokatuta egitea eta ezagutza berria ematea, baina, batez ere, guk argi izan behar dugu zertarako ebaluatzen dugun.

Ebaluazioaren kultura hainbat ikuspegitatik bultzatzea eta sustatzea ezinbestekoa da, horixe baita gure sistemaren indargune eta erronken oinarria, besteak beste; baina, batez ere, irakasleengan konfiantza izan nahi dugu, haiek baitakite hobekien nola doan ikasleen ikaskuntza-prozesua.

Ebaluazioak hezkuntza-komunitatean eta, oro har, gizartean hausnarketa- eta eztabaida-prozesu eraikitzaileak abiarazteko balio behar du. Ebaluazio baten diagnostiko on batek eragina izatea lortuko du, baldin eta hausnarketa partekatu bat ere egiten bada. Funtsezko gai batzuk eta identifikatutako erronka batzuk erantzunkidetasunetik partekatu, sozializatu eta azaldu behar dira, betiere sistema hobetzeko beharrezkoak diren aldaketak identifikatzearren.

Horrela, bada, dokumentua hiru bloketan banatzen da, argi eta garbi bereizita. Lehen blokean Euskadiko eskola-ingurunearen panoramikari buruzko informazioa aurkeztuko dugu: ikastetxeak, matrikula, irakasleak, haur-hezkuntzako, oinarrizko hezkuntzako eta batxilergoko zerbitzu osagarriak eta beken garrantzia, sistema ekitatiboa izan dadin lortzeko tresna den aldetik. Bigarren blokean, hezkuntza-sistemako adierazle nagusien bilakaera aztertuko dugu: testuinguruaren, baliabideen, prozesuen eta emaitzen adierazleak. Hirugarren blokean, euskal hezkuntza-sistemaren eremu estrategikoak aztertuko ditugu, honako alderdi hauek deskribatuta: ekitatea eta bikaintasuna; aniztasunari erantzutea eskola inklusiboan, eleaniztasuna eta ikastetxeen digitalizazioa.

Informazio hori guztia ez da berria, eta ia guztia publikoa da; batera aurkeztuta, sistemaren irudi globala emateko balioa hartzen du. Espero dugu euskal hezkuntza-sistemaren panoramika hau baliagarria izango zaiola bakoitzari bere postuan, gogoeta egiteko eta indarra hartzeko, bizia, funtsezkoa eta biziki esker onekoa den lan batekin jarraitzeko: belaunaldi berrien hezkuntza.



2. Hezkuntzaren diagnostikoa egiteko erreferentziako markoa



Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 16. artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak erabateko eskumena du hezkuntzaren arloan, Konstituzioaren 27. artikuluari eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 149.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den Goi Inspektzioari kalterik egin gabe.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 16. artikulua arabera, irakaskuntza Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenpean dago, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak -1/1993 Legea, otsailaren 19koa- lege-marko egonkor bat sortzen du, marko horrek ezarriko baititu eskola publikoaren eredia zehazten duten arauzko hautabideak: askotariko eskola, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzazkoa, desberdintasunen berdintzaile eta dibertsitateen bateratzaile izango da.

Lege-garapenari esker, gizartearen hazkunderako proposatutako helburuak gauzatuko dituen hezkuntza lortu ahal izan dugu, betiere gizarte inklusiboagoa, solidarioa, itxaropen pertsonal guztiak errespetatuko dituen, gizartea osatzen duten pertsonen beharrei erantzungo diena, eta harremanak eta komunikazioa hainbat hizkuntzatan egiteko gai izango dena lortzearen eta, horregatik, euskara ikastea hezkuntzaren helburu garrantzitsuetako bat da.

Hezkuntzaren hobekuntza orotan, helburua ikasleak ez ezik, irakasleak ere badira, eta, ikastetxeetan, irakasleen hezkuntzako esku-hartzea gauzatzen den markoa honako elementu hauek osatzen dute: etaparen arabera antolatutako hezkuntza-sistema bat, helburuak osagarriak izanik; eta antolamenduko, kudeaketako, ikuskapeneko, laguntzeko eta ebaluazioko egitura bat izatea.

2.1. Erreferentziako marko programatikoa

Euskadiko hezkuntza-sistemaren diagnostiko honetan, erreferentzia nagusia Heziberri 2020 Plana¹ da; plan horrek bat egiten du bi elementu hauek uztartzeko asmoaz: alde batetik, Europako markoan 2020. urterako ezarritako berrikuntzako eta garapeneko ildo estrategikoak, hezkuntzari eta prestakuntzari dagokienez, eta, bestetik, gure testuinguruan eta ingurunean berezkoak ditugun hezkuntza-erronkak, betiere etorkizuneko belaunaldiak Euskadin eta munduan bizitzeko ongi prestatuak egon daitezen.

Horrela, bada, Euskadik bere egiten ditu Europako Batzordearen “Hezkuntza eta Prestakuntza 2020” (ET 2020)² Lankidetzarako marko estrategikoaren helburuak, baita horiek lortzeko ezarri diren xedeak ere:

- ikaskuntza iraunkorra eta mugikortasuna errealitate bihurtzea;
- hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea;
- berdintasuna, gizarte-kohesioa eta herritartasun aktiboa sustatzea;
- sormena eta berrikuntza areagotzea, baita ekintzaile izatea ere, hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan.

Bestalde, Heziberri 2020 planaren “Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa” eta Haur Hezkuntzako, Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko Dekretuak³ erreferentziazat hartuta, “EAEko hezkuntza-sistema hobetzeko plana, bikaintasunerantz ekitatean oinarrituta” planean ildo estrategiko hauek xedatzen dira:

- hezkuntza-komunitatearen prestakuntza;
- hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna;
- elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren markoan;
- ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia;
- ebaluazioa eta ikerketa;
- ikastetxe publikoen autonomian sakontzea.

Erreferentzia teoriko garrantzitsuak dira, halaber, UNESCOren (2015) “Hezkuntza berraztertzea: mundu osoko ongia lortzeko bidea?”⁴ dokumentua, eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda⁵; Euskadik Agenda horretarako ekarpenak egiteko asmoa du, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren bitartez⁶.

Agendak hezkuntzaren arloan dituen asmoak Garapen Jasangarrirako 4. helburuan, batik bat, jasotzen dira: “Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea”, hamar xede betetzean oinarrituta. Hamar xedeak betetzeko ibilbide-orria Incheongo Adierazpenean onetsitako Hezkuntza 2030 Ekintza Markoan finkatu zen, eta konpromisoak ekintza bihurtzeko orientabidea eskaintzen die gobernuei eta euren bazkideei.

1 <https://www.euskadi.eus/heziberri/aurkezpena/web01-a3hbhezi/eu/>; https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_hobekuntza_plana/eu_def/adjuntos/Hobetzeko_Plana_2016_martxo_e.pdf

2 https://ec.europa.eu/education/policies/european-policy-cooperation/et2020-framework_es

3 <https://www.euskadi.eus/eaeko-curriculum-dekretuak/web01-a3hbhezi/eu/>

4 <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000244209>

5 <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/2015/09/la-asamblea-general-adopta-la-agenda-2030-para-el-desarrollo-sostenible/>

6 <https://www.euskadi.eus/agenda-2030/>

2.2. Diagnostikoa egiteko erreferentziakoak diren informazioko eta ebaluazioko sistemak

Egindako diagnostiko-azterketaren abiapuntu dira, alde batetik, hezkuntza-adierazleen sistema ofizialeatik lortutako informazioa eta, bestetik, emaitza akademikoak ebaluatzeko barneko eta kanpoko sistemak.

Sistema horien helburua informazioa ematea da; hain zuzen ere, hezkuntza-sistemari buruzko informazio garrantzitsua ematea hezkuntza-administrazioei, instituzioetan parte hartzeko organoei, hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten eragileei (familiak, ikasleak, irakasleak eta beste profesional eta erakunde batzuk) eta, oro har, herritarrei, betiere sistema horren eraginkortasun- eta efizientzia-maila ebaluatzeko eta erabakiak hartzean orientazioa emateko ahalegina eginez.

Alde batetik, txosten honetan jasotako diagnostikoak hezkuntzaren adierazleen euskal sistema jotzen du informazio-iturri nagusitzat, eta sistema horren kudeaketa Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeari (ISEI-IVEI)⁷ esleitu dio Hezkuntza Sailak; era berean, iturri gehigarritzat Estatuko eta Europako adierazle-sistema hauek hartzen dira:

- Europako adierazle-sistema, Hezkuntza eta Prestakuntza 2020 Europako marko estrategikoen helburuetan oinarritzen dena; Education and Training Monitor⁸ tresnaren bitartez egiten da horren jarraipena.

- ELGAren adierazle-sistema; horren jarraipena urtean behin argitaratzen da Education at a Glance⁹ txostenean eta horren gaztelaniazko bertsioan: Panorama de la Educación (Hezkuntzaren Panorama)¹⁰.
- Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistema (SEIE)¹¹, Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioarena; 2020. urtean argitaratu zen horri buruzko azken jarraipen-txostena.

Sistema horiek, aldi berean, Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT¹²) eta, horren osagarri, Europako Estatistika Bulegoak (EUROSTAT¹³) eta Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN¹⁴) prozesatutako estatistika-informazioaz hornitzen dira, eta horiek, beren hezkuntza-kontuen bitartez, hezkuntza-sistemei buruzko informazioa bildu eta aztertzen dute. Horretaz gain, Hezkuntza Saileko estatistika-zerbitzuak aldi-aldi eskola-matrikularen azterketa egiten du, irakasleei buruzko estatistika bat eta ikastetxeetako informazioaren eta komunikazioaren teknologiei buruzko beste bat, bi urtean behin. Informazio estatistikoaren marko bateratu horri esker, euskal hezkuntza-sistema deskribatzen duten aldagaien eta adierazleen azterketa sistematiko eta sendoa lor daiteke.

Bestalde, ISEI-IVEIk kanpoko ebaluazio estandarizatuen emaitzen diagnostiko-azterketa egiteko ardura du, bai berezko ebaluazio diagnostikoarena, bai nazioarteko ebaluazioena: PISA, PIRLS, TIMSS, PIACC. Kanpo-ebaluazio horiek Hezkuntza Saileko Ikuskaritza Nagusiaren zerbitzuak urtero egiten dituen barneko emaitza akademikoen azterketatik lortzen den azterketa-ikuspegiaren osagarri dira.

7 <https://isei-ivei.hezkuntza.net/eu/inicio>

8 https://ec.europa.eu/education/policy/strategic-framework/et-monitor_en

9 <https://www.oecd.org/education/education-at-a-glance/>

10 <https://www.educacionyfp.gob.es/inee/indicadores/sistema-estatal.html>

11 <https://www.educacionyfp.gob.es/prensa/actualidad/2020/06/20200619-seie2020.html>

12 <https://eu.eustat.eus/indice.html>

13 <https://ec.europa.eu/eurostat>

14 <https://www.ine.es/>

Gainera, ISEI-IVEIk gure sistemaren erronka nagusiei lotutako ikerketak egiten ditu. Azken urteotan, ikerketa-lanak egin ditu hainbat arlotan: eskola-eraginkortasuna, inklusioa, bizikidetza edo eleaniztasuna, besteak beste, eta lankidetza estuan aritu da Arrue Proiektuarekin. Proiektu horretan, Ebaluazio Diagnostikoaren informazioan oinarrituta, ikasleek eskola-ingurunean euskararen erabilera aztertzen da.

Adierazleen eta emaitzen azterketa aberasteko, halaber, kanpoko azterlan eta ikerketak daude. Alde batetik, bi urtean behin, Euskadiko Eskola Kontseiluak¹⁵ gure eskola-sistemaren azterketa diagnostikoa egiten du. Argitaratutako azken diagnostikoan 2017/2019 ikasturteetako¹⁶ informazioa aztertu da, ikuspegi osatu batetik:


Euskadiko hezkuntzaren bilakaera eta egungo egoera; hezkuntza-sistemaren finantzaketa eta baliabide ekonomikoak; hobekuntza-prozesuak eta eskola-emaitzak. Bestalde, kanpoko erakundeek, hala nola unibertsitateek edo ikasketa-erakundeek, askotariko hezkuntza-ikerketak egiten dituzte.



¹⁵ <https://consejoescolardeeeuskadi.hezkuntza.net/eu/>

¹⁶ <https://consejoescolardeeeuskadi.hezkuntza.net/eu/informe-ensenanza>

3. Euskadiko eskola-ingurunearen azterketa



Kapitulu honetan, Euskadiko eskola-ingurunearen panoramika aurkeztuko dugu, betiere Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren informazio eguneratua hartuta abiapuntu. 2020-2021 ikasturteari eta ikastetxeei, matrikulari, irakasleriari, bekei eta Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Batxilergoan curriculumak garatzeko araudiaren arabera eskaintzen diren zerbitzu osagarriei dagokion informazioa aurkezten da zehazki.

3.1. Eskola-sistemako ikastetxeak


2020-2021 ikasturtean, 1222 ikastetxe zeuden Euskadiko eskola-sisteman: % 49,91 Bizkaian, % 34,86 Gipuzkoan eta % 15,22 Araban. Zentroen % 65,87 publikoak dira, eta % 34,12 pribatuak.

Jarraian, lurralde historiko bakoitzeko ikastetxeen sailkapena aurkeztuko dugu, irakasten duten hezkuntza-mailaren arabera: 340 ikastetxe haur-hezkuntzakoak soilik dira (ikastetxe horien % 65,87 publikoak dira); 336 ikastetxe lehen hezkuntzakoak soilik dira (% 94,64 publikoak); 102 ikastetxetan lehen hezkuntza eta DBH eskaintzen dituzte (% 86,27 pribatuak); 150 ikastetxetan Lanbide Heziketa soilik ematen dute (% 46 publikoak); 153 ikastetxetan DBH eta/edo Batxilergoa eta/edo Lanbide Heziketa eskaintzen dituzte (% 82,35 publikoak); eta 100 ikastetxetan maila guztiak eskaintzen dituzte (pribatuak dira denak). Gainera, hezkuntza bereziko 10 ikastetxe daude (1 Araban, 5 Gipuzkoan eta 4 Bizkaian), eta helduentzako hezkuntzako 29 zentro espezifiko, 15 Bizkaian, 12 Gipuzkoan eta 2 Araban.


Ikastetxe mota	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Euskadi
Guztira	186	426	610	1222
Haur Hezkuntza soilik	64	116	160	340
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	58	114	164	336
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH	18	30	54	102
DBH edo Batxilergoa edo Lanbide Heziketa	19	53	81	153
LH eta DBH, Batxilergoarekin edo Lanbide Heziketarekin	12	38	50	100
Hezkuntza Berezia	1	5	4	10
Helduentzat bereziki	2	12	15	29
Lanbide Heziketa soilik	12	57	81	150
Beste batzuk	0	1	1	2
Publikoa	140	285	380	805
Haur Hezkuntza soilik	53	93	103	249
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	54	106	158	318
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH	4	2	8	14
DBH edo Batxilergoa edo Lanbide Heziketa.	17	44	65	126
LH eta DBH, Batxilergoarekin edo Lanbide Heziketarekin	0	0	0	0
Hezkuntza Berezia	1	0	0	1
Helduentzat bereziki	2	12	14	28
Lanbide Heziketa soilik	9	28	32	69
Beste batzuk	0	0	0	0
Pribatua	46	141	230	417
Haur Hezkuntza soilik	11	23	57	91
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	4	8	6	18
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH	14	28	46	88
DBH edo Batxilergoa edo Lanbide Heziketa.	2	9	16	27
LH eta DBH, Batxilergoarekin edo Lanbide Heziketarekin	12	38	50	100
Hezkuntza Berezia	0	5	4	9
Helduentzat bereziki	0	0	1	1
Lanbide Heziketa soilik	3	29	49	81
Beste batzuk	0	1	1	2

3.1.a. grafikoa


Hezkuntza Sailaren datuak. 2021eko maiatza.

Ikastetxe kop., sarearen eta mailaren arabera Araban**3.1.b. grafikoa**

Hezkuntza Sailaren datuak. 2021eko maiatza.

Ikastetxe kop., sarearen eta mailaren arabera Gipuzkoan**3.1.c. grafikoa**

Hezkuntza Sailaren datuak. 2021eko maiatza.

Ikastetxe kop., sarearen eta mailaren arabera Bizkaian

Ikastetxeen tamaina

Ikastetxe txikien hazkuntza (150 ikasle edo gutxiago dituztenak) gero eta handiagoa da, hurrengo taulan ikus daitekeenez. Gorakada horrek, plangintzari eta ikastetxeen kudeaketari dagokienez, erronka suposatuko du etorkizunean Hezkuntza Sailerako, ikastetxeek garrantzi handia baitute lurraldearen hirigintza-plangintzan eta lurraldearen garapenean.

Gorakada hori sakonean aztertzeko modukoa da, era kualitatibo zein kuantitatiboan; aipatutakoaz gain, ikasleentzat ekar ditzakeen abantaila eta desabantailengatik.

Ikastetxearen tamaina	2016	2017	2018	2019	2020
-----------------------	------	------	------	------	------

Guztira

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza					
<= 150 ikasle	113	112	118	127	135
>150 eta <= 300 ikasle	144	150	145	146	143
>300 eta <= 500 ikasle	161	160	165	163	179
> 500 ikasle	142	139	135	134	116
DBH edo Batxilergoa					
<= 150 ikasle	76	77	70	67	66
>150 eta <= 300 ikasle	134	130	136	135	134
>300 eta <= 500 ikasle	71	76	76	79	76
> 500 ikasle	66	69	71	72	77

Publikoa


Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza					
<= 150 ikasle	86	86	88	89	94
>150 eta <= 300 ikasle	88	92	89	90	89
>300 eta <= 500 ikasle	96	92	96	94	98
> 500 ikasle	64	64	61	61	54
DBH edo Batxilergoa					
<= 150 ikasle	18	19	19	15	15
>150 eta <= 300 ikasle	47	44	45	46	45
>300 eta <= 500 ikasle	34	37	36	40	37
> 500 ikasle	34	37	39	37	41

Ikastetxearen tamaina	2016	2017	2018	2019	2020
Pribatua					
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza					
<= 150 ikasle	27	26	30	38	41
>150 eta <= 300 ikasle	56	58	56	56	54
>300 eta <= 500 ikasle	65	68	69	69	81
> 500 ikasle	78	75	74	73	62
DBH edo Batxilergoa					
<= 150 ikasle	58	58	51	52	51
>150 eta <= 300 ikasle	87	86	91	89	89
>300 eta <= 500 ikasle	37	39	40	39	39
> 500 ikasle	32	32	32	35	36

Jarraian dauden grafikoen bitartez, ikastetxeek 2016-2020 aldian izan duten bilakaera ikus dezakegu, etaparen eta ikastetxeen tamainaren arabera.

3.1.d. grafikoa


Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen tamainaren bilakaera 2016- 2020 aldian



2017. urtetik aurrera ikastetxe txikien kasuan (≤ 150 ikasle) gorakada jarraitua izan dela nabarmendu behar da, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetan; aldi berean, ikastetxe handienak (>500 ikasle) 18 puntuko jaitsiera izan dute azken urtean.

3.1.e.grafikoa

DBHko eta Batxilergoko ikastetxeen tamainaren bilakaera 2016- 2020 aldian



DBHko eta Batxilergoko kasuan, ehunekoak egonkorak dira.

3.2. Ikasleen eskolatzea

2020-2021 ikasturtean 387 978 ikasle zeuden eskolatuta euskal hezkuntza-sisteman, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko, Batxilergoko, Hezkuntza Bereziko, Helduentzako Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako mailetan. %54,24 sare publikoan eta %45,75 sare itunduan. Ikasle horien %47,79 emakume edo neskak dira, %52,19 gizon edo mutilak,


eta %0,007 ez da sailkapen binarioarekin identifikatzen (taulan + ikurraekin adierazi da).

Hurrengo taula eta grafikoetan matrikularen banaketa ikus daiteke, lurraldearen, sarearen, generoaren eta hezkuntza-mailaren arabera.


2020-2021 ikasturtea			HH ¹⁷	LH	DBH	BATX	H. BER.	LANB. H.	HHI	GUZTIRA
Euskadi	Guztira	Guztira	68875	127968	87072	32138	1560	47075	23290	387978
		Neskak	33489	62154	42274	17384	548	16687	12916	185452
		Mutilak	35369	65814	44796	14752	1012	30387	10366	202496
		+	17	0	2	2	0	1	8	30
	Publikoa	Guztira	36613	66302	40577	15634	805	27448	23073	210452
		Neskak	17669	31998	19626	8831	283	9647	12859	100913
		Pribatua	18931	34304	20950	6801	522	17800	10206	109514
		+	13	0	1	2	0	1	8	25
	Pribatua	Guztira	32262	61666	46495	16504	755	19627	217	177526
		Neskak	15820	30156	22648	8553	265	7040	57	84539
		Mutilak	16438	31510	23846	7951	490	12587	160	92982
		+	4	0	1	0	0	0	0	5
Araba	Guztira	Guztira	11581	20963	13519	5091	271	6872	5997	64294
		Neskak	5654	10089	6560	2764	93	2642	2972	30774
		Mutilak	5921	10874	6959	2326	178	4230	3023	33511
		+	6	0	0	1	0	0	2	9
	Publikoa	Guztira	6884	12640	6684	2676	194	4071	5997	39146
		Neskak	3327	6044	3261	1489	61	1626	2972	18780
		Mutilak	3552	6596	3423	1186	133	2445	3023	20358
		+	5	0	0	1	0	0	2	8
	Pribatua	Guztira	4697	8323	6835	2415	77	2801	0	25148
		Neskak	2327	4045	3299	1275	32	1016	0	11994
		Mutilak	2369	4278	3536	1140	45	1785	0	13153
		+	1	0	0	0	0	0	0	1
Gipuzkoa	Guztira	Guztira	23194	42781	30127	11040	473	17583	6595	131793
		Neskak	11323	20748	14609	6009	171	5979	3713	62552
		Mutilak	11861	22033	15518	5031	302	11604	2882	69231
		+	10	0	0	0	0	0	0	10
	Publikoa	Guztira	11957	21866	14521	5321	204	11487	6595	71951
		Neskak	5792	10523	7024	3062	77	3684	3713	33875
		Mutilak	6158	11343	7497	2259	127	7803	2882	38069
		+	7	0	0	0	0	0	0	7
	Pribatua	Guztira	11237	20915	15606	5719	269	6096	0	59842
		Neskak	5531	10225	7585	2947	94	2295	0	28677
		Mutilak	5703	10690	8021	2772	175	3801	0	31162
		+	3	0	0	0	0	0	0	3
Bizkaia	Guztira	Guztira	34100	64224	43426	16007	816	22620	10698	191891
		Neskak	16512	31317	21105	8611	284	8066	6231	92126
		Mutilak	17587	32907	22319	7395	532	14553	4461	99754
		+	1	0	2	1	0	1	6	11
	Publikoa	Guztira	17772	31796	19372	7637	407	11890	10481	99355
		Neskak	8550	15431	9341	4280	145	4337	6174	48258
		Mutilak	9221	16365	10030	3356	262	7552	4301	51087
		+	1	0	1	1	0	1	6	10
	Pribatua	Guztira	16328	32428	24054	8370	409	10730	217	92536
		Neskak	7962	15886	11764	4331	139	3729	57	43868
		Mutilak	8366	16542	12289	4039	270	7001	160	48667
		+	0	0	1	0	0	0	0	1

3.2.a. grafikoa

Hezkuntza Saila. 2021eko maiatza.

Euskadiko ikasleen ehunekoa, generoaren arabera**3.2.b. grafikoa**

Hezkuntza Saila. 2021eko maiatza.


Euskadiko ikasleen ehunekoa, generoaren arabera

Grafikoan ikus daitekeenez, derrigorrezko etapetan nesken eta mutilen ehunekoa antzekoa da, % 50 ingurukoa; alabaina, derrigorrezkoaren ondoko etapetan, Batxilergoaren eta HHEren kasuetan, neskek, mutilak ia 10 puntuko aldearekin


gainditzen dituzte, eta Hezkuntza Bereziaren eta Lanbide Heziketaren kasuetan, mutilak dira nagusi, neskek baino ia 30 puntu gehiagorekin.

3.2.c. grafikoa

Hezkuntza Saila. 2021eko maiatza.


Euskadiko ikasleen ehunekoa, ikastetxearen titulartasunaren eta mailaren arabera**3.2.d. grafikoa**

Hezkuntza Sailaren datuak. 2020-2021.


Arabako ikasleak sarearen eta mailaren arabera

3.2.e. grafikoa

Hezkuntza Sailaren datuak. 2020-2021.

Gipuzkoako ikasleak sarearen eta mailaren arabera**3.2.f. grafikoa**

Hezkuntza Sailaren datuak. 2020-2021.

Bizkaiko ikasleak sarearen eta mailaren arabera

Banaketa lurraldearen arabera aztertuz gero, ikasleen % 49,45 Bizkaiko ikastetxeetan eskolatuta daude, % 33,96 Gipuzkoan eta % 16,42 Araban.

Euskadin, sare bakoitzean eskolatutako ikasleen ehunekoari dagokionez, Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleen

kasuan izan ezik, sare publikoan matrikularen proportzioa handiagoa da itunpekoan baino Haur eta Lehen Hezkuntzan eta, bereziki, Araban; aldiz, DBHn eta Batxilergoan, itunpeko sarean matrikulatutako ikasleen ehunekoa zertxobait handiagoa da

Ikasleak ereduaren arabera nola banatzen diren aztertuz gero, ikasle gehienak, hau da, % 64,21, D ereduaren eskolatuta daude; % 18,40 A ereduaren; % 16,90 B ereduaren; eta ikasleen % 0,40 atzerriko irakaskuntza-zentroetan (X). Lanbide Heziketako eta HHEko ikasleen % 0,20ri buruzko daturik ez dugu (DE).


2020-2021 ikasturtea	HH	LH	DBH	BATX	LANB. H.	HHI	GUZTIRA
Euskadi	68875	127968	87072	32138	47075	23290	386418
A	1685	4233	5407	8961	28073	22765	71124
B	10477	24575	19301	1802	9155	0	65310
D	56654	98167	61806	21374	9630	492	248123
X	0	993	558	0	0	0	1551
DE	59	0	0	1	217	33	310
Araba	11581	20963	13519	5091	6872	5997	64023
A	383	991	1670	2009	5010	5911	15974
B	3428	7065	4703	468	1263	0	16927
D	7770	12907	7146	2613	598	78	31112
X	0	0	0	0	0	0	0
DE	0	0	0	1	1	8	10
Gipuzkoa	23194	42781	30127	11040	17583	6595	131320
A	536	1074	791	1817	7766	6374	18358
B	528	2348	3047	544	3227	0	9694
D	22130	39359	26289	8679	6421	206	103084
X	0	0	0	0	0	0	0
DE	0	0	0	0	169	15	184
Bizkaia	34100	64224	43426	16007	22620	10698	191075
A	766	2168	2946	5135	15297	10480	36792
B	6521	15162	11551	790	4665	0	38689
D	26754	45901	28371	10082	2611	208	113927
X	0	993	558	0	0	0	1551
DE	59	0	0	0	47	10	116

Hurrengo grafikoetan, ikasleak lurraldearen arabera nola banatzen diren ikus daiteke, hizkuntza-ereduari eta sareari erreparatuta. Gipuzkoan D ereduak da nagusi maila guztietan, HHEn izan ezik; Bizkaian eta Araban ere bada nagusi beheko mailetan, baina Araban A


eta B ereduaren estaldura handiagoa da. Ikus daitekeenez, ikasleen guztizko kopuruan alde txikiak daude, baina aldagairen batean zenbait ikasleren datuak falta direlako atera dira alde horiek.

3.2.g. grafikoa


Hezkuntza Sailaren datuak. 2021eko maiatza.

Matrikulen ehunekoa ereduaren arabera, Euskadin**3.2.h. grafikoa**

Hezkuntza Sailaren datuak. 2021eko maiatza.

Matrikulak ereduaren eta mailaren arabera, Euskadin**3.2.i. grafikoa**

Hezkuntza Sailaren datuak. 2021eko maiatza.


Matrikulak LHren eta hizkuntza-ereduaren arabera

Une hauetan, hezkuntza-sistemaren egoera hizkuntza-ereduen ikuspegitik aztertzen badugu, D ereduari matrikulatutako ikasleak nagusi direla ondorioztatuko dugu, batik bat, Gipuzkoan, eta gero Bizkaian eta Araban.

3.2.j. grafikoa

Hezkuntza Sailaren datuak.

D ereduko matrikularen bilakaera



Derrigorrezko etapetan eta Haur Hezkuntzan, D ereduko ikasleen ehunekoa beste bi ereduetakoa baino askoz handiagoa da: Haur Hezkuntzan, ikasleen % 82,4 dira, Lehen Hezkuntzan % 77,3 eta DBHn % 71,4.

Batxilergoan eta, bereziki, Lanbide Heziketan badute, oraindik, hazkunderako marjina zabala D ereduko ikasleen eskolatzeari.

Bi sareen artean ere bada alderik ikasleen eskolatzeari, hizkuntza-ereduen arabera.

KOP. 2020/21 IKASTURTEA	PUBLIKOA			PRIBATUA			
	A	B	D	A	B	D	X
Haur Hezkuntza	346	679	35604	1339	9805	21066	
Lehen Hezkuntza	955	2826	62524	3281	21754	35646	1039
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	1319	1836	37416	4092	17471	24385	562
Batxilergoa	2404	253	12973	6556	1549	8398	
Lanbide Heziketa	14459	5632	7057	13562	3588	2595	

% 2020/21 IKASTURTEA	PUBLIKOA			PRIBATUA			
	A	B	D	A	B	D	X
Haur Hezkuntza	0,9	1,9	97,2	4,2	30,4	65,4	
Lehen Hezkuntza	1,4	4,3	94,3	5,3	35,2	57,8	1,7
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	3,3	4,5	92,2	8,8	37,6	52,4	1,2
Batxilergoa	15,4	1,6	83,0	39,7	9,4	50,9	
Lanbide Heziketa	53,3	20,7	26,0	68,7	18,2	13,1	

Sare publikoaren kasuan, derrigorrezko etapetan eta Haur Hezkuntzan ikasleen % 90 baino gehiago D ereduaren daude matrikulatuta, eta itunpeko zentroetan % 50-65.


Gainerako etapetan ere (Batxilergoa eta Lanbide Heziketa) eusten zaio alde horri, nahiz eta bi

sareetan D ereduiko ikasle kopuruak goranzko joera duen.

Hurrengo grafikoetan, ikasleen hizkuntza-ereduaren arabera bilakaera nolakoa izaten ari den argituko dugu, etapa guztietan.


3.2.k. grafikoa

Ikasleen banaketaren bilakaera A, B eta D hizkuntza-ereduen arabera, Haur Hezkuntzan




3.2.l. grafikoa

Ikasleen banaketaren bilakaera A, B eta D hizkuntza-ereduen arabera, Lehen Hezkuntzan




3.2.m. grafikoa


Ikasleen banaketaren bilakaera A, B eta D hizkuntza-ereduen arabera, DBHn

**3.2.n. grafikoa**

Ikasleen banaketaren bilakaera A, B eta D hizkuntza-ereduen arabera, Batxilergoan

**3.2.ñ. grafikoa**

Ikasleen banaketaren bilakaera A, B eta D hizkuntza-ereduen arabera, Lanbide Heziketan



D ereduak goranzko joera du derrigorrezko etapetan, Haur Hezkuntzan eta Batxilergoan. Lanbide Heziketan D ereduak behera egin zuen hainbat urtez, baina 2017az geroztik hazkunde txikia izan du.

2015-2016 ikasturtetik 2020-2021 ikasturtera bitarte matrikulak izan duen bilakaera aztertzen badugu, ikusiko dugu bi sareetan Haur Hezkuntzako matrikulazioa murrizten ari


dela arian-arian; halaber, Lehen Hezkuntzako matrikulan gorakada txiki bat izan zen 2019-2020 ikasturtera arte eta, ikasturte horretatik aurrera, beheranzko joera hasi da. DBHko, Lanbide Heziketako, Batxilergoko eta Hezkuntza Bereziko etapetan matrikulazioak gora egin duela nabarmendu behar da, eta goranzko joera hori bi sareetan gertatu dela.

	2015/16	2016/17	2017/18	2018/19	2019/20	2020/21
GUZTIRA	382604	384920	391854	393067	392360	387978
Publikoa	208691	207881	212593	213421	212975	210452
Itunpekoa	173913	177039	179261	179646	179385	177526
HH	79754	77767	76174	74507	72934	68875
Publikoa	42351	41100	40133	39218	38492	36613
Itunpekoa	37403	36667	36041	35289	34442	32262
LH	126944	129028	130566	131029	130153	127968
Publikoa	65807	66777	67689	67978	67428	66302
Itunpekoa	61137	62251	62877	63051	62725	61666
DBH	77181	79473	82630	85099	86369	87072
Publikoa	35282	36105	37880	39205	40049	40577
Itunpekoa	41899	43368	44750	45894	46320	46495
LANB. H.	40491	41914	43455	43595	44503	47075
Publikoa	22727	23252	24424	24751	25503	27448
Itunpekoa	17764	18662	19031	18844	19000	19627
HHE	28603	26609	27726	27461	26108	23290
Publikoa	28040	26186	27310	27065	25843	23073
Itunpekoa	563	423	416	396	265	217
BATX.	28385	28833	29911	29910	30769	32138
Publikoa	13877	13820	14500	14463	14876	15634
Itunpekoa	14508	15013	15411	15447	15893	16504
H. BER.	1246	1296	1392	1466	1524	1560
Publikoa	607	641	657	741	784	805
Itunpekoa	639	655	735	725	740	755

3.2.o. grafikoa


Hezkuntza Sailaren datuak. 2021eko maiatza.

Matrikularen bilakaera, mailaren arabera




3.2.p. grafikoa

Matrikularen bilakaera, sarearen eta mailaren arabera, HH eta LH

**3.2.q. grafikoa**

Matrikularen bilakaera, sarearen eta mailaren arabera, DBH, BATX eta LANB.H.



Ikasleen matrikularen bilakaerak lotura zuzena du joera demografikoekin. Ildo horretan, **EUSTATEk proiektzioa** egin zuen 2018an 2031ra¹⁸ eta, bertan, beheranzko joera aurreikusten da; proiektzioaren arabera, ibilbideak eta erritmoak ez dira berdinak izango hezkuntzako ziklo edo etapa guztietan, jaiotza-tasaren mailaren gorabeherak ziklo edo etapa bakoitzean denboran geroratutako eragina izango duten heinean.


Hurrengo grafikoetan, matrikularen ehunekoek 2020-2030 aldian Euskadin izango duten jaitsieraren aurreikuspena jasotzen da.

Haur Hezkuntza jaitsiera gertatzen dela ikus daiteke, eta 2028. urtetik aurrera hasten da egonkortasuna.

3.2.r. grafikoa

EUSTAT. 2020-2030.

HHko matrikularen ehunekoaren bilakaeraren proiektzioa, guztira eta lurralde historikoaren arabera




18 "Biztanleriaren proiektzioak 2031. Emtzen azterketa". EUSTAT 2018: https://www.eustat.eus/elementos/ele0014200/Proyecciones_de_poblacion_2031/inf0014234_e.pdf

Lehen Hezkuntzan, joera beheranzkoa izango da lurralde guztietan Araban izan ezik; Araban nolabaiteko egonkortasuna ikusten da hasierako urteetan.

3.2.s. grafikoa

EUSTAT. 2020-2030.

LHko matrikularen ehunekoaren bilakaeraren proiektzioa, guztira eta lurralde historikoaren arabera




DBHko datuen arabera, lehenengo urteetan joera goranzkoa izango da 2025. urtera arte, eta gero jaisten hasiko da, azken urteetan egonkortasuna lortu arte. Dena dela, azken urteotako proiektzioak baikorregiak direla esan dezakegu, 2018. urtera arteko informazio frogagarrian oinarrituta egin

zirelako, baina azken urteotako jaiotza-tasak beherantz egiten jarraitu du 2020ra arte; hortaz, epe luzeko proiektzioek ezkorragoak izan beharko lukete, ziurrenik.

3.2.t. grafikoa

EUSTAT. 2020-2030.

DBHko matrikularen ehunekoaren bilakaeraren proiektzioa, guztira eta lurralde historikoaren arabera




Bukatzeko, Batxilergoan 2028. urtera arte goranzko joera ikusten da Euskadin, eta gero jaisten hasiko da.

3.2.u. grafikoa

EUSTAT. 2020-2030.

Batzilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoaren bilakaeraren proiektzioa



Jaiotzen datuak


Azken urteotako jaiotza kopuruari buruz EUSTATEk emandako informazioan oinarrituta, honako grafikoa hauetan ikus daiteke joera beheranzkoa izan dela.

3.2.v. grafikoa

EUSTAT.

EAEko

jaiotza-tasa
1976-2020
aldian




Epe luzera atzera begiratuz gero (1976. urtetik hasita), lehen hamar urteetan jaitsiera handia izan zela ikus daiteke, eta 1986an urteko jaiotzak egonkortsu egin ziren, 20 000 haur ingururekin. Harrezkero gorabehera txikiak izan dira 2000ko lehen hamarkadara arte, 23 000 bat jaiotza izanik. 2012. urtean jaio ziren azken aldiz Euskadin 20 000 haur baino gehiago.

3.2.w. grafikoa


EUSTAT.

Euskadiko jaiotza-tasaren bilakera 2010-2020 aldian



3.2.x. grafikoa

EUSTAT.


Euskadiko jaiotza-tasaren bilakaera 2010-2020 aldian, lurraldearen arabera

Kontuan izan behar da proiektzio horiek 2018. urtean egin zirela. Urte horretatik 2020ra izan diren jaiotzen datuei erreparatuta, zera pentsa daiteke, esate baterako, proiektzioaren azken urteetan Haur Hezkuntzan aurreikusten zen egonkortasuna atzeratu egingo dela, jaiotzak uste baino gehiago jaitsi direlako. Horrek eragina izango du, gerora, gainerako mailetan.

Jaiotzak amaren jatorriaren arabera nola banatzen diren aztertzen badugu, ikus daiteke Euskadin gero eta haur gehiago jaiotzen direla atzeritak etorritako ama batengandik. Gertaera horrek errealitate berri bat ekarriko du bai demografiaren aldetik, bai hezkuntzaren aldetik eta, etorkizun hurbilean, ikastetxeen kudeaketa eta plangintzak berraztertu egin beharko dira, egoera berri horretara egokitzearen.

3.2.y. grafikoa

EUSTAT. 2021eko maiatza.

Euskadiko jaiotzak, amaren jatorriaren arabera

3.3. Euskadiko ikastetxeetako irakasleak

2020-2021 ikasturtean, Hezkuntza Sailaren datuen arabera, Euskadiko eskola-sistemako irakasleen % 63,2 ikastetxe publikoetan aritu dira, eta % 36,8 itunpeko ikastetxeetan. % 71,8 emakumeak dira, eta % 27,9 gizonak.

2020/21 ikasturtea	Emakumeak	Gizonak	ED/EE	GUZTIRA
GUZTIRA	28007	10897	128	39032
Haur Hezkuntza	5235	293	33	5561
Lehen Hezkuntza	8841	2277	10	11128
DBH	4750	2095	12	6857
Batxilergoa	3321	1935	14	5270
LANB. H.	2454	2700	24	5178
HHE	416	190	0	606
H. Ber.	346	44	1	391
Beste batzuk	1077	734	17	1828
Irakaskuntzako ez den jarduera	1567	629	17	2213
PUBLIKOA	17891	6723	39	24653
Haur Hezkuntza	2899	154	20	3073
Lehen Hezkuntza	5928	1363	1	7292
DBH	2925	1176	1	4102
Batxilergoa	1981	1041	2	3024
LANB. H.	1584	1780	5	3369
HHE	414	190	0	604
H. Ber.	221	23	0	244
Beste batzuk	812	528	7	1347
Irakaskuntzako ez den jarduera	1127	468	3	1598
PRIBATUA	10116	4174	89	14379
Haur Hezkuntza	2336	139	13	2488
Lehen Hezkuntza	2913	914	9	3836
DBH	1825	919	11	2755
Batxilergoa	1340	894	12	2246
LANB. H.	870	920	19	1809
HHE	2	0	0	2
H. Ber.*	125	21	1	147
Beste batzuk	265	206	10	481
Irakaskuntzako ez den jarduera	440	161	14	615


* Hezkuntza Bereziari buruzko informazioan Hezkuntza Bereziko ikastetxeetako eta gela egonkorretako datuak biltzen dira.

Lehen Hezkuntza eta DBH dira irakasle gehien dituzten hezkuntza-etapak eta, bereziki, sare publikoan; hurrengo grafikoetan ikusten denez, irakasle gehienak emakumeak dira bi sareetan.

3.3.a. grafikoa

Hezkuntza Saila. 2021eko maiatz.

Irakasleen ehunekoa, sarearen arabera




3.3.b. grafikoa

Hezkuntza Saila.
2021eko maiatza.

Irakasleak generoaren eta etaparen arabera sare publikoan

- Emakumeak
- Gizonak
- ED/EE




3.3.c. grafikoa

Hezkuntza Saila.
2021eko maiatza.

Irakasleak generoaren eta etaparen arabera sare pribatuan

- Emakumeak
- Gizonak
- ED/EE



3.4. Zerbitzu osagarrien erabilera

Hezkuntza Sailak ikastetxe publikoetan eskaintzen dituen zerbitzu osagarriak jangela eta garraioa dira.

JANGELA

IKASTETXE MOTA	EUSKADI	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
HH	3	1	0	2
HH eta LH	319	53	109	157
DBH	87	13	25	49
LH eta DBH	11	4	2	5
H. BER.	1	1	0	0
GUZTIRA	421	72	136	213

2020-2021 ikasturtean, 421 ikastetxetan eskaini dute jangela; horien erdiak (% 50,59) Bizkaian daude, % 32,30 Gipuzkoan eta % 17,10 Araban. Garraioa 239 ikastetxetan eskaini da, eta horien % 48,53 Bizkaikoak dira, % 16,73 gipuzkoarrak eta % 34,72 arabarrak.

GARRAIOA

IKASTETXE MOTA	EUSKADI	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
HH	2	0	0	2
HH eta LH	163	31	55	77
DBH	73	8	28	37
H. BER.	1	1	0	0
GUZTIRA	239	40	83	116

Zerbitzu osagarrien erabilera aldatu egiten da hezkuntza-etaparen arabera. Hasierako etapetan askoz handiagoa da, tauletan ikus daitekeenez. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, jangelaren erabilera % 75,7 da eta garraioarena, berriz, % 68,2.

3.5. Bekak

Hezkuntza Sailak emandako datuetan oinarrituta, 2019-2020 ikasturtean 51 514 milako euroko inbertsioa egin zen hainbat beka motatan unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan eskolatutako ikasleen premiei erantzuteko. Hurrengo taulan, 2014-2020 aldian emandako bekak eta beka mota bakoitzera bideratutako

zenbatekoa (milako eurotan) jasotzen dira. Datuetan bildutako ikasle bakoitza zenbat beka jaso dituen, hainbat aldiz agertzen da. Behean jasotako aurrekontuaren zati handiena jangelako eta materialaren beketara bideratzen da.

BEKAK		IKASTURTEA					
		2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19	2019-20
Hizkuntza-ikastaroa atzerrian	Beka kop.	10241	8618	9256			
	Zenbatekoa (milako €)	718	722	719			
Jantokia	Beka kop.	62132	60285	59632	57487	52854	43740
	Zenbatekoa (milako €)	39462	37741	37340	36296	33433	27806
Materialaren laguntza	Beka kop.	124661	123377	125382	125342	100193	95152
	Zenbatekoa (milako €)	13139	13129	13488	13660	9124	8661
Kuotak	Beka kop.	450	450	387	446	399	281
	Zenbatekoa (milako €)	409	404	344	387	353	245
Irakaskuntza	Beka kop.	2283	2373	2550	2745	617	531
	Zenbatekoa (milako €)	947	1019	1118	1170	123	107
Egoitza	Beka kop.	35	53	61	55	71	61
	Zenbatekoa (milako €)	89	135	154	140	107	98
Joan-etorria / Garraioa	Beka kop.	2914	3162	3336	3401	9	9
	Zenbatekoa (milako €)	1056	1185	1218	1244	3	3
Errenta	Beka kop.					2619	5891
	Zenbatekoa (milako €)					4190	10015
Oinarrizko beka	Beka kop.					15597	12846
	Zenbatekoa (milako €)					3119	3847
Zenbateko aldagarria	Beka kop.					17132	17351
	Zenbatekoa (milako €)					1028	1040
Bikaintasun akademikoa	Beka kop.					3072	3913
	Zenbatekoa (milako €)					222	297
HPB osagaia	Beka kop.					15	49
	Zenbatekoa (milako €)					9	44
GUZTIRA	Beka kop.	202716	198318	200604	189476	192578	179824
	Zenbatekoa (milako €)	55821	54336	54382	52896	51712	52161

Ikusten denez, 2018/2019 ikasturtetik aurrera beka antolatzeke modua aldatu egin zen, baina zenbatekoa, berriz, ez; beken zenbatekoa egonkor samarra izan da azken ikasturteotan.

Hurrengo grafikoan, beka kopuruak izan duen bilakaera ikus daiteke, baita beka mota bakoitzera urtero bideratzen den guztizko zenbatekoaren (milako eurotan) bilakaera ere. Beka kopuruari

dagokionez, 2014-2015 ikasturtetik aurrera joera zertxobait beheranzkoa izan da eta 2018-2019 ikasturtean areagotu egin da, nahiz eta 2019-2020 ikasturtean berriro ere gora egin. Hala ere, 2014-2015 ikasturtea erreferentziazat hartuz gero, 2019-2020 ikasturtean beketara bideratutako dirua erreferentziako urtekoaren % 93,4 da.

3.5.a. grafikoa


Hezkuntza Saila.
2021eko ekaina.
Beka kopuruaren eta bideratutako zenbatekoaren bilakaera (milako €)



2019-2020 ikasturtean gorakada handia izan da beka bakoitzaren batez bestekoan: emandako beka bakoitza 290 € izatera iritsi da.

3.5.b. grafikoa

Hezkuntza Saila.
2021eko ekaina.
Beka kopuruaren eta beka bakoitzaren batez besteko zenbatekoaren bilakaera (n €)



2019-2020 ikasturtean, Hezkuntza Sailak 52 161 milako euro bideratu zituen, guztira, beketara. Hurrengo taulan beka bakoitzean jasotako batez besteko zenbatekoa adierazten da, etapa bakoitzean; datu horiek ikusita, batxilergoko etapetan eta Hezkuntza Premia Bereziatan emandako beken batez besteko zenbatekoa nabarmentzen da.


MAILA	2019-20 IKASTURTEA			
	BEKA KOP.	ZENBATEKOA (MILAKO €)	BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA	BEKEN %-a, IKASLEEN ARABERA
Haur Hezkuntza	39244	9100	231,9	57,0
Lehen Hezkuntza	85527	19808	231,6	66,8
DBH	47682	7501	157,3	54,8
Batxilergoa	22647	6909	305,1	70,5
Lanbide Heziketa	28426	8178	287,7	61,1
HPB	1017	332	326,5	65,2
Zereginen ikaskuntza	415	90	216,1	70,8
GUZTIRA	224958	51918	230,8	

Ikasleen arabera, beka ehuneko handiena Batxilergoan eta Zereginen Ikaskuntzako ikasgeletan dago. Bestalde, mailarik txikiena DBH etapari dagokio.

3.5.c. grafikoa

Hezkuntza Saila. 2021eko ekaina.

Beka kopuruaren eta bideratutako zenbatekoaren bilakaera (milako €), etaparen arabera, 2019/2020 ikasturtean



2019-2020 ikasturtean aurrekonturik handiena izan duen unibertsitateaz kanpoko beka mota jangelarena izan da (guztizkoaren % 53), errentaren bekarekin batera (% 19). Joan-etorrietako bekaren kasuan, Hezkuntza Sailak emandako datuen arabera, gastua 0 izan da, beste beka mota bat jarri baita horren ordeiz.

BEKA MOTA	2019-20 IKASTURTEA		
	Nº BECAS	ZENBATEKOA (MILAKO €)	%
Jantokia	43740	27806,3	53,3
Materialaren laguntza	95152	8660,9	16,6
Kuotak	281	244,5	0,5
Irakaskuntza	531	106,7	0,2
Egoitza	61	97,6	0,2
Joan-etorria/Garraioa	9	2,9	0,0
Errenta	5891	10014,7	19,2
Oinarrizko beka	12846	3846,6	7,4
Zenbateko aldagarria	17351	1039,7	2,0
Bikaintasun akademikoa	3913	297,3	0,6
HPB osagaia	49	44,0	0,1
GUZTIRA	179824	52161,1	100





4. Hezkuntza-sistemaren adierazle nagusien azterketa



Hezkuntzaren adierazleen euskal sistema prestatzea eta horri jarraipena egitea Unibertsitateaz kanpoko Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI-IVEI) jarduera-lerroetako bat da. Horretarako, Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren, Hezkuntzako Estatistika Zerbitzuaren eta Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) laguntza du.

Sistema baten alderdi guztiak diseinatzeko orduan sailkapen asko erabil daitezkeen arren, ISEI-IVEI-k lau adierazle-kategoria kontuan hartzea erabaki du, sailkapen sinplea egitea eta beste hezkuntza-sistema batzuetakoekin konparazioak erraz egitea ahalbidetzen dutelako: Testuingurua, Baliabideak, Prozesuak eta Emaitzak.

- Testuinguruaren adierazleek testuinguru sozioekonomikoaren egoera zein den azaleratzen dute, honako alderdi hauetan: demografiaren eta eskolatzearen egoera; baldintza sozioekonomikoak eta kulturalak; biztanleriaren jarrerak eta itxaropenak hezkuntzari dagokionez...
- Baliabideen adierazleek sistemako sarreren (input) edo helburuak lortzeko dauden baliabideen berri ematen dute: baliabide materialak (dirua eta azpiegiturak) eta giza baliabideak (irakasleak eta ikasleak).
- Prozesuen adierazleek ikastetxeen antolamenduari eta funtzionamenduari, hezkuntza-praktikari eta eskola-giroari buruzko informazioa ematen dute. Horiek kualitatiboagoak dira kuantitatiboak baino, eta zailagoak dira prestatzeko.
- Emaitzen adierazleak, hezkuntza-sistemaren irteerak edo izandako lorpenak, honako hauetan gauzatzen dira: ebaluazioaren emaitzak, eskolatzeko-tasak, oinarrizko gaitasunak eskuratzea, jarrerak eta balioak, lortutako ziurtagiriak eta tituluak, adinaren egokitasuna derrigorrezko etapetan, lan-merkatuan sartzea eta laneko diru-sarrerak.

Txosten diagnostiko honen ondorioetarako, adierazleen lehenespen bat egin dugu; hona hemen:

Testuinguruaren adierazleak	Baliabideen adierazleak	Emaitzen adierazleak
• 0-3 urtekoen eskolatzeta-tasa garbia • 16-18 urtekoen eskolatzeta-tasa garbia • 25-64 urteko biztanleriaren prestakuntza-maila	• Hezkuntzako gastua BPGari dagokionez • Hezkuntzako gastu publikoa • Ikasle bakoitzeko gastua • Ikasle/irakasle ratioa; ikasle / talde ratioa	• Uzte goiztiarreko tasa • Graduazio-tasa • Egokitasun-tasa • Ikasle errepikatzaileak • Gutxieneko maila irakurketan eta matematikan

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030¹⁹ Agendaren 4. helburua honako hau da: guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

Helburu hori lortzeko, honako helmuga nagusi hauek ezarri dira:

- Bikaintasunerantz aurrera egiten duen eta hezkuntzarako sarbidearen berdintasuna bermatzen duen kalitatezko **eskola inklusibo**, bidezko eta berritzailea sustatzea.
- Enpresen beharrei eta pertsonen enplegarritasunari erantzuten dien **bikaintasunezko lanbide-heziketa finkatzea**, laugarren iraultza industrialaren erronkak bereziki kontuan hartuta.
- **Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun** eta bizikidetzeta maila handiagoak lortzea gure ikastetxeetan.
- **Bizikidetzaren eta giza eskubideen** alorreko hezkuntza sustatzea (indarkeriarik eza, dibertsitatea eta elkartasuna).
- **Eleaniztasuna** eskolan bultzatzea.
- **Hezkuntza-azpiegiturak** eraikitzea eta egokitzea.
- **Modernizazio teknologikoa** irakaskuntzan bultzatzea.

Eta helburu horien lorpen-maila neurtzeko, planaren 4. puntuaren barruan honako adierazle hauek ezarri dira:

- Oinarrizko prestakuntzaren hasierako mailetako ikasleen ehunekoa murriztea. (txosten honetako 4.3.5 atala)
- Irakurketan eta matematikan gutxieneko gaitasun-maila lortu duten haur eta nerabeen proportzioa.
- Eskola uztearen tasa % 8tik behera (txosten honetako 4.3.1 atala).
- Uzte goiztiarraren tasa hezkuntzan eta prestakuntzan (% 8tik behera).
 - Bizitza osoko ikaskuntzan parte hartzen ari diren helduak (txosten honetako 4.1.5 atala).
 - Helduen parte-hartzea etengabeko prestakuntzan.
- Gazteen eta helduen parte-hartze tasa irakaskuntza eta prestakuntza akademikoan eta ez-akademikoan, azken 12 hilabeteetan.
- Hirugarren mailako ikasketak bukatu dituzten 30-34 urteko biztanleen %-a (txosten honetako 4.1.2 eta 4.1.3 atalak).
- Goi-mailako ikasketak bukatzea.

¹⁹ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/development-agenda/>

4.1. Testuinguruaren adierazleak

Testuingurua aztertzeko, eskolatzearen tasa garbiarekin lotutako adierazleei eman zaie lehentasuna, betiere adinaren arabera. Zehazki, haur hezkuntzan derrigorrezkoak ez diren hezkuntza-mailetako (0-5 urte) eta derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako (16-18 urte) tasak aztertu dira, gure hezkuntza-sistemaren sarrera-maila eta inklusibitate-maila adierazten duten aldetik.

Bestalde, helduen prestakuntza-maila aztertzen da, gaur egungo eta etorkizuneko gizartearen garapenarekin eta enplegu-mailarekin lotutako adierazlea den aldetik eta bete nahi den 2030 Agendarekin bat datorren aldetik: enpleguaren, jasangarritasunaren eta gizarte-kohesioaren maila handiak dituen gizartea lortzea. Horretarako, bi adierazle hartu dira erreferentziatzat: lan egiteko adinean dauden 25-64 urteko helduen prestakuntza-maila, eta goi-mailako ikasketak dituzten 30-34 urteko helduen ehunekoa.

Euskal hezkuntza-sistemak, beraz, 2030 Agendaren hezkuntza-arloko helmugetako bat betetzen du; zehazki, 4 urtetik derrigorrezko eskolatzeari bitarteko haurren % 95ek haur-hezkuntzan parte hartzea, eta Estatuko eta Europako herrialde gehienetako batez bestekoa gainditzen dugu.

4.1.1. Eskolatzearen tasa garbia 0-5 urtekoen kasuan

Adin txikietan, 3-6 urteko ikasleen erabateko eskolatzeari lortu nahi da, eta, pixkanaka, 3 urtetik beherako eskolatzeari handitzea. Gero eta ebidentzia enpiriko gehiago dago eskolatzeari hezkuntzak, lana eta familia uztartzea errazteaz gain, eskola-arrakasta eta gizarte-mugikortasuna sustatzen dituela, bereziki ingurune behartsuetako ikasleena. Horregatik, hezkuntza-politiken helburuetako bat tasa hori handitzea da.


Euskadik bilakaera positiboa izan du 2012. urtetik aurrera 0-5 urteko haurren eskolatzeari. 2019-2020 ikasturtean, urtebetetik beherako haurren % 17,2 eskolatu zeuden, urtebeteko haurren % 45,2, bi urteko haurren % 92,3, eta 3, 4 eta 5 urteko haurren % 99 baino gehiago, hau da, eskolatzeari erabatekoa dela esan daiteke.

Urteak	2015/2016	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020 ²⁰
0 urte	18,3	17,5	18,9	20,4	17,2
1 urte	45	45,7	45,9	49,4	45,2
2 urte	93,8	93,5	94	93,8	92,3
3 urte	99,2	99,3	99,4	99,4	99,0
4 urte	100	99,6	99,5	99,9	100
5 urte	100	99,8	100	99,8	100

20 2019/2020 ikasturteko datuak Hezkuntza Sailetik atera ditugu; aurreko ikasturteetako datuak, aldiz, EUSTATenak dira.

4.1.1.a. grafikoa

EUSTAT 2015-2019 eta Hezkuntza Saila 2020.

Eskolatzeko-tasaren bilakaera 16 eta 17 urtekoen artean**4.1.2. Eskolatzeko-tasa garbia 16-18 urtekoen kasuan**

16-18 urtekoen kasuan eskolatzeko-tasa garbi handiak izateagatik nabarmentzen da Euskadi, eta horrek eskola-uzte goiztiarraren tasa txikia dela adierazten du.


2018-2019 ikasturtean, Euskadiko eskolatzeko-tasa % 97,9 da 16 urtekoen kasuan, 17 urtekoena % 95,3 eta 18 urtekoena % 90,4.

16-17 urtekoen kasuan, nesken eskolatzeko-tasak mutilenak baino handiagoak dira; horrek esan nahi du, adin horietan, neska gutxiagok uzten dutela hezkuntza-sistema mutilek baino; dena den, Euskadin, 16-17 urtekoen kasuan, aldea txikia da. Alabaina, 18 urtekoen kasuan, Euskadin unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eskolatutako mutilen guztizko ehunekoa neskena baino 4,4 puntu handiagoa da.

2018-2019 ikasturtea	Guztira	Mutilak	Neskak
16 urte	97,9	97,9	98,0
17 urte	95,3	94,0	96,8
18 urte	90,4	92,4	88,0

4.1.2.a. grafikoa

EUSTAT 2011-2019.

Eskolatzeko-tasa garbiaren bilakaera, 16 eta 17

Nabarmentzekoa da 16 urteko ikasleen eskolatzeko-tasa % 98 inguru dela 2012. urteaz geroztik, eta maila horri egonkor eusten zaiola, 17 urtekoen kasuan bezalaxe, beti % 95etik gora.

4.1.3. 25-64 urteko biztanleriaren prestakuntza-tasa


2019. urtetik aurrera, 25-64 urteko biztanleen % 50ek baino gehiagok hirugarren mailako ikasketak dituzte, eta, zehazki, % 53,4k 2020an. Igoera hori 3 puntu ingurukoa izanda eta, Europar Batasunarekin edo Espainiarekin konparatuta,

Euskadiko datuek goranzko joera handiagoa adierazteaz gain, Europako eta Espainiako datu absolutuak Euskadiko batez bestekoaren azpitik daude, 20 eta 14 portzentajezko puntu.

	2016	2017	2018	2019	2020
Europar Batasuna - 27	29,1	29,9	30,7	31,6	32,5
Espainia	35,7	36,4	37,3	38,6	39,7
Euskadi	48,6	49,7	49,6	50,8	53,4

4.1.3.a. grafikoa


EUROSTAT 2016-2020.

25-64 urte eta hirugarren hezkuntzako ikasketak dituzten biztanleen ehunekoaren bilakaera

Euskadin, prestakuntza-jardueraren batean parte hartu duten 25-64 urteko biztanleen ehunekoa Espainiako batezbestekoaren eta Europar Batasuneko (27 herrialde) batezbestekoaren gainetik dago. Gizonen eta emakumeen arteko aldea nabarmentzeko modukoa da. Emakumeek jasotzen dituzte prestakuntza-jarduera gehienak.

4.1.3.b. grafikoa


EUROSTAT 2020.

25-64 urteko biztanleen artean prestakuntza-jardueraren batean parte hartu dutenen ehunekoaren bilakaera

4.1.3.c. grafikoa


EUROSTAT 2020.

25-64 urteko biztanleen artetik prestakuntza-jardueraren batean parte hartu duten gizonezkoen ehunekoaren bilakaera

**4.1.3.d. grafikoa**

EUROSTAT 2020.

25-64 urteko biztanleen artetik prestakuntza-jardueraren batean parte hartu duten emakumezkoen ehunekoaren bilakaera



4.1.4. Hirugarren mailako ikasketak burutu dituzten 30-34 urteko biztanleen ehunekoa

2015. urteaz geroztik, hirugarren mailako edo goi-mailako ikasketak dituzten 30-34 urteko biztanleen ehunekoak joera positibo argia du, gorabeheraren batekin, baina azken 5 urteetan portzentajezko 5,4 puntu igo da, guztira.


	2015	2016	2017	2018	2019	2020
GUZTIRA	54,2	56,9	55,1	57,1	59,0	59,6
Gizonak	47,6	48,7	47,2	51,8	57,8	55,8
Emakumeak	60,8	64,9	62,9	62,2	60,2	63,3

Datuak generoaren arabera bereiziz gero, zera ikusiko dugu: denbora-tarte horretan bertan, emakumeek beti izan dute hirugarren mailako ikasketak dituztenen ehuneko handiagoa, eta portzentajezko alde handiena 2015-2017 aldian izan da; baina 2018-2020 aldian, sexuen arteko aldeak 14 puntutik gorakoak izatetik 8 puntutik beheragoak izatera murriztu dira.

4.1.4.a. grafikoa

EUROSTAT 2015-2020.

30-34 urte eta hirugarren hezkuntzako ikasketak dituzten biztanleen ehunekoaren bilakaera, generoaren arabera



Euskadi Espainiarekin eta EB-27rekin konparatuta, Euskadi berriz ere gorago dago hirugarren mailako ikasketak egin dituzten 30-34 urteko biztanleen ehunekoan, eta 2016an izan zen alderik handiena Europako batez bestekoarekin alderatuta (19,1 puntu).


	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Europar Batasuna 27	37,3	37,8	38,6	39,4	40,3	40,9
Espainia	40,9	40,1	41,2	42,4	44,7	44,8
Euskadi	54,2	56,9	55,1	57,1	59,0	59,6

Europar Batasunari eta Espainiari dagokienez, Euskadik alde positiboa du aztertutako aldiko urte guztietan. Euskadiren ehunekoa Europar Batasuneko herrialdeen ehuneko onenaren parekoa da²¹.

4.1.4.b. grafikoa

EUROSTAT 2015-2020.

30-34 urte eta hirugarren hezkuntzako ikasketak dituzten biztanleen ehunekoaren bilakaera



21 Eurostat <https://ec.europa.eu/eurostat/documents/2995521/8829968/3-25042018-AP-EN.pdf/70700487-07d4-4913-bd4b-2ca8c6be870a>

4.1.5. Helduen parte-hartzea etengabeko prestakuntzan

Gizarte baten trebakuntza-mailaren eta gizarte-ko eta, bereziki, laneko egoera berrietara egokitzeko mailaren funtsezko indize bat herritarren parte-hartzea da etengabeko prestakuntzan. Garapen jasagarriaren helburuetako bat herritar

arduratsuagoak izatea da, beren kabuz erabakitze gai direnak, gizartean elkarrekin bizitzeko eta parte hartzeko gai direnak. Pertsonei prestatuago egoten laguntzea da kontua.

Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherako maila

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Europar Batasuna 27	23,9	23,5	23,1	22,6	22,1	21,3
Espainia	44,7	44,3	43,5	42,8	41,7	40,2
Euskadi	30,3	30,7	29,7	29,1	29,8	26,3

DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Europar Batasuna 27	49,3	49,2	49,1	48,8	48,5	48,6
Espainia	22,7	22,7	22,7	22,6	22,5	23,1
Euskadi	23,0	22,2	22,2	22,8	21,2	22,1

Hirugarren mailako hezkuntza

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Europar Batasuna 27	26,8	27,3	27,9	28,6	29,4	30,1
Espainia	32,7	33,0	33,8	34,6	35,8	36,7
Euskadi	46,8	47,1	48,1	48,1	48,9	51,6

Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren prestakuntzaren maila, Europar Batasuneko eta Espainiako batez bestekoekin alderatuta, nabarmen handiagoa da goiko mailetan, eta etengabe eta modu egonkorrean hazten ari da.

4.2. Baliabideen adierazleak


4.2.1. Irakasle bakoitzeko ikasleen ratioa eta talde bakoitzeko ikasleen ratioa

Irakasle bakoitzeko ikasleen ratioa hau da: ikasle kopuruaren eta irakasle kopuruaren arteko erlazioa, hezkuntza-maila eta hezkuntza-erakunde mota batean. Bestalde, talde bakoitzeko ikasleen ratioa hau da: hezkuntza-sistemako hezkuntza-talde bakoitzean dauden ikasleen batez besteko kopurua.

Euskadiko eskola-sistema osoan, DOB (Dedikazio Osoko Baliokidetza) irakasle bakoitzeko ikasleen ratioa oso egonkorra da; izan ere, aztertutako aldi osoan portzentajezko puntu batetik beherako aldeak daude.

4.2.1.a. grafikoa

EUSTAT.


Irakasle bakoitzeko ikasleen ratioaren (DOB) bilakaera Haur eta Lehen Hezkuntzan, guztira eta ikastetxearen titulartasunaren arabera

Euskadin, irakasle bakoitzeko ikasleen ratioa aldatu egiten da hezkuntza-mailaren eta sarearen arabera, eta ratioak handiagoak dira itunpeko sarean sare publikoan baino, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez. Halaber, ikusten denez, Bigarren Hezkuntzan irakasle bakoitzeko

ikasleen ratioa txikiagoa da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan baino; izan ere, Bigarren Hezkuntzan eskaintzen diren hautazko ikasgaien eta gela-banaketen ondorio da.

Gráfico 4.2.1.b

EUSTAT.

Irakasle bakoitzeko ikasleen ratioaren (DOB) bilakaera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, guztira eta ikastetxearen titulartasunaren arabera

Hezkuntza-mailaren arabera, talde bakoitzeko ikasleen ratioak eutsi egiten die ikastetxeen titulartasunaren araberrako aldeei.

Hurrengo taulan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren 2019-20 ikasturteko ratioak jasotzen dira.

IKASLE / GELA RATIOA	Guztira	Ikastetxe publikoak	Itunpeko ikastetxeak
Haur Hezkuntza	18,24	16,71	21,15
Lehen Hezkuntza	21,36	19,62	23,74
DBH	24,02	21,57	26,52
Batxilergoa	27,51	24,82	30,07
Lanbide Hez., DBH + Batx. duten ikastetxeak	19,63	20,20	21,61
Lanbide Hez., ikastetxe integratuak		18,05	

Euskadiko ikastetxe guztietan, talde bakoitzeko ikasleen ratioak gora egin du hezkuntza-maila handiagoa den heinean, Lanbide Heziketan izan ezik, talde bakoitzean 20 ikasle inguru baitaude. Sare publikoko eta itunpeko sareko hezkuntza-

maila guztietan, batez beste 4,5 ikasle gehiago daude itunpeko sarean sare publikoan baino; Lanbide Heziketa salbuespena da kasu honetan ere, ratioa ia berdina baita.

4.3. Emaizten adierazleak

Atal honetan, Euskadiko ikasleen emaitza akademikoez gain, ekitatearen eta bikaintasunaren ikuspegitik gakoak diren sistemako beste adierazle batzuk aztertuko ditugu, hala

nola uzte goiztiarraren tasa, DBHko graduazio-tasa, egokitasun-tasa edo errepikatzaileen ehunekoa.

4.3.1. Hezkuntzaren uzte goiztiarraren tasa (18-24 urte)

Eskola-uzte goiztiarraren tasa murriztea helburu komuna da Europar Batasuneko kide guztietan –Espainia hor sartzen da–, baita Euskadiren kasuan ere. Horrela, bada, 2020an, Europar Batasunean tasa oso egonkorra da %10aren inguruan; Espainian askoz handiagoa da (%16) eta Euskadin, aldiz, askoz ere txikiagoa (%6,5).

Euskadiko portzentajeazko aldeei erreparatuta, azken urteotan tasa hori murrizteko joera dagoela ikus daiteke.


	2015	2016	2017	2018	2019	2020
EB - 27	11,0	10,6	10,5	10,5	10,2	10,1
Espainia	20,0	19,0	18,3	17,9	17,3	16,0
Euskadi	9,7	7,9	7,0	6,9	6,7	6,5

Hurrengo grafikoak Euskadiko, Espainiako eta EB-27ko uzte-tasa goiztiarraren bilakaeraren konparazioa erakusten du. Bertan ikus daitekeenez, Euskadi da bere tasa gehien jaisten duena urtez-urte, eta azken 4 urteetan gizonen eta emakumeen arteko aldea mantendu egin da egonkor.

4.3.1.a. grafikoa

EUROSTAT 2012-2020.

Uzte goiztiarreko tasaren bilakaeraren konparatiba




Euskadik bilakaera positiboa izan du bi sexuetan, baina aldeari eutsi egin zaio urteak joan, urteak etorri, eta bilakaera oso antzekoa izan da gizonen eta emakumeen artean. Hori horrela, 2015-2020 aldian, uztea 11,9tik 8,5era murriztu da gizonen kasuan, hau da, % 3,4ko murrizketa, eta 7,4tik 4,3ra emakumeen kasuan, hau da, % 3,1eko murrizketa.

4.3.1.b. grafikoa

EUROSTAT 2015-2020.

Uzte goiztiarreko tasaren bilakaera Euskadin, generoaren arabera




4.3.2. DBHko graduazio-tasa

DBHn, graduazio-tasa egonkorra izan da urtez urte. Esate baterako, Euskadin, DBHko graduazio-tasa portzentajezko puntu-erdi bat baino gutxiago aldatu da 2012tik 2018ra bitarte.

4.3.2.a. grafikoa

HLHM²² 2012-2018.

DBHko graduazio-tasaren bilakaera Euskadin



4.3.3. Egokitasun-tasa


Adinari dagokion maila teorikoan matrikulatuta egotea da egokitasuna, eta egokitasun-tasa, berriz, adinari dagokion maila teorikoan matrikulatuta dauden ikasleen eta adin horretako biztanleriaren arteko erlazioa; tasa horren bilakaera positiboa izan da Euskadin.

Bereziki nabarmentzekoa da erdi-mailako Lanbide Heziketako eta goi-mailako Lanbide Heziketako hezkuntzan izandako igoera, eta horrek zera adierazten du, gero eta ikasle gehiagok aukeratzen dutela Lanbide Heziketa beren lehen ikasketa-aukera gisa.

4.3.3.a. grafikoa

EUSTAT 2015-2020.

Egokitasun-tasaren bilakaera Euskadin, mailaren arabera



22 Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioa


4.3.4. Ikasle errepikatzaileak

Lehen Hezkuntzako 6. mailan, ikasle errepikatzaileen ehunekoak beheranzko joera du. Hori horrela, ehuneko hori 2014-2015 ikasturtean % 2,7 izatetik 2019-20 ikasturtean % 1,7 izatera igaro da.

4.3.4.a. grafikoa

EUSTAT 2014-2020.

LH 6. mailako ikasle errepikatzaileen ehunekoaren bilakaera




Bestalde, DBHn maila errepikatzen duten ikasleen ehunekoa oso bestelakoa da mailaren arabera. Errepikapenen ehunekorik handienak DBHko hasierako mailetan gertatzen dira, eta 4. mailan dago errepikapen-ehunekorik txikiena.

Mutilen errepikapen-ehunekoak neskenak baino handiagoak dira maila guztietan.

4.3.4.b. grafikoa

EUSTAT 2019-20.

DBHn maila errepikatu duten ikasleen ehunekoa, mailaren eta generoaren arabera




Itunpeko ikastetxeetan daude errepikapen-ehuneko txikienak, baina aldea % 4,4tik % 3,4ra jaitsi da.

4.3.4.c. grafikoa

EUSTAT 2014-2020.

DBHko ikastetxe publikoetan eta itundueta izaten diren errepikatzeen ehunekoen arteko aldearen bilakaera




DBHko maila guztietan errepikapenen ehunekoak behera egin du 2015-16 ikasturtetik 2019-20 ikasturtera bitarte.

4.3.4.d. grafikoa

EUSTAT 2014-2020.

Ikasle errepikatzailen ehunekoaren bilakaera Euskadin, mailaren arabera



4.3.5. Irakurtzeko, matematikarako eta zientzietarako konpetentzien gutxieneko maila lortu ez duten neska-mutil eta nerabeen proportzioa

2030 Agendak helburutzat finkatu du ikasleen % 15 baino ez egotea beheko mailan, bai irakurtzeko konpetentzian, bai matematikarako konpetentzian. Helburu horren adierazle gisa, 2018ko PISA probetan²³ irakurtzeko, *matematikarako* eta *zientzietarako konpetentzietan* beheko mailetan dauden ikasleen ehunekoa hartu da kontuan.


Irakurtzeko konpetentzia	PISA 2003	PISA 2006	PISA 2009	PISA 2012	PISA 2015	PISA 2018
Euskadi	17	18	15	14	17	23
ELGA	19	20	19	18	20	23

2012an soilik lortu zuen Euskadik ikasleen % 15 baino gutxiago beheko irakurketa-mailetan egoteko helburu europarra. Beheko maila horietan egoteak adierazten du ikasle horiek ez dutela behar adinako gaitasunik gizarte- eta lan-bizitzan integratzeko, beren adineko gainerako pertsonen aukera berekin.

4.3.5.a. grafikoa

PISA 2018.

Irakurketaren beheko mailan dauden ikasleen ehunekoaren konparatiba



Irakurtzeko konpetentziari dagokionez, Euskadi Espainiako batez bestekoa baino hobeto dago, baina Europar Batasuneko batez bestekoaren azpitik; izan ere, % 23,04ko ehunekoa urrun baitago oraindik 2030ean lortu beharreko helburutik.

23 <https://www.oecd.org/pisa/publications/pisa-2018-results.htm>


Matematikarako kompetentzia	PISA 2003	PISA 2006	PISA 2009	PISA 2012	PISA 2015	PISA 2018
Euskadi	16	17	15	16	20	18
ELGA	21	21	22	23	23	24

Matematikarako kompetentzian, 2009an soilik egon zen Euskadi Europako % 15eko helburuaren mugan. 2015ean portzentajezko bost puntu urrundu zen helburutik, eta 2018an apur bat gora egin du, baina ezarritako helburutik urrun dago oraindik.

4.3.5.b. grafikoa

PISA 2018.

Matematikan behe-mailan dauden ikasleen ehunekoaren konparatiba



Hala ere, matematikarako kompetentzian, Euskadi helburu hori lortzetik hurbil dago, % 18,11ko ehunekoarekin.

Zientziarako kompetentzia	PISA 2003	PISA 2006	PISA 2009	PISA 2012	PISA 2015	PISA 2018
Euskadi	16	16	14	12	20	19
ELGA	19	19	18	18	22	22


PISAren ebaluazioko *zientziarako kompetentziaren* emaitzetan, goranzko aldi nahiko egonkorra egon zen 2003tik 2012ra bitarte; hala ere, PISA 2015ean beheko mailetan zeuden ikasleen ehunekoak nabarmen handitu zen, Europako % 15eko helburutik aldentuz.

Gainerako kompetentzietan bezala, behe-mailaren ehunekoak ELGAkoak baino txikixeagoak izan dira beti.

4.3.5.c. grafikoa

PISA 2018.

Zientziarako kompetentzian behe-mailan dauden ikasleen ehunekoaren konparatiba




Azkenik, *zientziarako kompetentziari* dagokionez, Euskadi ez dago % 15aren atalasetik urrun, eta Espainiako batez bestekoa eta Europar Batasuneko batez bestekoa baino emaitza hobeak lortu ditu.

Beheko mailetan dauden ikasleen ehunekoa lortzeko aztertzen diren emaitzetan eragina duten faktoreetako bat ISEK indize sozioekonomikoa da.

4.3.5.d. grafikoa

PISA 2018.

Ikastetxearen batez besteko ISEK mailaren eta hiru konpetentzietako batez bestekoaren emaitzen arteko erlazioa




PISAREN ebaluazioan ikasleek ateratzen duten emaitzaren eta maila sozioekonomikoaren arteko erlazioak erakusten du ez dela egoera erabakigarria, baizik eta ISEK bera izanik, bi ikastetxek emaitza oso desberdinak izan ditzaketela, hau da, ikastetxeetan hezkuntza-arloan esku hartzeko moduak ikaskuntzaren

emaitzetan eragina duela. Hori horrela, aurreko grafikoko adibide nabarmenean, antzeko ISEK maila duten 2 zentzoren artean alde handia dagoela ikus daiteke.



5. Euskal hezkuntza-sistemako eremu estrategikoen azterketa



Euskal hezkuntza-sistemaren diagnostiko zehatzagoa izateko, jarraian, eremu estrategikoetako lau sakonago aztertuko ditugu:

- ekitatea eta bikaintasuna euskal hezkuntza-sisteman;
- aniztasunari erantzutea eskola inklusiboan: Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen eta atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzea;
- eleaniztasuna gizarte elebidun baten esparruan;
- ikastetxeen digitalizazioa.

5.1. Ekitatea eta bikaintasuna euskal hezkuntza-sisteman

Hezkuntza-sistema bat ekitatibotzat hartzen da biztanlerian dauden desparekotasun sozioekonomikoak arintzeko gai denean; horretarako, ikasleei kalitatezko hezkuntza izateko aukera-berdintasuna eskaintzen die eta ikasleen errendimendu akademikoa beren ahalegin eta gaitasunaren arabera dela bermatzen du, beren jatorrizko herrialdea, sexua eta testuinguru sozial, ekonomiko eta kulturala edozein direla ere.

Bestalde, bikaintasuna pertsonen erabateko garapena lortzea dela uler daiteke, hau da, ikasle bakoitzari bere gaitasunak ahalbidetzen dion bezain urrun iristeko aukera ematea, gai den zabaltasun eta sakontasunez.

Ekitatearekin lotutako zenbait azterketatan *Matematikarako konpetentzia* soilik aztertzen da, ikasleen hizkuntza-mailak konpetentzia horretan eragiten baitu gutxien.

5.1.1. Ekitatea eta bikaintasuna PISAn

PISaren nazioarteko ebaluazioetan, ekitatea behin eta berriz ateratzen da gure sistemaren ezaugarritzat. Euskadin, ikasleen ehuneko handiak daude erdiko errendimendu-mailetan eta, gainera, ELGAko batez bestekoa baino ehuneko txikiagoa da beheko errendimendu-mailetan, PISAn ebaluatutako konpetentzia guztietan.


Aldi berean, ikaskuntzaren emaitzak aztertu ostean, Euskadiko hezkuntza-sistemaren erronka nagusietako bat bikaintasun-maila hobetzea dela ondorioztatzen da. Izan ere, ebaluatutako konpetentzietan errendimendu-mailarik handienak lortzen dituzten Euskadiko ikasleen ehunekoa, oro har, ELGAko batez bestekoa baino txikiagoa da.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, PISA 2018ko *Matematikarako konpetentzian*, Euskadik ikasleen % 72,5 ditu errendimenduaren erdiko mailetan (2., 3. mailak) eta goiko mailetan (4. maila), ELGAko herrialdeetako batez bestekoa gaindituta (% 65,1). Hala ere, bikaintasunari dagokionez, ELGAko batez bestekoaren azpitik dago: ikasleen % 9,3 5. eta 6. mailak lortu ditu gaitasun horretan, eta ELGAko herrialdeen batez bestekoa % 10,9 da. Bestalde, Euskadiko emaitza ELGAkoa baino hobexeagoa da beheko mailan (% 18,1 vs. % 24).

5.1.1.a. grafikoa


PISA 2003-2018.

Ikasleen ehunekoaren bilakaera, *Matematikarako konpetentzian* duten errendimendu-mailaren arabera. Euskadi-ELGA



5.1.1.b. grafikoa


PISA 2003-2018.

Ikasleen ehunekoaren bilakaera, Irakurtzeko konpetentzian duten errendimendu-mailaren arabera. Euskadi-ELGA

Irakurtzeko konpetentziaren eta Zientziarako konpetentziaren egoera, ekitateari dagokionez (2., 3. eta 4. mailak), Matematikarako konpetentziaren antzekoa da, baina bikaintasun-maila dezente apalagoa da.

5.1.1.c. grafikoa

PISA 2003-2018.

Ikasleen ehunekoaren bilakaera, Zientziarako konpetentzian duten errendimendu-mailaren arabera. Euskadi-ELGA


Euskadi ekitate-maila handieneko herrialdeen artean dago (grafikoaren eskuinaldean ageri diren herrialdeen artean dago), baina, adibidez, Danimarkak, Finlandiak eta Estoniak puntuazio hobea eta ekitate handiagoa dute, eta Irlandak eta Kantabriak antzeko puntuazioa eta ekitate handiagoa.

Bikaintasun-mailari dagokionez, Estoniak, Finlandiak eta Danimarkak Euskadik baino bikaintasun-maila eta ekitate handiagoa dute; ekitate-maila berdintsuan, berriz, Japoniak eta Nafarroak bikaintasun handiagoa dute.

5.1.1.d. grafikoa

PISA 2018.

ELGAko herrialdeen eta Autonomia Erkidegoen banaketa, Matematikarako kompetentziaren bikaintasun-mailan (5. eta 6. mailak) dauden ikasleen ehunekoaren eta emaitzan sakabanatze-mailaren arabera



Hurrengo grafikoan maila sozioekonomiko apaletako ikasleek Matematikan lortutako emaitzen eta herrialdeko puntuazio orokorraren arteko aldea aztertzen da.


Aldakortasun handia ikusten da herrialde batzuetatik besteetara, Turkiako 26 puntuetatik edo Estoniako 28 puntuetatik Eslovakiako Errepublikako 60 puntuetara. Estoniaren

datua bereziki azpimarragarria da, ekitate handia lortzen duelako eta, gainera, emaitza bikaina (523 puntu). Euskadin, 38 puntuko aldea dago ikasle guztien eta ISEK maila baxua duten ikasleen artean, eta 499 puntu lortu ditu *Matematikarako kompetentzian*; beraz, aztertutako ELGAko herrialdeen artean tarteko egoeran dago.

5.1.1.e grafikoa

PISA 2018.

Ikasle guztien eta ISEK maila baxua duten ikasleen arteko aldea eta puntuazioa
Matematikarako konpetentzian




Hurrengo grafikoetan, Irakurketan, Matematikan eta Zientzietan PISAko 5. eta 6. errendimendu-mailetan (bikaintasun-mailak) dauden ikasleen –Euskadikoak eta ELGAkoak– ehunekoa izan duen bilakaera ikusiko dugu.

5.1.1.f. grafikoa

PISA 2003-PISA 2018.

Euskadiko eta ELGAko ikasleen bilakaera Irakurketako, Matematikako eta Zientzietako errendimenduaren 5. eta 6. mailetan (bikaintasun-mailak)




Bikaintasun-mailetan dauden ikasleen ehunekoa ELGAkoaren azpitik dago Euskadin, eta hori PISAren edizio guztietan eta hiru konpetentzietan gertatzen da, PISA 2009an Matematikan izan ezik, edizio horretan ehunekoa berdina izan baitzen.

5.1.1.g grafikoa

PISA 2003-PISA 2018.


Euskadiko eta ELGAko ikasleen bilakaera Irakurketako errendimenduaren 5. eta 6. mailetan (bikaintasun-mailak)



5.1.1.i grafikoa

PISA 2003-PISA 2018.


Euskadiko eta ELGAko ikasleen bilakaera Matematikako errendimenduaren 5. eta 6. mailetan (bikaintasun-mailak)



5.1.1.k grafikoa

PISA 2003-PISA 2018.


Euskadiko eta ELGAko ikasleen bilakaera Zientzietako errendimenduaren 5. eta 6. mailetan (bikaintasun-mailak)



5.1.1.h grafikoa

PISA 2003-PISA 2018.

Euskadiko eta ELGAko ikasleen portzentuen aldean bilakaera Irakurketarako errendimenduaren 5. eta 6. mailetan (bikaintasun-mailak)



5.1.1.j grafikoa

PISA 2003-PISA 2018.


Euskadiko eta ELGAko ikasleen portzentuen aldean bilakaera errendimenduaren 5. eta 6. mailetan (bikaintasun-mailak) Matematikan



5.1.1.l grafikoa

PISA 2003-PISA 2018.

Euskadiko eta ELGAko ikasleen portzentuen aldean bilakaera errendimenduaren 5. eta 6. mailetan (bikaintasun-mailak) Zientzietan



5. eta 6. errendimendu-mailei dagokienez, Euskadiko eta ELGAko ikasleen ehunekoen arteko aldea handitzen joan da Irakurketan (PISA 2003an aldea portzentajezko -1,5 puntu izan zen, eta PISA 2018an, berriz, -4,1 puntu). Alabaina, Matematikan eta Zientzietan ehunekoen

arteko aldea murriztu egin da: 2003an, aldea portzentajezko -5 puntu izan zen, eta 2018an -1,6; eta Zientzietan, 2003an -4,7 puntu izan zen, eta 2018an -2,9).

5.1.2. Ekitatea ebaluazio diagnostikoetan

a. Ebaluazio diagnostikoetan muturreko puntuazioak (P10 eta P90) lortu dituzten ikasleen emaitzen arteko aldeen bilakaera

Hurrengo grafikoetan, errendimenduko 90 eta 10 pertzentilen puntuazioek izan duten bilakaera ikusiko dugu, baita ebaluatutako bi etapetan bien artean izandako aldea ere. Era berean, muturreko bi taldeen arteko emaitzen ratioa ere jasotzen da; ratio horren bitartez, honako hau jakin dezakegu: banaketaren goiko % 10ean kokatutako ikasleen emaitzak zenbat aldiz gainditu duen banaketaren beheko % 10ean dauden ikasleek lortutako emaitza. Ratioaren balioa zenbat eta handiagoa izan, hezkuntza-desparekotasuna orduan eta handiagoa dela adierazten du horrek eta, horren ondorioz, ekitatea orduan eta txikiagoa izango da.

Hurrengo grafikoan arabera, Lehen Hezkuntzako 4. mailan *Matematikarako konpetentziaren* zazpi edizioen batez besteko aldea 130 puntu inguruan dago, eta DBHko 2. mailan, berriz, 132 puntu inguruan.


Lehen Hezkuntzako 4. mailan gorabehera txikiak izan dira denboran zehar, baina bi taldeen arteko aldeak egonkor egon dira. Hala ere, DBHko 2. mailan aldea murriztu egin zen ED15ean (126 puntu) eta alde handiena ED19an izan zen (138 puntu).

Lehen Hezkuntzako 4. maila

5.1.2.a grafikoa

LH 4º. EDO9-ED19.


Matematikarako konpetentzia. 90 pertzentilaren eta 10 pertzentilaren arteko puntuazio-aldeen bilakaera



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

5.1.2.b. grafikoa


DBH 2. ED09-ED19.

Matematikarako gaitasuna. 90 pertzentilaren eta 10 pertzentilaren arteko puntuazio-aldeen bilakaera

Banaketaren bi muturren arteko emaitzen ratio handiena Ebaluazio Diagnostikoaren azkeneko edizioan (ED19) atera da. Bi etapetan gertatu da hori (1,74 Lehen Hezkuntzako 4. mailan, eta 1,76 DBHko 2. mailan).

5.1.2.c. grafikoa

LH 4 eta DBH 2. ED09-ED19.

Matematikarako gaitasuna. Emaitzen ratioaren bilakaera muturreko taldeen artean (P10 eta P90)

Beraz, P10en eta P90en arteko emaitzen aldeak handitu egin dira, batik bat, DBHko 2. mailan.

b. Ikasleek errendimendu-mailetan duten ehunekoaren bilakaera *Matematikarako konpetentzian*


Hurrengo grafikoetan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 52 inguru eta DBHko 2. mailako ikasleen % 60 inguru errendimenduaren maila ertainean kokatzen dira *Matematikarako konpetentzian*.

Lehen Hezkuntzako 4. maila

5.1.2.d. grafikoa

LH 4. ED09-ED19.

Ikasleen ehunekoaren bilakaera *Matematikarako konpetentziako* errendimendu-mailaren arabera




Euskal hezkuntza-sisteman, ikasleen ehuneko handienak errendimenduaren maila ertainean pilatzen dira *Matematikarako konpetentzian*, bi hezkuntza-etapetan.

Ebaluatutako konpetentzia guztietan, ikasleen % 50 baino gehiago errendimenduaren maila ertainean kokatzen dira, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* izan ezik, eta hori Lehen Hezkuntzako 4. mailan ez ezik, DBHko 2. mailan ere gertatzen da. Konpetentzia horretan, errendimenduaren maila ertainean dauden ikasleak ez dira % 45era iristen Ebaluazio Diagnostikoaren edizio bakar batean ere. Gainera, ED19an, errendimenduaren maila ertainean dauden ikasleen ehunekoa orain arte egin diren zazpi ebaluazioetatik txikiena da (Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 34,7 eta DBHko 2. mailako ikasleen % 30,9).

Bigarren Hezkuntzako 2. maila

5.1.2.e. grafikoa

DBH2. EDO9-ED19.

Ikasleen ehunekoaren bilakaera *Matematikarako konpetentziako errendimendu-mailaren arabera*

c. Ikasleen emaitzen arteko aldeen bilakaera Matematikarako konpetentzian, ISEK mailaren arabera

Hezkuntza-sistema baten ekitatearen adierazleetako bat sistemaren ahalmen jakin batekin lotuta dago; hain zuzen ere, ikasleen errendimendu akademikoa beren ahalegin eta gaitasunaren arabera izango dela bermatzeko ahalmenarekin, ikasleen testuinguru sozial, ekonomiko eta kulturala edozein izanik ere.


Hurrengo grafikoetan, emaitzen arteko aldeen bilakaera ikus daiteke, ikastetxearen ISEK maila baxuaren eta altuaren arabera, eta, Euskadiko batez bestekoari dagokionez, ikastetxearen ISEK maila baxuaren arabera.

Lehen Hezkuntzako 4. maila

5.1.2.f. grafikoa

LH 4. EDO9-ED19.


Matematikarako konpetentzia. Emaitzen bilakaera ikastetxearen ISEK maila apalaren eta goi-mailaren arabera, eta haien arteko aldeak



5.1.2.g. grafikoa

LH 4ED09-ED19.

Matematikarako konpetentzia. Emaitzen bilakaera ikastetxearen ISEK maila apalaren eta Euskadiko batezbestekoaren arabera, eta haien arteko aldeak




Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

5.1.2.h. grafikoa


DBH 2. ED09-ED19.

Matematikarako konpetentzia. Emaitzen bilakaera ikastetxearen ISEK maila apalaren eta goi-mailaren arabera, eta haien arteko aldeak

**5.1.2.i. grafikoa**

DBH 2. ED09-ED19.

Matematikarako konpetentzia. Emaitzen bilakaera ikastetxearen ISEK maila apalaren eta Euskadiko batezbestekoaren arabera, eta haien arteko aldeak



Lehen Hezkuntzako 4. mailan, *Matematikarako konpetentzian* lortutako puntuazioen artean ia 33 puntuko batez besteko aldea dago, ikastetxe baten ISEK maila baxua edo handia den arabera. DBHko 2. mailaren kasuan, alde hori 40 puntu baino handixeagoa da.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, alde handiena ED17an izan zen (39,6 puntu), eta DBHko 2. mailan, ED19an (50,2 puntu).


Bestalde, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, ISEK maila baxua duten ikastetxeetako ikasleek duten puntuazioaren batez besteko aldea Euskadiko batez bestekotik 19,7 puntu beherago dago Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan. DBHko 2. mailako batez besteko alde hori 24 puntu ingurukoa da.

Lehen Hezkuntzako 4. maila

5.1.2.j. grafikoa

LH 4. ED19.

Matematikarako konpetentziako puntuazioaren eta ISEK beheko kuartileko ikastetxeetako ikasleen ehunekoaren arteko erlazioa




Ebaluatutako biztanleria 4 kuartiletan banatzen badugu maila sozioekonomikoaren arabera, eta ikastetxe bakoitza beheko kuartilean dauden ikasleen ehunekoaren arabera hartzen badugu kontuan, *Matematikarako konpetentzian* lortutako emaitzekin erlazionatuz gero, honako joera hau ikusten da: maila sozioekonomiko apalenean dauden ikasleen ehuneko handiena duten ikastetxeek emaitza apalagoak lortzen dituzte *Matematikarako konpetentzian*. Era berean, ikus daiteke ikastetxeen banaketa ez dela uniformea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

5.1.2.k. grafikoa

DBH 2. ED19.

Matematikarako konpetentziako puntuazioaren eta ISEK beheko kuartileko ikastetxeetako ikasleen ehunekoaren arteko erlazioa



DBHko 2. mailan, Lehen Hezkuntzan gertatzen den joera berdina egiaztatu daiteke, baina areagotuta, puntuak erregresio-lerroaren inguruan metatzen dira eta.

d. Ikasleen emaitzen arteko aldeen bilakaera konpetentzietan, sexuaren arabera

“II Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)²⁴ planean, Euskadik genero-ikuspegia kontuan hartuta heziko duen eta nesken eta mutilen arteko berdintasuna bermatuko duen eskolaren eredu bultzatzen du.

Jarraian, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako nesken eta mutilen emaitzen arteko aldeen bilakaera aztertuko dugu, konpetentzia guztietan, 2009az geroztik egindako ebaluazio diagnostikoen emaitzak oinarri hartuta.

Hezkuntza-sistema baten ekitatearen beste adierazleetako bat sistemaren ahalmen jakin batekin lotuta dago; hain zuzen ere, ikasleen errendimendu akademikoa beren ahalegin eta konpetentziaren arabera izango dela bermatzeko ahalmenarekin, ikasleen sexua edozein izanik ere.


²⁴ II Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023) https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/40_plandep_xileg/eu_def/Hezk%20sisteman%20hezikidetza%20Plana.pdf

Lehen Hezkuntzako 4. maila

5.1.2.I. grafikoa

LH 4. ED09-ED19.

Ebaluatutako gaitasunen emaitzetan mutilen eta nesken arteko aldeek izan duten bilakaera




Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

5.1.2.m. grafikoa

DBH 2. ED09-ED19.

Ebaluatutako gaitasunen emaitzetan mutilen eta nesken arteko aldeek izan duten bilakaera



Neskek mutilek baino emaitza hobeak lortzen dituzte *Euskarazko eta Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan*, *Zientziarako konpetentzian* eta *Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzian*. LHko 4. mailan ez ezik, DBHko 2. mailan ere gertatzen da hori.

Neskak mutilei gailentzen zaizkie *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, DBHko 2. mailan egindako Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan. Dena den, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, mutilak nesken gaitetik geratu ziren ED13an, ED15ean eta ED17an. ED19an, 1,3 puntuko aldea aterata da nesken alde, baina ez da estatistikoki esanguratsua.

Bestalde, mutilek neskek baino emaitza hobeak lortu dituzte *Matematikarako konpetentzian*, bai LHko 4. mailan, bai DBHko 2. mailan, eta aztertutako ebaluazio diagnostikoaren edizioetan. Salbuespen bakarra ED17an izan zen, DBHko 2. mailako ikasleen kasuan; edizio horretan, mutilen aldeko 0,9 puntuko aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, nesken eta mutilen artean alde handienak *Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzian* (ED13) eta *euskarazko eta ingelesezko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* daude (ED19) (14, 12,9 eta 12,1 puntuko aldea nesken alde, hurrenez hurren).

ED19an, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, sexuaren arabera aldea 19,6 puntukoa da, edizio guztietako handiena. ED19an, etapa horretan, sexuaren arabera aldea oso handia da *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ere (16,4 puntu nesken alde).

Hala eta guztiz ere, DBHko 2. mailako mutilen eta nesken emaitzen arteko alderik handienak *Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzian* ateratzen dira, ED13an eta ED19an.

e. **Ikasleen emaitzen arteko aldeen bilakaera konpetentzietan, jatorriaren arabera: bertako ikasleak eta atzeritar jatorriko ikasleak**

Hezkuntza-sistema baten beste adierazle bat sistemaren ahalmen jakin batekin lotuta dago; hain zuzen ere, ikasleen errendimendu akademikoa beren ahalegin eta konpetentziaren arabera izango dela bermatzeko ahalmenarekin, ikasleen jatorria edozein izanik ere.

Hurrengo lau grafikoetan, atzeritar jatorriko ikasleek eta bertako ikasleek konpetentzia guztietan eta bi etapetan lortutako emaitzen bilakaera ikusiko dugu.


Grafikoen arabera, bertako ikasleek atzeritar jatorrikoek baino emaitza hobeak lortzen dituzte. Hori gertatzen da konpetentzia guztietan eta orain arte egindako ebaluazio diagnostikoen edizio guztietan, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bai DBHko 2. mailan.

Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzien emaitzak

5.1.2.n. grafikoa

LH 4. ED09-ED19.


Bertako ikasleen eta atzerriar jatorriko ikasleen emaitzen bilakaera *Hizkuntza-komunikazioan euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez*



5.1.2.ñ. grafikoa

DBH 2. ED09-ED19.

Bertako ikasleen eta atzerriar jatorriko ikasleen emaitzen bilakaera *Hizkuntza-komunikazioan euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez*



Atzerriar jatorriko ikasleen emaitzek okerrera egiten dute, oro har, eskolatzear aurrera egin ahala: DBHko 2. mailan emaitzak apalagoak dira Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino. ED19an hori ez da bete hiru konpetentziaren kasuan (*Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian gaztelaniaz eta ingelesez eta Zientziarako konpetentzian*).


Matematikarako konpetentzian, Zientziarako konpetentzian eta Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzian izandako emaitzen bilakaera

5.1.2.o. grafikoa

LH 4. ED09-ED19.

Bertako ikasleen eta atzerritar jatorriko ikasleen emaitzen bilakaera

Matematikarako, zientziarako eta ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzian




5.1.2.p. grafikoa

DBH 2. ED09-ED19.

Bertako ikasleen eta atzerritar jatorriko ikasleen emaitzen bilakaera

Matematikarako, zientziarako eta ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzietan




Hurrengo bi grafikoetan, atzerritar jatorriko ikasleek eta bertako ikasleek konpetentzia guztietan eta bi etapetan lortutako emaitzen arteko aldea aztertuko dugu.

Bertako ikasleen eta atzerritar jatorriko ikasleen emaitzen arteko aldeen bilakaera *Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan*

Gráfico 5.1.2.q

LH 4 eta DBH 2. ED09-ED19.

Bertako ikasleen eta atzerritar jatorriko ikasleen emaitzen arteko aldeen bilakaera
Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan




Bertako ikasleen eta atzerritar jatorriko ikasleen emaitzen arteko aldeen bilakaera *Matematikarako konpetentzian, Zientziarako konpetentzian eta Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzian*

5.1.2.r. grafikoa

LH 4 eta DBH 2. ED09-ED19.

Bertako ikasleen eta atzerritar jatorriko ikasleen emaitzen arteko aldearen bilakaera
Matematikarako, zientziarako eta ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzietan



Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bertako ikasleen eta atzerritar jatorriko ikasleen batez besteko puntuazioen aldeak murriztu egin dira ED19an, gaitasun guztietan, ED09rekin alderatuta. *Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia* 2013. urtean eta 2019. urtean baino ez da ebaluatu, eta aldea 3,3 puntu handitu da ED19an, ED13rekin alderatuta.

Bestalde, ED19an handitu egin dira bi ikasle multzo horien puntuazioen arteko aldeak *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioari* dagokionez (+1,9 puntu eta +3,9 puntu, hurrenez hurren).

Bi multzoen emaitzen arteko aldeak handiagoak dira DBHko 2. mailan Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino, eta hori konpetentzia guztietan gertatzen da, ED09ko eta ED19ko *Zientziarako konpetentzia* izan ezik.

DBHko 2. mailan, bertako ikasleen eta atzerritar jatorriko ikasleen emaitzen arteko aldeak murrizten ari dira konpetentzia guztietan, eta

ED19an, berriz, alde horiek orain arte egindako Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietako txikienak izan dira.

Bertako ikasleen emaitzak Euskadiko batez bestekoaren inguruan daude konpetentzia guztietan eta Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan. Aitzitik, atzerritar jatorriko ikasleen emaitzak Euskadiko batez bestekoaren azpitik daude konpetentzia guztietan, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan bai DBHko 2. mailan, eta hori orain arte egindako Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan gertatu da.

Atzerritar jatorriko ikasleen emaitzen eta Euskadiko batez bestekoaren arteko aldeak murriztu egin dira 2009tik. Salbuespen bakarra *Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia* izan da, Lehen Hezkuntzako 4. mailan; izan ere, atzerritar jatorriko ikasleen eta Euskadiko batez bestekoaren arteko aldeak gora egin baitu ED13rekin alderatuta (1,6 puntu ED19an).


f. Ikasleen banaketa ISEK mailetan, jatorriaren arabera

Atzerritar jatorriko ikasleen emaitzetan eragina duen aldagai bat ISEK maila da. Horregatik, hurrengo bi grafikoetan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako bertako ikasleen eta ikasle etorkinen ISEK mailari buruz arituko gara.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, atzerritar jatorriko hamar ikasletik 9 inguru ISEK beheko eta erdiko mailan daude. Ehuneko horri egonkor eusten zaio, gutxi gorabehera, Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan.

Bestalde, etapa honetan, atzerritar jatorriko hamar ikasletik zazpi inguru ISEK behe-mailan daude, eta ehuneko horri egonkor eusten zaio Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan. ISEK maila horretako ikasleen ehunekorik handiena ED17an gertatu zen, atzerritar jatorriko ikasleen ia % 74 ISEK behe-mailan zeuden eta.



5.1.2.s. grafikoa**LH 4.** ED13-ED19.**ISEK maila bakoitzean dauden bertako eta atzerritar jatorriko ikasleen ehunekoaren bilakaera**

ED19an, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, atzerritar jatorriko ikasleen % 10 inguru ISEK erdiko edo goiko mailan daude, bertako ikasleen kasuan baino 5,5 aldiz gutxiago (% 54). ISEK erdi-go mailan edo goi-mailan dauden atzerritar jatorriko ikasleen ehunekoak behera egin du ED13tik.

Bestalde, ED19an eta Lehen Hezkuntzako 4. mailan, atzerritar jatorriko ikasleen % 2,6 baino ez daude ISEK goi-mailan, bertako ikasleen kasuan baino 10,5 aldiz gutxiago (% 27,2). ISEK goi-mailan dauden atzerritar jatorriko ikasleen ehunekoak behera egin du ED15etik.


Lehen Hezkuntzako 4. mailan bezalaxe, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan atzerritar jatorriko hamar ikasletik bederatzi ikasle inguru ISEK beheko eta erdiko mailan

daude. Ehuneko horri egonkor eusten zaio, gutxi gorabehera, Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan. ISEK maila horretako ikasleen ehunekorik txikiena ED13an gertatu zen, atzerritar jatorriko ikasleen % 82,7 ISEK behe-erdi mailan edo behe-mailan zeuden eta.

Bestalde, atzerritar jatorriko hamar ikasletik zazpi inguru ISEK behe-mailan daude, eta ehuneko horri egonkor eusten zaio Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan. ISEK maila horretako ikasleen ehunekorik txikiena ED13an gertatu zen, atzerritar jatorriko ikasleen ia % 62,5 ISEK behe-mailan zeuden eta.

5.1.2.t. grafikoa

DBH 2. ED13-ED19.

ISEK maila bakoitzean dauden bertako eta atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoaren bilakaera

ED19an, DBHko 2. mailako atzeritar jatorriko ikasleen ia % 11 ISEK erdiko edo goiko mailan daude, bertako ikasleen kasuan baino ia 5 aldiz gutxiago (% 53,8). ISEK erdi-goi mailan edo goi-mailan dauden atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoak behera egin du ED13rekin alderatuta. Hala ere, Ebaluazio Diagnostikoaren azken edizioan, ISEK erdi-goi mailan edo goi-mailan dauden ikasle horien ehunekoa puntu 1 baino gehixeago igo da aurreko edizioarekin alderatuta. Eta, azken edizio honetan, DBHko 2. mailan, atzeritar jatorriko ikasleen % 2,7 baino

ez daude ISEK goi-mailan, bertako ikasleen kasuan baino 10 aldiz gutxiago (% 27,2). ISEK goi-mailan dauden atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoak behera egin du ED13tik.

Ikus daitekeenez, ISEK erdi-behe mailan eta behe-mailan, eta ISEK erdi-goi mailan eta goi-mailan dauden ikasleen ehunekoa antzekoa da bi etapetan.

g. Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI)

Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI) – lehen Hezkuntza Beharren Indizea (HBI) zen-, zailtasun handieneko baldintzetan lan egiten duten ikastetxeak zeintzuk diren jakiteko eratu da, haien beharrak zehatzago definitu eta, hartara, eskaintzen zaizkien baliabideak doitu ahal izateko. HKIren azken helburua gure hezkuntza-sistemaren ekitatea hobetzea da.

Indizea zazpi elementu osagarritan oinarrituta sortu da; horietako zenbaitetan hezkuntza-etapa osoa hartzen da kontuan (Lehen Hezkuntza edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), eta beste zenbaitetan, kanpo-ebaluazioetatik ateratako datuak dira abiapuntu, zehazki ISEI-IVEIk ikastetxe guztietan egindako ebaluazio diagnostikoetatik.

Hona hemen indize honetan kontuan izaten diren aldagaiak:

- Ikastetxeen barne-ebaluazioan ikasleek izan duten emaitza. Lehen Hezkuntzan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasturte amaieran oinarritzko bost kompetentziak gainditzen ez dituzten ikasleen ehunekoaren batez bestekoa da.
- Ebaluazio Diagnostikoan ikasleek izan duten emaitza. Ebaluatutako kompetentzia bakoitzean hasierako mailan geratzen diren ikasleen ehunekoaren batez bestekoa da. Kompetentzia bakoitzean, ikasleak hiru mailatan banatzen dira, eta hasierako maila da apalena; horrek zera esan nahi du, ikasleak ahalegin osagarria egin behar duela etapa amaitzean etapako oinarritzko kompetentziak garatzeko.
- Ikastetxearen indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEK), azken Ebaluazio Diagnostikoa egin duten ikasleen arabera kalkulatuta. Ikastetxearen maila sozioekonomikoaren aldagai orokorra da. Aldagai horretan, bi muga uztartzen dira:
 - alde batetik, ikastetxeko maila bakar bati erreparatzen dio (Lehen Hezkuntzako 4. mailari edo DBHko 2. mailari), nahiz eta, ikasturteak joan, ikasturteak etorri, datua egonkorra dela egiaztatu den; eta, bestetik, bi urtean behin egiten dela neurketa eta, beraz, ikastetxe batek bi ikasturtean eusten dio balio berari.
- Bekadun ikasleak ikastetxean. Aurreko ikasturtean material-beka bat eskuratu duten ikastetxeko eta etapako ikasleen ehunekoa hartzen da kontuan. Mota horretako beka soilik hartzen dira kontuan, ikastetxe guztietan irizpide bera erabiltzen delako beka horiek emateko garaian, eta ez da horrelakorik gertatzen jangelako bekekin –ikasle guztietan ez dago horrelako bekarik–, ezta garraio-bekarekin ere, etxetik ikastetxerako distantziaren eta garraio-zerbitzua izatearen baldintzapean baitago.
- Hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleak. Laguntza motaren bat behar duten ikasleen ehunekoa da; laguntza horrek esplizituki zehaztua eta Hezkuntza Sailaren datu-basean zenbatua egon behar du.
- Ikasle etorkinak ikastetxean. Ikastetxe osoan eta etapa osoan dauden ikasle etorkinen ehunekoa da.
- Adinarekin bat ez datorren mailan dauden ikasleak. Ikastetxean/etapan dagokien adinarekin bat ez datorren mailan dauden ikasleen ehunekoa da, hau da, adinaren arabera dagokiena baino beheragoko maila batean eskolatuta dauden ikasleena.
- Ikasleek ikastetxean jarraitzea. Etapa osoan ikastetxe berean egon diren ikasleen ehunekoa da. Ikastetxe batean jarraitutasun txikia izateak, hau da, ikasleen artean aldaketa asko izatea irakasleen hezkuntza-zeregina zailtzen duela ulertzen da.

Esan bezala, aldagai horietako batzuk Ebaluazio Diagnostikoen aplikazioetatik datoz, eta horiek dira, halaber, eredu estatistikoetan txertatu ditugunak –bi mailetako testuinguru-aldagai gisa–; eredu horiei esker, eraginkortasun handiko eta txikiko ikastetxeak zeintzuk diren hautemateko eta hautatzeko aukera izan dugu. ISEK maila, ikasle migratzaileak eta adinarekin bat ez datorren mailan dauden ikasleak dira aldagai horiek.

Datu horietan oinarrituta, aldagai guztiak neurri berera doitzen dira (aldagai bakoitza 25 zentileko beste bat bihurtzen da eta, horrela, aldagai guztiak zero puntutik 25 puntura bitarte doaz; konplexutasun-mailarik txikiena zero da,

eta handiena 25). Ikastetxe bakoitzaren azken balioa aldagai horien konbinazio haztatua da, ikastetxearen emaitzekin duten erlazioaren arabera. Horrela sortutako Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea 0-25 puntu bitarteko aldagaia da.

Sailak indize hori erabiltzea lagungarri izaten da ikastetxeen egoera interpretatzeko, baita ikastetxeei ematen zaizkien baliabideak doitzeko ere.


2020. urterako indize hori egiteko erabili den informazioak honako taula hauetan bereizten ditu konplexutasun handieneko mailak.

Lehen Hezkuntza	ITUN.	PUBL.	IKASTETXEKO BATEZ BESTEKO IKASLEAK	IKASLEAK, GUZTIRA	HAMAICA ESKU IKASTETXEA
HKI maila > 20	8	76	158,6	13322	31
HKI maila >15 eta <20	25	97	230,6	28134	9
Guztira (ikastetxe guztiak)	210	331	240,6	130153	40

Hauxe da Lehen Hezkuntzako ikastetxeen tipologia: publikoak dira, nahiko txikiak, eta askotan Hamaika Esku programakoak izan dira, hezkuntza-konplexutasuna dela eta.

Lehen Hezkuntza	ISEK ED19	ERREPIK. EHUNEKOAK	BEKA EHUNEKOAK	PORCENTAJE AL. DE ORIGEN EXTRANJERO	MIGRATZAILEEN EHUNEKOAK	IKASTETXEKO JARRAITUTASUNAREN EHUNEKOAK
HKI maila > 20	-1,1	24,9	52,1	46,4	17,4	60,3
HKI maila >15 eta <20	-0,4	13,2	38,6	22,7	11,7	76,8
Guztira (ikastetxe guztiak)	-0,2	10,1	29,8	17,4	10,1	78,5

Ikastetxe horiek indize sozioekonomiko eta kultural oso apala (edo apala) dute, eta bekadun ikasleen, migratzaileen eta hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen ehuneko handiak izaten dituzte; gainera, ikasleen mugikortasun handiagoa izaten dute (HKI maila >20 dutenen artean, % 60k baino ez du egiten Lehen Hezkuntza osoa ikastetxe berean).

5.1.2.u. grafikoa**Lehen Hezkuntza. ED19.****Hezkuntza Konplexutasunaren Indizearen osagaiak**

	Ikastetxeko kalifikazioetan, hasierako mailan (0-4 puntuazioa) dauden ikasleen ehunekoa						
Lehen Hezkuntza	Euskara	Gaztelania	Atz. Hizk.	Matematika	Natur Zientziak	Gizarte Zientziak	Guztien batez bestekoa
HKI maila > 20	29,3	16,7	18,8	22,0	14,4	15,0	19,4
HKI maila >15 eta <20	15,4	7,7	8,9	11,5	6,7	6,9	9,5
Guztira (ikastetxe guztiak)	13,1	6,9	8,0	9,6	5,7	5,8	8,2



Ikasle horiek beren ikastetxeetan dituzten emaitzei dagokienez, emaitza horiek beste ikastetxe batzuetakoen oso azpitik daude, eta ebaluazio diagnostikoen datuekin berretsi egiten da datu hori.

5.1.3. Bikaintasuna ebaluazio diagnostikoetan

Jarraian, errendimendu-maila aurreratuan dauden Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera aztertuko dugu, euskal hezkuntza-sistema bikaintasunean hobetzen ari ote den jakiteko.

Hala ere, hurrengo grafikoetan ikusten denez, ED19an behera egin du errendimendu aurreratuaren mailan dauden ikasleen ehunekoak. Ebaluazio Diagnostikoaren azken

edizio honetan, errendimendu-maila horretan dauden ikasleen ehunekorik txikienak atera dira, eta hori ia kompetentzia guztietan gertatzen da, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bai DBHko 2. mailan. Salbuespen bakarrak euskarazko eta ingelesezko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziak dira Lehen Hezkuntzako 4. mailan; izan ere, ED19an errendimendu aurreratuak gora egin baitu kompetentzia horietan, eta, euskarazkoaren kasuan, orain arteko handiena da (% 30,9).

5.1.3.a. grafikoa**LH 4 eta DBH 2.** EDO9-ED19.**Errendimendu-maila aurreratuetan dauden ikasleen ehunekoaren bilakaera euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan****5.1.3.b. grafikoa****LH 4 eta DBH 2.** EDO9-ED19.**Errendimendu-maila aurreratuetan dauden ikasleen ehunekoaren bilakaera Matematikarako eta Zientziarako konpetentzietan**

5.2. Eskola inklusiboa

Eskola inklusiboa honako hau da: aniztasuna bere jardunaren oinarritzat hartzen duena eta pertsona guztiek kalitateko hezkuntza, aukeraberdintasunean, bidezkoa eta ekitatiboa izatea bermatzen duena. Eskola inklusiboaren helburua ikasle guztiek eskola-arrakasta lortzea da; izan ere, benetako bikaintasuna lortzen baita ikasle guztiek beren gaitasun pertsonalak ahalik eta gehien garatzen dituztenean, irteera-profilean aurreikusitako oinarritzko gaitasunak eskuratzera bideratuta.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, “70/1 Ebazpena, “Gure mundua eraldatzea: 2030 Agenda Garapen Jasangarrirako (2015eko iraila)” dokumentuan, 17 helburu orokor ezarri zituen pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta oparotasuna ziurtatzeko. Helburu horietako batek, hain justu, 4. helburuak (Kalitateko Hezkuntza) honako hau du xede: “Guztionezko kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea”.²⁵

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu du helburu hori bere hezkuntza-politikaren barruan, eta inklusioa bultzatzea euskal hezkuntza-sistema identifikatzen duen funtsezko elementua izan da eta da, eta, gainera, “EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Plana. Bikaintasunerantz ekitatean oinarrituta”²⁶ planaren ildo estrategikoetako bat ere bada. Urte hauetan guztietan neurri asko hartu dira eskola inklusiboa

bultzatzeko eta aniztasunari erantzun egokia emateko. Hala ere, etengabeko bilakaeran dagoen gizarte konplexu batean bizi garela kontuan izanik, eskolak modernizatzeko eta hobetzeko ahalegina egiten jarraitu behar du, bere ahalmen eraldatzailea garatu eta egungo erronkei erantzun ahal izateko.

Hezkuntzaren aldeko Akordioaren Oinarriak²⁷ eta Eskola inklusiboa garatzeko Esparru Plan (2019-2022)²⁸ berria urrats bat aurrera doaz eta, geure nortasunaren bereizgarri, honako hau proposatzen dute: bizikidetzaren bere adierazpen zabalenean izatea inklusioa eta ekitatea sustatzen dituzten hezkuntza-politika eta hezkuntza-programen ardatz egituratzailea.

5.2.1. Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen eskolatzea

Eskola inklusiboa garatzeko Esparru Plan (2019-2022) berriak koherentzia eta estaldura eman nahi die, plan, programa edo proiektuen bidez, ikasle guztien premia espezifikoari erantzun nahi dieten eta horien garapen integrala eta eskola-arrakasta erraztuko duten jarduketak guztiei. Hurbilketa berri bat da, eta, besteak beste, aniztasunari erantzuteko Dekretu berri bat egitea proposatzen du, 1998ko arau-erreferentziak²⁹ gaindituko dituen, laguntza-zerbitzuek eta ikastetxeko eragileek aniztasunari erantzuteko duten esku-hartzea berriro definitu ahal izateko.

25 Garapen Jasangarrirako Helburua (4. GJH). https://www.unescoetxea.org/dokumentuak/2030_Agenda_garapen_jasangarrirako.pdf
https://www.ine.es/ods/publicacion_ods.pdf
https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000246300_spa

26 EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Plana. Bikaintasunerantz ekitatean oinarrituta (2016ko martxoa). https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_hobekuntza_plana/eu_def/adjuntos/Hobetzeko_Plane_2016_martxo_e.pdf

27 Hezkuntzaren aldeko Akordioa. Akordioaren oinarriak. https://bideoak2.euskadi.eus/2018/03/27/propgob_hezkuntza_akordioa/Akordioaren_Oinarriak.pdf

28 Eskola inklusiboa garatzeko Esparru Plana (2019-2022). https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusioba/Plan_Marco_Escuela_Inclusiva_2019_2022_e.pdf

29 Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak. Euskadiko araudia. <https://www.euskadi.eus/berariazko-hezkuntza-laguntza-premiak-raudia-euskal-autonomi-erkidegoan/web01-a3hinklu/eu/>

Euskadi aitzindaria izan da haur-hezkuntzako etapan eskolatzea txiki-txikitik sustatzen, izaera konpentsatzailea duela uste baitu, bereziki, Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleentzat. Horrekin lotuta, “Arreta goiztiarreko eredu”³⁰ baten aldeko apustua egin zen, inplikaturako hiru sistemetako (osasuna, gizarte eta hezkuntza) baliabide eta zerbitzuen arteko koordinazio sistematikoan oinarritutako diseinu batekin. Eredua zehaztean, “Premia bereziak dituzten umeekiko Arreta-prozesu Integratua (PAINNE)”³¹ garatu da, eta hiru sistemek parte hartzen duten Arreta Goiztiarreko Balorazio Batzordea (AGBB) eratu.

Prozesu horri behin betiko bultzada emateko, “Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Integralari buruzko Dekretua”³² onartu zen, baita “Arreta Goiztiarreko Marko Plana”³³ eta “Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa”³⁴ ere. Garapenerako Nazio Batuen Programak eta Eskualde Batuen Erakundeak (ORU Fogar)³⁵ mundu mailako kudeaketa publikoaren jardunbide egokitzen jotzen dituzte azken bi horiek.

EAEko Hezkuntza Sailak berariazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna moldatzeko lanean jarraitzen du. Ildo horretan, 2019-2020

ikasturtean, Hezkuntza Sailak eskatuta, ISEI-IVEIk “EAEko hezkuntza-sisteman dauden gaitasun handiko eta errendimendu-maila aurreratuko ikasleen egoerari buruzko txostena”³⁶ prestatu zuen. Txosten horrek egoeraren diagnostikoa egiteko balio izan zuen, “Adimen gaitasun handiko ikasleen hezkuntza: jarduera plana. 2012ko maiatza”³⁷ plana egitean. Era berean, Deustuko Unibertsitatearekin batera, horrelako ikasleak hautemateko protokolo bat prestatzen ari da.

Gainera, 2020-2021 ikasturtean talde eragile bat sortu da, Ikasteko Zailtasun espezifikoak (IZE) dituzten ikasleekin detekzio goiztiarrerako eta esku-hartzerako protokolo bat egiteko.

Eskola inklusiboaren errealitatearen argazki eguneratua izateko, Euskadin Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen azterketa egin dugu. Datuak Hezkuntza Sailaren W67 datu-basetik atera dira (2021eko maiatzeko datarekin), baina 2020ko ekaina-uztailera arteko informazioa biltzen dute.

Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak (BHLP) dituzten ikasletzat hartzen dira, aldi baterako edo modu iraunkorrean, ohikoak ez diren hezkuntza-laguntzak edo -hornidurak eskatzen dituztenak, Hezkuntza Premia Bereziak (HPB)

30 Arreta Goiztiarreko Eredua Euskal Autonomia Erkidegorako.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/atenciontemp/eu_doc/adjuntos/Atencion%20Temprana%20-euskera.pdf

31 Premia bereziak dituzten umeekiko Arreta-prozesu Integratua (PAINNE). 2013ko gida.

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_c16/es_def/adjuntos/PAINNE2013_es_b18.pdf

32 13/2016 DEKRETUA, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/03/1601007e.pdf>

33 Arreta Goiztiarreko Marko Plana.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/atencion_temprana_que_es/eu_def/adjuntos/Arreta_Goiztiarreko_Marko-Plana.pdf

34 Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarra Hezkuntzaren Baitan.

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/es_def/adjuntos/escuela-inclusiva/100018-1_Pub_EJ_Haurren_Garapenaren_Jarraipenerako_Protokoloa_Protocolo_de_Seguimiento_del_Desarrollo_Infanti.pdf

Haurren garapenaren jarraipenerako protokoloa: arreta goiztiarra hezkuntzaren baitan. Bigarren fasea: detekzio espezifikoak. 2020

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/atencion_temprana_documentos/eu_def/adjuntos/Haurren_garapenaren_jarraipenerako_protokoloa_arreta_goiztiarra_hezkuntzaren_baitan_web_2020_e.pdf

35 Jardunbide Egokiaren izen-emate fitxa. ORU FOGAR.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/atencion_temprana_documentos/eu_def/adjuntos/buenas_practicas_oru_fogar_e.pdf

36 EAEko hezkuntza-sisteman dauden gaitasun handiko eta errendimendu-maila aurreratuko ikasleen egoerari buruzko txostena”. <https://isei-ivei.hezkuntza.net/documents/635622/1253642/Gaitasunhandiak.pdf/a6b196be-6ce2-5a56-9af1-927daead66e3>

37 Adimen gaitasun handiko ikasleen hezkuntza: jarduera plana. 2012ko maiatza.

<http://klasikoa.eimakatalogoa.eus/cgi-bin/koha/opac-retrieve-file.pl?id=4449fa9aba9b8237958ef91b60b747b3>

dituztelako, Ikasteko Zailtasun espezifikoak (IZE) dituztelako, adimen-gaitasun altuak dituztelako, euren baldintza pertsonalengatik edo eskola-historiagatik, hezkuntza-sisteman berandu sartu izanagatik...

Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleak aztertzeko, HPBko Aholkularitzek ikasle batek Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituen edo beste Berariazko Hezkuntza Laguntza Premia batzuk (BHLP) dituen erabakitze erabiltzen duten sailkapena hartu dugu abiapuntutzat.

W67 datu-basean, hiru ardatz diagnostiko ezartzen dira BHLPa eta HPBa dituzten ikasleen egoera zehazteko. Txosten honetan, soilik 1. ardatzeko informazioa hartu dugu;

ikasleek kode diagnostiko bat baino gehiago izaten dute 1. ardatzean. Txosten honetan ikasleak sailkatzeko, 1. ardatzean agertzen den diagnostiko-kodeetako lehena hartu dugu kontuan, garrantzitsuena delako edo ikasleen Hezkuntza Premia Bereziak edo beste Berariazko Hezkuntza Laguntza Premia batzuk gehien zehazten dituelako.

Hurrengo taulan, ikasleak bi taldetan sailkatzen dira, Berritzeguneetako HPBko Aholkularitzek erabiltzen dituzten 1. ardatzeko diagnostiko-kodeen arabera.

HPBak dituzten ikasleak	Beste BHLP batzuk dituzten ikasleak
Gor-itsutasuna	Adimen-gaitasun altua
Desgaitasun anitz izatea	Heltzeko moteltasuna
Adimen desgaitasuna	Mugako adimen-gaitasuna
Garapen nahaste orokorrak	Komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasteak
Mugitzeko desgaitasuna	Arreta faltagatik nahastea (AFN eta AFN-H)
Ikusteko desgaitasuna	Ikasteko Zailtasun espezifikoak (IZE)
Entzuteko desgaitasuna/gorrieria	
Sortzetiko eta jatorri genetikoko nahasteak	
Adierazpen somatikoko nahasteak eta iraupen luzeko gaixotasunak	
Jokabidearen nahasmenduekin lotutako nahasteak	


2019-2020 ikasturtean, Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten 23 557 ikasle identifikatu dira. Txosten honetan, termino honen barruan sartzen dira Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleak, beste Berariazko Hezkuntza Laguntza batzuk (BHLP)

dituzten ikasleak, eta “ez du adierazi” epigrafean sartzen diren beste ikasle batzuk, datu-basean ez baita zehazten HPBak edo beste BHLP batzuk dituzten ikasleak ote diren.

5.2.1.a. grafikoa

2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatza.

Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen kopuruaren bilakaera (guztira: ez du adierazi+HPB+beste BHLP batzuk)




Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen kopuruak gora egin du 2012-2013 ikasturtetik 2019-2020 ikasturtera. Era berean, HPBak dituzten ikasleen nahiz BHL Pak dituzten ikasleen kopuruak ere gora egiten du ikasturte bakoitzean.

Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasle guztiak banakatzen baditugu, ikus daiteke beste BHL Pak batzuk dituzten ikasleen ehunekoa handitu egin dela, 2012-2013 ikasturtean % 51,2 izatetik 2019-2020 ikasturtean % 55,5 izatera; beraz, HPBak dituzten ikasleen ehunekoa txikiagoa da Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen guztizkoaren barruan (2012-2013 ikasturtean % 43,5 eta 2019-2020 ikasturtean % 41,8).

5.2.1.b. grafikoa

2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatza.


Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen kopuruaren bilakaera (banakatuta: ez du adierazi+HPB+beste BHL Pak batzuk)



5.2.1.c. grafikoa

2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatza.

Berariazko Hezkuntza Laguntza
Premiak dituzten ikasleen
ehunekoaren bilakaera (banakatuta:
ez du adierazi+HPB+beste BHL
batzuk).




Hurrengo grafikoan, HPBak dituzten ikasleen eta beste BHL batzuk dituzten ikasleen kasu kopuruaren portzentajeazko bilakaera ikusiko dugu, baita guztizkoa ere, abiapuntuko erreferentziatzat ezarri den 2012-2013 ikasturtearekin alderatuta.

5.2.1.d. grafikoa

2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatza.

HPBen, beste BHL batzuen eta guztizkoaren portzentajeazko aldea 2012-2013 ikasturteari dagokionez



Erreferentziatzat hartutako aldiko lehen ikasturtean (2012-2013), abiapuntua HPBak dituzten ikasleen eta beste BHL batzuk dituzten ikasleen ehuneko 100 da, baita guztizkoa ere (ez du adierazi + HPB +beste BHL batzuk). Erreferentzia horretatik abiatuta, ikasturte bakoitzean gertatzen den igoera ikusten da ehunekotan, betiere 2012-2013 ikasturtearekin alderatuta.

Grafikoan ikusten denez, gora egin du, alde batetik, BHL Pak dituzten ikasleen guztizko kopuruak eta, bestetik, HPBak dituzten ikasleen eta beste BHL batzuk dituzten ikasleen kopuruak. Bi kasuetan, ehunekoak gora egin du ikasturtez ikasturte 2019-2020 ikasturtera arte.


Ehunekoekoen hazkunderik handiena beste BHLP batzuketan ikasleena da, 2019-2020 ikasturtean % 80 igo baita 2012-2013 ikasturtearekin alderatuta. HPBak dituzten ikasleen kasuan, igoera hori % 59koa da.

Hurrengo hiru grafikoetan, HPBak dituzten ikasleen ehunekoa, beste BHLP batzuketan dituzten ikasleena eta ikasleen guztizkoarena (ez du adierazi +HPB+beste BHLP batzuketan) ikus daitezke, Lurralde Historikoaren arabera.

5.2.1.e. grafikoa

2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatzak.

HPBak dituzten ikasleen ehunekoaen bilakaera Lurralde Historikoaren arabera




Ikasleen Lurraldearen arabera ikasleena bilakaeran ikus daitekeenez, aztertutako ikasturteetan egonkor mantendu dira bai guztizko ehunekoak (ez du adierazi + HPB + beste BHLP batzuketan), bai HPBak dituzten ikasleenak. Hala ere, beste BHLP batzuketan dituzten ikasleen Lurraldearen arabera ehunekoetan, Araban goranzko joera ikusten da (2009-2010 ikasturtean % 21,3 eta 2019-2020 ikasturtean % 27).

5.2.1.f. grafikoa

2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatzak.


Beste BHLP batzuketan dituzten ikasleen ehunekoaen bilakaera, Lurralde Historikoaren arabera



5.2.1.g. grafikoa

2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatzak.

Beste BHLP batzuketan dituzten ikasleen guztizkoaren bilakaera, Lurralde Historikoaren arabera




Lurralde bakoitzean eskolatzen den guztizko biztanleria kontuan hartuz gero, Bizkaiak du ikasle gehien, eta, ondoren, Gipuzkoak eta Arabak. Adibidez, Sailaren datuen arabera, 2020-2021 ikasturtean Arabak 64 194 ikasle zituen (ikasleen %16,6), Gipuzkoak 131 793 (%34) eta Bizkaiak 191 891 (%49,5). HPBak dituzten ikasleen proportzioa bat dator, gutxi gorabehera, eskola-biztanleriaren Lurraldekako banaketarekin. Hala ere, beste BHLP batzuk dituzten ikasleei dagokienez, 2019-2020 ikasturtean Arabak ehuneko handixeagoa du Lurralde horretan eskolatutakoekin alderatuta.

Hurrengo grafikoan ikusten denez, Araban beste BHLP batzuk dituzten ikasleen diagnostikoak gehiago dira HPBak dituzten ikasleen diagnostikoak baino. Bizkaian, beste BHLP batzuekin eta HPBekin diagnostikatutako ikasleen ehunekoa antzekoa da; bi kasuetan, ehuneko handiena B02 zonako Berritzegunean (Txurdinaga) eta txikiena B08 zonan (Leioa) izan dira. Azkenik, Gipuzkoa da diagnostiko gutxien dituen lurraldea, eta kasu horretan ere, beste BHLP batzuk dituzten ikasleen diagnostikoak HPBak dituzten ikasleenak baino gehiago dira; G02 zonak (Irun) du intzidentzia handiena.

5.2.1.h. grafikoa


Hezkuntza Saila. 2021eko maiatza.

Berritzeguneak diagnostikatutako ikasleen ehunekoa, zonako ikasleei dagokienez



5.2.1.i. grafikoa


Hezkuntza Saila. 2021eko maiatz.

Berritzeguneak diagnostikatutako ikasleen ehunekoaren banaketa, diagnostiko motaren arabera

Hurrengo grafikoa, BHL Pak dituzten ikasleen ehunekoa hezkuntza-sarearen arabera aztertuko dugu.

5.2.1.j. grafikoa

2019-2020 ikasturtea. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatz.

Berriazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera


2020-2021 ikasturteko ikasle-datuaren arabera, sare publikoan eskolatzen dira ikasleen % 54,2, eta itunpekoan, berriz, % 45,8. 2019-2020 ikasturtean HPBak zituzten ikasleen ehunekoa bat dator, gutxi gorabehera, hezkuntza-sare bakoitzean eskolatutako ikasleen ehunekoaren banaketarekin. Baina ez da horrelakorik gertatzen beste BHLP batzuen ehunekoan; izan ere, itunpeko ikastetxeen sarean dauden ikasle horien ehunekoa txikiagoa baita hezkuntza-sare

horretan eskolatutako ikasle kopuruaren arabera espero zitekeena baino, eta sare publikoan kontrakoa gertatzen da.

Berriazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasle gehien derrigorrezko hezkuntzan daude (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH). Etapa horietatik, Lehen Hezkuntzan biltzen dira BHL Pak dituzten ikasle gehien.

5.2.1.k. grafikoa


2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatza.

Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak (ez du adierazi + HPB + beste BHLP batzuk) dituzten ikasleen guztizko kopuruaren bilakaera, etaparen arabera

Hezkuntza-maila guztietan ari da hazten Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen kopurua.

5.2.1.l. grafikoa

2015-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatza.

Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak (ez du adierazi + HPB + beste BHLP batzuk) dituzten ikasleen guztizko ehunekoaren bilakaera, etaparen arabera, ikasle guztiei dagokienez

Aztertutako hezkuntza-mailetan, Lehen Hezkuntzan eskolatuta daude Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen ia erdiak (% 47,3), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan % 25 inguru, Haur Hezkuntzan ia % 16 eta gainerako mailetan % 5 baino gutxiago. Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa kalkulatzeko, Lanbide Heziketako eta Zereginen Ikaskuntzarako Geletako (ZIG) ikasleen datuak hartu ditugu.


Lanbide Heziketan igo da gehien ikasle horien ehunekoa (2015-2016 ikasturtean Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen % 2,2 eskolatzetik % 4,9 eskolatzera igaro da 2019-2020 ikasturtean).

Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasle gehienak sare publikoko ikastetxeetan biltzen dira, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Aitzitik, nabarmentzekoa da Batxilergoaren eta Lanbide Heziketaren kasuan ehunekorik handienak itunpeko sareari dagozkiola.

Gráfico 5.2.1.m

Hezkuntza Saila.
2021eto maiatz.

HLP eta beste BHLP batzuk dituzten ikasleen ehunekoa, hezkuntza-mailaren eta sarearen arabera




Hurrengo grafikoetan, Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak dituzten ikasleen ehunekoa sexuaren arabera banakatuta ikus daiteke.

5.2.1.n. grafikoa

2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea.
2021eko maiatz.


HPBak dituzten ikasleen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera



5.2.1.o. grafikoa

2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea.
2021eko maiatz.


Beste BHLP batzuk dituzten ikasleen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera



5.2.1.p. grafikoa

2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatz.

Berariazko Hezkuntza Laguntza Premiak (ez du adierazi+HPB+beste BHLP batzuk) dituzten ikasleen guztizko ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera



HPBak eta beste BHLP batzuk dituzten mutilen ehunekoa, oro har, nesken bikoitza da.

Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei dagokienez, diagnostikoen ehuneko handienak honako hauek dira: adimen-desgaitasuna (% 33 inguru), garapen nahaste orokorrak (% 22,5 inguru), jokabidearen nahasmenduekin lotutako nahasteak (% 16 inguru) eta mugitzeko desgaitasuna (% 9 inguru).

W67 datu-baseko datuak (Hezkuntza Saila). 2021eko maiatza.
2012-2013 ikasturteetik 2019-2020 ikasturtera

HPBak DITUZTEN IKASLEEN DIAGNOSTIKOA	IKASTURTEAK							
	12-13	13-14	14-15	15-16	16-17	17-18	18-19	19-20
Ez da diagnostikoa adierazi 1. ardatzean	754	539	598	684	498	731	584	630
Gor-itsutasuna	11	6	2	13	52	23	13	11
Desgaitasun anitz izatea	224	238	247	267	283	321	329	321
Adimen desgaitasuna	2453	2836	2907	3014	3045	3055	3117	3018
Garapen nahaste orokorrak	1162	1354	1597	1931	2201	2447	2737	3005
Mugitzeko desgaitasuna	611	667	760	805	787	803	862	906
Ikusteko desgaitasuna	170	181	190	206	206	210	219	243
Entzuteko desgaitasuna/gorrieria	326	337	351	378	360	382	389	389
Sortzetiko eta jatorri genetikoko nahasteak	193	190	193	171	155	146	144	142
Adierazpen somatikoko nahasteak eta iraupen luzeko gaixotasunak	85	94	98	99	77	75	79	76
Jokabidearen nahasmenduekin lotutako nahasteak	949	1172	1273	1458	1542	1618	1708	1736

Oro har, Hezkuntza Premia Berezien diagnostikoa duten ikasleen kopuruak gora egin du aztertutako ikasturteetan. 2019-2020 ikasturteko ikasleen datuak 2012-2013 ikasturtekoekin alderatuz gero, Sortzetiko eta jatorri genetikoak duten nahasteak dituzten ikasleen kopuruak (51 kasu gutxiago) eta Adierazpen somatikoko nahasteak eta iraupen luzeko gaixotasunak dituzten ikasleenak (9 kasu gutxiago) baino ez dute behera egin.

Bestalde, gehien handitu den ikasle kopurua Garapenaren nahaste orokorreari lotutako Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleena da (2012-2013 ikasturtean 1162 ikasle ziren, eta 2019-2020 ikasturtean 3005), jokabidearen nahasmenduekin lotutako nahasteak dituzten

ikasleena (2012-2013 ikasturtean 949 kasu eta 2019-2020 ikasturtean 1736), eta adimen-desgaitasuna duten ikasleena (aztertutako lehenengo ikasturtean 2453 ikasle, eta azkeneko ikasturtean 3018). Hiru diagnostiko horietan eta mugitzeko ezintasunaren diagnostikoan biltzen dira HPBak dituzten ikasle gehien.

Beste BHLP batzuk dituzten ikasleen diagnostikoei dagokienez, heltzeko moteltasuna duten ikasleak dira ehunekorik handienak dituztenak (% 51 inguru), eta horien atzetik datoz Komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasteak dituztenak (% 19 inguru) eta Ikasteko Zailtasun espezifikoak (IZE) dituzten ikasleak (beste BHLP batzuk dituzten ikasleen % 15 inguru).

W67 datu-baseko datuak (Hezkuntza Saila). 2021eko maiatza.
2012-2013 ikasturtetik 2019-2020 ikasturtera

BESTE BHLP BATZUK DITUZTEN IKASLEEN DIAGNOSTIKOA	IKASTURTEAK							
	12-13	13-14	14-15	15-16	16-17	17-18	18-19	19-20
Adimen-gaitasun altua	249	311	380	497	577	693	839	962
Heltzeko moteltasuna	1235	1213	1286	1392	1581	1800	2094	2319
Mugako adimen-gaitasuna	3112	3013	3205	3521	3542	3531	3725	3731
Komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasteak	1227	1331	1526	1900	2101	2329	2543	2518
Arreta faltagatik nahastea (AFN eta TAFN-H)	629	686	790	904	975	991	1071	1142
Ikasteko zailtasun espezifikoak (IZE)	798	925	1118	1375	1620	1831	2207	2408

Aurreko taulan ikus daitekeenez, beste BHLP batzuk dituzten ikasleen kopuruak gora egiten du ikasturtez ikasturte, eta hori diagnostiko mota guztietan gertatzen da. 2012-2013 ikasturtea 2019-2020 ikasturtearekin alderatuz gero, garapeneko moteltasunaren diagnostikoa duten 1084 ikasle gehiago daude, Ikasteko

Zailtasun espezifikoak (IZE) dituzten 1610 ikasle gehiago eta Komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasteak dituzten 1291 ikasle gehiago. Hiru diagnostiko horietan biltzen dira BHLPak dituzten ikasle gehien.

Arreta faltagatiko nahastearen ondorioz (AFN eta AFN-H) eta adimen-gaitasun altuaren ondorioz BHL Pak dituzten ikasleen kopuruak ere gora egin du ikasturte batetik bestera, baina lehen aipatutakoek baino proportzio txikiagoan (513 kasu eta 713 kasu gehiago, hurrenez hurren, 2019-2020 ikasturteko datuak 2012-2013 ikasturtearekin alderatuz gero).

HPBko diagnostiko bakoitzean nesken eta mutilen kopurua aztertuz gero, guztietan neska baino mutil gehiago daudela ikusiko dugu.


HPBko diagnostiko mota bakoitzeko kasuen ehunekoetan sexuaren arabera dauden aldeak kalkulatzeko, ikusten da alderik handienak diagnostiko hauetan gertatzen direla:

- Garapen nahaste orokorrak (GNO), portzentajezko 72 puntu inguruko aldea mutilen alde, aztertutako ikasturte guztietan;
- Jokabidearen nahasmenduekin lotutako nahasteak, portzentajezko 60 puntuko aldea dago, mutilen alde kasu honetan ere.
- Gor-itsutasuna (portzentajezko 54 puntu inguru, mutilen alde). Azken diagnostiko horretan, kasuen kopurua oso txikia da, eta 2014-2015 ikasturtean mutilen alde portzentajezko 100 puntuko aldea izatearen arrazoiak zera izan zen, bi kasu baino ez zirela izan, eta biak mutilak izan zirela.

5.2.1.q. grafikoa

2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatza.

1. ardatzeko diagnostiko bakoitzeko mutilen eta nesken arteko ehuneko-aldeen bilakaera



HPBak dituzten ikasleen diagnostikoen zenbait kasutan, mutilen eta nesken arteko aldeak gutxitu egin dira ikasturtez ikasturte: besteak beste, mugitzeko eta ikusteko desgaitasuna duten ikasleen kasuan, sortzetiko eta jatorri genetikoko nahastea duten ikasleen kasuan, eta adierazpen somatikoko nahasteak eta iraupen luzeko gaixotasunak dituzten ikasleen kasuan. Hala ere, mutilen eta nesken ehunekoen arteko aldeak gora egiten du entzuteko desgaitasunaren kasuan (2012-2013 ikasturtean, portzentajezko 6,7 puntuko aldea zegoen mutilen alde, eta 2019-2020 ikasturtean, berriz, portzentajezko 14 puntu pasatxokoa).

Era berean, beste BHLP batzuekin lotutako diagnostiko guztietan mutilen kasu gehiago daude neskenak baino.


Beste BHLP batzuen diagnostiko mota bakoitzeko ikasleen ehunekoetan sexuaren arabera dauden aldeak kalkulatzeko, ikusten da alderik handienak diagnostiko hauetan gertatzen direla:

- Arreta faltagatiko nahastea (AFN eta AFN-H): diagnostiko honetan portzentajezko 25 puntu inguruko aldea dago mutilen alde.
- Adimen-gaitasun altua: aztertutako ikasturteetan, nesken eta mutilen arteko batez besteko aldea portzentajezko 45 puntukoa da, mutilen alde.
- Komunikazioaren eta hizkuntzaren nahastea: nesken eta mutilen arteko batez besteko aldea portzentajezko 43 puntukoa da, mutilen alde.

5.2.1.r. grafikoa

2012-2019. Hezkuntza Sailaren W67 datu-basea. 2021eko maiatza.

1. ardatzeko diagnostiko bakoitzeko mutilen eta nesken arteko ehuneko-aldeen bilakaera



Mutilen eta nesken ehunekoen arteko aldeak BHLPen bi diagnostikotan murriztu dira nabarmenen; hain zuzen ere, honako hauetan: adimen-gaitasun altua (mutilen eta nesken arteko portzentajezko 50,2 puntuko aldea 2012-2013 ikasturtean, eta 40,7 puntukoa 2019-2020 ikasturtean) eta IZE (portzentajezko 21,6 puntuko aldea 2012-2013 ikasturtean mutilen alde, eta portzentajezko 13 puntuko aldea 2019-2020 ikasturtean).


Hezkuntza Premia Bereziei erantzuten jarduten duten irakasleen kopuruak bilakaera negatiboa izan du, 2015ean 3471,50 izatetik 2019an 2893,50 izatera; diagnostikatutako ikasleekin gertatu denaren kontrako joera da. Langileen gehikuntzaren zati handiena Pedagogia Terapeutikoko irakasleak (PTE) eta gela egonkorretako PTEak dira.

EUSKADI	2015	2016	2017	2018	2019
ZIG (PTE eta LM ³⁸)	121	136	128,5	124	134
EHI ³⁹	136	147	153	194	154
Gela egonkorreko PTE	211	226	232	201,5	210,5
PTE	1587,0	1653,5	1530,0	1607,0	1403,0
HLE ⁴⁰	1305,5	1327,0	895,5	992	992
GUZTIRA	3471,5	3558,5	3028,5	3197,0	2893,5

5.2.1.s. grafikoa

Hezkuntza Saila. 2021eko maiatza.

Hezkuntza Bereziko langileen bilakaera 2015-2019 aldian



38 LM: Lantegiko Maisua

39 EHI: Entzumen eta Hizkuntzako irakasleak

40 HLE: Hezkuntza Laguntzako Espezialista

Hezkuntza Premia Bereziak irakasleak Lurralde Historikoaren arabera nola banatzen diren ikusiz gero, nabarmendu beharreko lehen alderdia zera da, irakasleen kopurua, oro har, lurralde bakoitzeko biztanleriarekiko


proportzionala dela. Eta bigarren alderdi deigarria da Gipuzkoan gela egonkorretako PTEak gainerakoak baino dezente gutxiago direla, lurralde horretan hezkuntza bereziko zentro espezifiko gehiago daudelako.

EUSKADI	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZTIRA
ZIG (PTE eta LM)	33	47	54	134
EHI	32	53	69	154
Gela egonkorreko PTE	47	14,5	149	210,5
PTE	284	316	803	1403
HLE	224	288,5	479,5	992
GUZTIRA	620	719	1554,5	2893,5

5.2.1.t. grafikoa

Hezkuntza Saila. 2021eko maiatza.

HPBak eta beste BHLP batzuk dituzten ikasleen irakasleen ehunekoa, Lurralde Historikoaren arabera



5.2.2. Atzeritar jatorriko ikasleen eskolatzea

Atzeritar jatorriko biztanleen etorrerak gora egin du gure lurraldean, eta horrek euskal hezkuntza-sisteman ere izan du eragina; izan ere, horren ondorioz, erronka berriak sortu dira bai ikastetxeetan, bai hezkuntza-sisteman. Euskal hezkuntza-sistemak helburu ditu ikasle

guztien ikaskuntza-emaitzetan ekitatea lortzea, ikasleen jatorrizko herrialdea edozein izanik ere; ikasleen eskolatzean oreka lortzea ikastetxeetan; eta ikasle guztiak gizarteratzea.

Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planarekin⁴¹ lotuta, eta "Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa 2012-2016"⁴² planaren esparruan, "Eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. plana (2016-2020)"⁴³ da gure sisteman sartu berri diren ikasleei eta atzerritar jatorria duten familietako ikasleei gizarteratzen laguntzeko plan berriena; era berean, gizartean benetan parte har dezaten ere lortu nahi da eta, horretarako, sisteman errazago sartu daitezten eta sisteman iraun dezaten ikastetxeetan garatzen diren jarduerak indartzeko ekimenak -arauekin, antolamenduarekin eta metodologiarekin lotutakoak- sustatzen dira.

Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren alde egiteak honako hauek ekarri ditu: kulturarteko ikuspegitik begiratuta, hezkuntzako esku-hartzea bultzatzeko proiektu globalak sustatzea ikastetxean; berariazko figurak eskaintzea hezkuntza-sistemari, hala nola hizkuntza indartzeko irakasleak; eta ikastetxeetan kulturartekotasuna eta bizikidetzatza sustatzeko berariazko deialdiak egitea, besteak beste.

Errealitate hori hobeto ezagutzearen, eta ikasle guztien hezkuntza-arrakasta eta gure sistemaren kohesioa bermatuko duten esku-hartzeak zehaztu edo egokitzearen, Hezkuntza Sailak diagnostiko sakona egin zuen 2018-2019 ikasturtean EAEn atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzeari buruz. Diagnostiko horren bitartez, inklusioaren, aniztasunari emandako

erantzunaren eta bizikidetzaren eremuetako ikerketak aberastu dira eta, erronka berriak zehazteaz gain, gure sisteman ekitatea eta bizikidetzatza positiboa hobetzeko neurri berriak proposatu ere egin dira.

Atzerritar jatorriko ikasleak, hau da, atzerrian jaio direnak edo guraso bat, gutxienez, atzerritarra dutenak, Euskadin eskolatutako ikasleen % 11,7 dira.

Ehunekotan, EAEn Lehen Hezkuntzako etapan eskolatutako ikasleen % 6 atzerrian jaio da (N_ext) edo atzerriko gurasoren bat du (A_ext); eta DBHn, berriz, % 14,6. Termino absolututan, atzerritar jatorriko (gurasoak eta jaiotza) 21 227 ikasle daude matrikulatuta Lehen Hezkuntzan, eta 11 852 ikasle DBHn, hau da, guztira, 33 079. Horietatik, erdiak baino gehiago (% 58,6) Estatuan jaiotakoak dira eta guraso bat, gutxienez, atzerritarra dute; eta % 41,4 atzerrian jaiotakoak dira.

Txosten honen 5.1.2 atalean, atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzea ekitatearen ikuspegitik aztertu da eta, kapitulu honetan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan eskolatutako atzerritar jatorriko ikasleen azterketa egingo dugu, ED19ko datuak oinarri hartuta.

ED19n, atzerritar jatorriko ikasleen ehunekoak ebaluazio diagnostikoen edizio guztietako handienak dira, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bai DBHko 2. mailan.

41 EAEn Hezkuntza Sistema Hobetzeko Plana.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_hobekuntza_plana/eu_def/adjuntos/Hobetzeko_Plana_2016_martxo_e.pdf

42 Eskola Inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa 2012-2016.

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusioba/100011e_Pub_EJ_Plan_diversidad_e.pdf

43 Eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. plana (2016-2020).

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/alum_inmigrante/eu_def/adjuntos/II_Plana_ikasle_etorkinei_arreta_emateko.pdf

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoak 4,2 puntu egin du gora ED15tik ED19ra.


DBHko 2. mailan, atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoa egonkorragoa da Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino. ED19n, etapa horretan, portzentajeazko 1,4 puntu igo da aurreko edizioarekin alderatuta.

Atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoa beti izan da handiagoa DBHko 2. mailan LH 4. mailan baino, baina EDren azken bi edizioetan (ED17 eta ED19) kontrakoa gertatu da. Lehen Hezkuntzako 4. mailan eskolatutako atzeritar jatorriko ikasleen kopurua DBHko 2. mailan eskolatutakoak baino gehiago ari dira hazten, eta DBHn baino ikasle gehiago daude hasierako etapa horretan.

5.2.2.a. grafikoa

LH 4 eta DBH 2. ED09-ED19.

Atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoaren bilakaera



Hurrengo grafikoetan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan eskolatuta dauden 1. eta 2. belaunaldiko atzeritar jatorriko ikasleen kopurua jasotzen da, baita kopuru horiek adierazten dituzten ehunekoak ere, betiere ED19ari dagokionez.


Grafikoetan ikus daitekeenez, atzeritar jatorriko 2. belaunaldiko ikasleak gehiago dira Lehen Hezkuntzan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

baino, eta kontrakoa gertatzen da 1. belaunaldiko ikasleen kasuan. Atzeritar jatorriko bi ikasle mota horien ehunekoen arteko aldea handiagoa da Lehen Hezkuntzan DBHn baino (portzentajeazko 4,8 eta 1,1 puntu, hurrenez hurren).

5.2.2.b. grafikoa

LH 4 eta DBH 2. ED19.


Ikasle kopurua eta bertako eta atzerriar jatorriko 1. eta 2. belaunaldiko ikasleen kopurua



5.2.2.c. grafikoa

LH 4 eta DBH 2. ED19.


Bertako ikasleen eta atzerriar jatorriko 1. eta 2. belaunaldiko ikasleen ehunekoa



Hurrengo grafikoan, 1. eta 2. belaunaldiko atzerriar jatorriko ikasleen eta bertakoen ehunekoak Lurralde bakoitzean nola banatzen diren ikusiko dugu.

5.2.2.d. grafikoa

LH 4 eta DBH 2. ED19.

Bertako ikasleen eta atzeritar jatorriko 1. eta 2. belaunaldiko ikasleen ehunekoa, Lurraldearen arabera


Araban, Lehen Hezkuntzako 4. mailan 2610 ikasle daude eskolatuta, guztira; horietatik %81,8 bertakoak dira eta %18,2 atzeritar jatorrikoak (1. belaunaldikoak %4,4 eta 2. belaunaldikoak %13,8). Lurralde horretan, DBHko 2. mailan, guztira 2566 ikasle daude, eta horietatik %85,1 bertakoak dira eta %14,9 atzeritarrek (1. belaunaldikoak %8,2 eta 2. belaunaldikoak %6,7).

Nahiz eta Araba den eskolatutako ikasle gutxien duen lurraldea, proportzioan, atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoa (%33,1) handiagoa da beste bi lurraldeetan baino, eta atzetik ditu Bizkaia (%17,9) eta gero Gipuzkoa (%16,2).


Hurrengo grafikoetan, atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoaren bilakaera ikus daiteke, sarearen, ereduaren eta estratuaren arabera.

LH 4**DBH 2****5.2.2.e. grafikoa**

LH 4. ED09-ED19.

Ikasle atzeritarren ehunekoaren bilakaera, hezkuntza-sarearen arabera**5.2.2.f. grafikoa**

DBH 2. ED09-ED19.

Ikasle atzeritarren ehunekoaren bilakaera, hezkuntza-sarearen arabera

Sare publikoan eskolatuta daude atzerritar jatorriko ikasleen ehunekorik handienak, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bai DBHko 2. mailan. Atzerritar jatorriko ikasleen ehunekoak egonkorra izan da ebaluazio diagnostikoen


edizio guztietan. Alabaina, EDren azken edizioetan, atzerritar jatorriko ikasleen ehunekoak gora egin du, batez ere, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, sare publikoan.

LH 4

5.2.2.g. grafikoa

LH4. ED09-ED19.

Ikasle atzerritarren ehunekoaren bilakaera, hizkuntza-ereduaren arabera



A ereduan dago eskolatutako atzerritar jatorriko ikasleen ehuneko handiena, eta D ereduan txikiena. Hori ebaluazio diagnostikoen edizio guztietan gertatzen da, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, atzerritar jatorriko ikasleen ehunekoak gora egiten ari da hiru ereduetan. Hala ere, DBHko 2. mailan ikasle horien gorakada gertatzen ari da pixkanaka B eta D ereduetan, eta A ereduan, berriz, beherakada.


Orain arte, atzerritar jatorriko ikasleen eta bertako ikasleen banaketak Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan izan duen bilakaera aztertu dugu, 2009tik 2019ra bitarte, lurralde, sare eta ereduaren arabera. Jarraian, ikastetxearen erreparatuko diogu eta, derrigorrezko etapa bakoitzean,

DBH 2

5.2.2.h. grafikoa

DBH2. ED09-ED19.

Ikasle atzerritarren ehunekoaren bilakaera, hizkuntza-ereduaren arabera



atzerritar jatorriko ikasleak ikastetxeetan duten kontzentrazio-maila aztertuko dugu, 2019ko Ebaluazio Diagnostikoaren datuetan oinarrituta.

Ebaluazio Diagnostikoaren 2019ko edizioan, parte hartu zuten Lehen Hezkuntzako 4. mailako 527 ikastetxeetatik 410 ikastetxetan daude atzerritar jatorriko ikasleak eskolatuta, eta 117 ikastetxetan ez dago jatorri hori duen ikaslerik. Hau da, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikastetxe guztien % 22,2n ez dago atzerritar jatorriko ikaslerik. 2013an eta 2015ean, atzerritar jatorriko ikaslerik izan ez zuten ikastetxe gehiago egon ziren (2013an, Lehen Hezkuntzako 4. mailako 524 ikastetxeetatik 145 izan ziren, hau da, ikastetxeen % 27,7; eta 2015ean, maila horretako 522 ikastetxeetatik 357 izan ziren, hau da, % 31,6).

Ebaluazio Diagnostikoaren 2019ko edizioan, parte hartu zuten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako 327 ikastetxeetatik 300 ikastetxetan daude atzerritar jatorriko ikasleak eskolatuta, eta 27 ikastetxetan ez dago jatorri hori duen ikaslerik. Hau da, DBHko 2. mailako ikastetxe guztien % 8,2n ez dago atzerritar jatorriko ikaslerik. 2015ean ikastetxe gehiagok ez zuten izan atzerritar jatorriko ikasle bat bera ere: DBHko 2. mailako 326 ikastetxeetatik 51 ikastetxe (hau da, % 15,6).

Hala ere, datu orokor horiek ez dute adierazten atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzearen errealitate osoa. Egoera hobeto ulertzeko, ea ikasle horiek ikastetxe guztietan modu orekatuan banatzen ote diren aztertu behar da eta, beraz, ea ez ote den pilaketarik gertatzen.

LH 4. ED19. Atzerritar jatorriko ikasleen banaketa ikastetxeetan

TARTEAK	Ikastetxeak		Atzerritar jatorriko ikasleak	
	Kop.	%	Kop.	%
% 0	117	22,2	0	0,0
% 0-5	104	19,7	156	7,6
% 5-10	105	19,9	349	16,9
% 10-15	58	11,0	296	14,3
% 15-20	36	6,8	207	10,0
% 20tik gora	107	20,3	1056	51,2
GUZTIRA	527	100,0	2064	100,0

DBH 2. ED19. Atzerritar jatorriko ikasleen banaketa ikastetxeetan

TARTEAK	Ikastetxeak		Atzerritar jatorriko ikasleak	
	Kop.	%	Kop.	%
% 0	27	8,3	0	0,0
% 0-5	102	31,2	207	11,1
% 5-10	85	26,0	373	20,0
% 10-15	46	14,1	331	17,7
% 15-20	19	5,8	203	10,9
% 20tik gora	48	14,7	755	40,4
GUZTIRA	327	100,0	1869	100,0

Ikastetxeen % 20,3n (107 ikastetxe) 1056 ikasle daude eskolatuta, hau da, Lehen Hezkuntzako 4. mailako atzerritar jatorriko ikasle guztien % 51,2; DBHko 2. mailako ikastetxeen % 14,7n atzerritar jatorriko 755 ikasle daude, hau da, ikasle horien % 40,4.

Bestalde, Lehen Hezkuntzako 4. mailako 104 ikastetxetan (ikastetxeen % 19,7) atzerritar jatorriko 156 ikasle daude eskolatuta (ikasle horien % 7,6) eta DBHko 2. mailako 102 ikastetxetan (ikastetxeen % 31,2) atzerritar jatorriko 207 ikasle daude eskolatuta (ikasle horien % 11,1).

Ikus daitekeenez, ez Lehen Hezkuntzako 4. mailan, ez DBHko 2. mailan, atzerritar jatorriko ikasleen banaketa ez da orekatua Euskadiko ikastetxeetan.

Hurrengo grafikoetan ere gauza bera aztertuko dugu, baina hezkuntza-sarearen arabera.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, atzerritar jatorriko ikasleen banaketa oso bestelakoa da sare publikoan eta itunpekoan. Sare publikoan, ikastetxeen ehuneko handiengan daude eskolatuta (% 26) atzerritar jatorriko ikasleen % 20 baino gehiago; itunpeko sarean, berriz, soilik ikastetxeen % 8n eskolatzen dira ikasle horien % 20 baino gehiago. Sare itunpekoan, ikastetxeen ehuneko handiengan (% 37) daude eskolatuta atzerritar jatorriko ikasleen % 5era bitarte.


Bestalde, atzerritar jatorriko ikasleen % 10 baino gutxiago eskolatuta dauden ikastetxeen ehunekoa % 50 inguru da sare publikoan, eta % 80 itunpeko sarean.

Lehen Hezkuntzako 4. maila

5.2.2.i. grafikoa

LH 4. ED19.

Ikastetxeen ehunekoa, atzerritar jatorriko ikasleen ehunekoaren arabera eta hezkuntza-sarearen arabera




Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

5.2.2.j. grafikoa

DBH 2. ED19.

Ikastetxeen ehunekoa, atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoaren arabera eta hezkuntza-sarearen arabera



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan, atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoari dagokionez, ikastetxeen arteko aldeak nabarmenagoak dira itunpeko sarean.

Bi etapak alderatuta, zera ikus daiteke, Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara atzeritar jatorriko ikaslerik ez duten ikastetxeen ehunekoa ia 9 aldiz murrizten dela sare

publikoan, eta erdia baino zertxobait gehiago itunpeko sarean. Dena den, atzeritar jatorriko ikaslerik ez duten ikastetxeen ehunekoari dagokionez, bi sareen arteko aldeak gora egiten du Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara, eta ikasleen % 20 baino gehiago atzeritar jatorrikoak dituzten ikastetxeen ehunekoan dagoen aldea murriztu egiten da.




Lehen Hezkuntzako 4. maila

5.2.2.k. grafikoa

LH 4. ED19.

Matematikarako kompetentziako puntuazioaren eta ikastetxeko atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoaren arteko erlazioa, hezkuntza-sarearen arabera



2019ko Ebaluazio Diagnostikoan, *Matematikarako kompetentzian* lortutako puntuazioaren eta ikastetxean dauden atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoaren artean dagoen erlazioak bi gauza adieraztenditu: aldebatetik, ikastetxe publikoetan emaitza gehiago sakabanatzen dela itunpekoetan baino, eta, bestetik, atzeritar jatorriko


ikasleen ehunekoak emaitzetan duen eragina nabarmenagoa dela ikastetxe publikoetan itunpekoetan baino; eta, oro har, zenbat eta atzeritar jatorriko ikasle gehiago izan, emaitzak orduan eta okerragoak direla.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

5.2.2.l. grafikoa

DBH 2. ED19.

Matematikarako kompetentziako puntuazioaren eta ikastetxeko atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoaren arteko erlazioa, hezkuntza-sarearen arabera




DBHko 2. mailan, atzeritar jatorriko ikasleen ehunekoaren eta *matematikarako kompetentziaren* emaitzen arteko erlazioa are nabarmenagoa da ED19n, eta sare publikoaren eta itunpeko sarearen arteko aldeak ere nabarmenago egiten dira. Hau da, goragoko mailetan, ekitateak behera egiten du.

Lehen Hezkuntzako 4. maila

5.2.2.m. grafikoa

LH 4. ED19.

Matematikarako konpetentziako puntuazioaren eta ikastetxeko ISEKen arteko erlazioa, hezkuntza-sarearen arabera



Lotura argia dago ikastetxearen ISEK mailaren eta *Matematikarako konpetentziaren* emaitzen artean, eta erlazio hori nabarmenagoa da itunpeko ikastetxeetan ikastetxe publikoetan baino.


Ikastetxe publikoetan sakabanatzea handiagoa da hainbat puntutan, batik bat, ikasle gutxi dituzten hainbat ikastetxeren berezitasunagatik. Egoera hori gehiago gertatzen da Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan DBHko ikastetxeetan baino.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

5.2.2.n. grafikoa

DBH 2. ED19.

Matematikarako konpetentziako puntuazioaren eta ikastetxeko ISEKen arteko erlazioa, hezkuntza-sarearen arabera




Matematikarako konpetentzia lortutako puntuazioaren eta ikastetxearen ISEK mailaren arteko erlazioa hezkuntza-sarearen arabera aztertzen badugu ED19n emaitzetan oinarrituta, hainbat alderdi garrantzitsu azaleratuko zaizkigu. Lehenik eta behin, deigarria da ikastetxe publikoek gehieneko muga bat dutela ISEK mailari dagokionez eta, muga horretatik gora, ISEK goiko mailetan itunpeko ikastetxeak dira nagusi, Lehen Hezkuntzan ez bezala.

Bestalde, Lehen Hezkuntzan bezala, lotura argia dago *Matematikarako konpetentziaren* emaitzen eta maila sozioekonomikoaren artean. Zenbat eta maila sozioekonomiko handiagoa, orduan eta emaitza hobeak matematikan, baina Lehen Hezkuntzan ez bezala, lotura hori nabarmenagoa da ikastetxe publikoetan itunpekoetan baino.

5.2.2.ñ. grafikoa

DBH 2. ED19.

Matematikarako konpetentzia lortutako puntuazioaren eta ikastetxearen ISEK batez besteko mailaren arteko erlazioa



Grafikoan, ikastetxeek DBHko 2. mailako *Matematikarako konpetentzia* lortutako emaitzak jasotzen dira, ikastetxearen ISEK mailaren arabera. Hondoko kolore bakoitzak ISEK maila bat adierazten du. Grafikoan informazio interesgarri ugari daude. Alde batetik, *Matematikarako konpetentzia* eta ISEK mailaren arteko erlazioak honako hau adierazten du: ISEK mailak gora egiten den puntu bakoitzeko *Matematikarako konpetentziaren* puntuazioa 28,9 puntu handitzen da.

Era berean, ikastetxe baten egoera zein den ere ikusten da, duen ISEK mailarako espero den puntuazioaren arabera; horretarako, erregresio-zuzenaren eta lerro horren gaineko proiektzio bertikalaren eta aztertu beharreko puntuaren arteko mozketari erreparatu behar zaio.

Ikuspegi horretatik begiratuta, puntudun bi lerro txertatu ditugu, espero zen puntuaziotik 15 puntura, gutxi gorabehera. Ikastetxe baten posizioa aztertuz gero, A eremuan dauden

ikastetxeek beren ISEK mailarako espero zitekeena baino puntuazio hobea dute eta, beraz, zentro eraginkortzat jo daitezke. Era berean, zentro bat B eremuan baldin badago, esan daiteke bere puntuazioa ISEK mailarako espero zitekeena baino txikiagoa dela.


Ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan, bertako ikasleek atzerritar jatorriko ikasleek baino puntuazio hobeak lortzen dituzte, eta hori Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietan gertatzen da.

Hurrengo grafikoetan, atzerritar jatorriko ikasleek eta bertako ikasleek *Matematikarako konpetentzia*n izan dituzten emaitzen bilakaera aztertuko dugu.

5.2.2.o. grafikoa

LH 4. ED09-ED19.

Matematikarako konpetentziaren emaitzen bilakaera, ikasleen jatorriaren arabera




Atzerritar jatorriko ikasleen emaitzek okerrera egiten dute eskolatzean aurrera egin ahala: DBHko 2. mailan emaitzak apalagoak dira Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino.

Bertako ikasleen eta atzerritar jatorriko ikasleen batez besteko puntuazioen aldeak murriztu egin dira ED19n, ED09rekin alderatuta, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bai DBHko 2. mailan. Bestalde, bi ikasle mota horien emaitzen arteko aldeak handiagoak dira DBHko 2. mailan Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino.

5.2.2.p. grafikoa

DBH 2. EDO9-ED19.

Matematikarako konpentziaren emaitzen bilakaera, ikasleen jatorriaren arabera**5.3. Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren esparruan**

Zalantzan jarri ezina da ikastetxeek lorpen izugarriak egin dituztela hizkuntza-normalizazioaren arloan. 1981. urtetik dauden 300 000 euskal hiztun berrietatik, hirutik bi ikastetxeen ekarpenari esker euskaldundu dira. Gaur egun, VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 16-24 urteko biztanleen % 71,4 euskaldunak dira, hau da, 1991eko datuekin alderatuta hiru aldiz gehiago. Ildo horretan, Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) aurreikuspenen arabera, 2036an 24 urtetik beherako euskaldunen ehunekoa % 83,4ra iritsiko da.

Aurrerapen handi hori hezkuntza-komunitate osoaren ahaleginaren ondorioa da; hasteko, irakasleek hizkuntza-eskakizuna hobetzeko ahalegina egin dute (duela 40 urte, prozesuaren hasieran, % 8 baino ez zen gai euskaraz

irakasteko, eta gaur egun, berriz, % 95 inguru dago horretarako gaituta), eta gurasoek ere hizkuntza-eredu euskaldunen alde egin dute apustu irmoa (2017-18 ikasturtean, Haur Hezkuntzako ikasleen ia % 97 D eta B ereduetan eskolatuta zeuden, eta % 80 D ereduan).

Etap horretan lorpen handiak izan dira; irakasleen hizkuntza-gaikuntzan eraldaketa tipologikoa gertatu da, eta ikasleen profilean ere aldaketak izan dira hizkuntza-ikuspegitik begiratuta. Faktore horiek guztiak aintzat hartuta, hezkuntza-komunitate osoaren ikuspegia doitu beharko da, eskola eleaniztun baten erronka berriei aurre egiteko.

lido horretan, “VI. Inkesta Soziolinguistikoa”ren⁴⁴ arabera, euskaldunberrien presentzia oso esanguratsua da: 16-24 urteko adin-taldean, euskaldunen % 55,7k familia-ingurunetik kanpo ikasi dute euskara eta, askotan, euskarak presentzia txikia duen testuinguruetan bizi dira. Lehen aipatutako proiektioetan oinarrituta, 20 urtean 20 urtetik beherako biztanleen % 90 euskaldunak izango dira; dena dela, horietako asko elebidunak izango dira, gaztelania nagusi izanik, eta euskara ulertzeko gaitasun ezin hobe bai, baina ekoizpen-trebetasun mugatua izango dute; gainera, hain euskaldunak ez diren testuinguruetan integratuta egongo dira.

Testuinguru horretan, *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* emaitzak ikuspegi globalago batetik baloratu behar dira, elebitasunaren aurrerapena edo atzerakada kontuan hartuta; euskara hizkuntza gutxitua den testuinguru soziolinguistiko honetan, eta azken hamarkada hauetan garapen eta aurrerapen handia izan duen arren, gaur egun ere egoera diglosiko eta minorizatuan dago. Euskadiko egoeraren ezaugarrietako bat da, gainera, hizkuntza nagusiaren –gaztelaniaren– eta euskararen artean distantzia handiagoa dagoela.

Jarraian aurkeztuko dugun azterketa egiteko, bi elementu hartu ditugu oinarritzat: alde batetik, euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-konpetentzia erlatiboa adierazten duen elebitasun-tipologia eta, bestetik, euskararen irabazi eta galeren azterketa, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak erabiltzen dituen antzeko irizpideei jarraikiz, betiere 2019ko Ebaluazio Diagnostikora egokituta. Zehazki, zazpi kategoriatan barne hartzen dituen elebitasun-tipologia bat proposatu da. Hona hemen kategoriatan horien ezaugarri nagusiak, laburbilduta:

- ***Euskaraz eta gaztelaniaz gaitasunik gabeko ikasleak.*** Multzoz handi batek ez du gaitasunik, hau da, ez du hasierako maila gainditzen ez *Euskarazko* ez *gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*.
- ***Ikasle erdaldun elebakarrak.*** Multzoz horrek *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* hasierako maila gainditzen du *gaztelaniaz*; ez, ordea, *euskaraz*.
- ***Ikasle euskaldun elebakarrak.*** Multzoz horrek *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* hasierako maila gainditzen du *euskaraz*; ez, ordea, *gaztelaniaz*.
- ***Ikasle elebidun orekatuak.*** Multzoz horrek erdi-maila lortzen du bi konpetentzietan (*Euskarazko* eta *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*).
- ***Ikasle erdal elebidunak.*** Erdi-maila dute *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, eta maila aurreratua *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*.
- ***Ikasle euskal elebidunak.*** Maila aurreratua dute *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, eta erdi-maila *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*.
- ***Ikasle elebidun orekatu goi mailakoak.*** Ikasle horiek ere maila orekatua dute bi hizkuntza ofizialetan, baina aurreko multzokoek ez bezala, bi hizkuntzetan erdi-maila baitzuten, kasu honetan bietan maila aurreratua lortzen dute. Hortaz, *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* errendimendu handiena duen multzoa da, *euskaraz nahiz gaztelaniaz*.

44 VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskal Autonomia Erkidegoa (2016) https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ikerketa_soziolinguistikoak/eu_def/adjuntos/VI_INK_SOZLG_EAE_Aurkezpen publikoa_20161014.pdf

TIPOLOGIA	Errendimendu-mailak		Ikasleen %-a	
	Euskara	Gaztelania	LH 4	DBH 2
Euskaraz et gaztelaniaz gaitasunik gabeko ikasleak.	Hasierako maila	Hasierako maila	12,0	13,1
Ikasle erdaldun elebakarrak	Hasierako maila	Hasierako maila gainditu du	22,1	40,2
Ikasle euskaldun elebakarrak	Hasierako maila gainditu du	Hasierako maila	3,7	1,1
Ikasle elebidun orekatuak	Erdi-maila	Erdi-maila	24,8	20,2
Ikasle erdal elebidunak	Erdi-maila	Maila aurreratua	6,8	9,8
Ikasle euskal elebidunak	Maila aurreratua	Erdi-maila	14,7	4,9
Ikasle elebidun orekatu goi mailakoak	Maila aurreratua	Maila aurreratua	15,9	10,7

Elebitasunaren tipologiak korrelazio handia du zenbait aldagairekin, eta aldagai horiek, aldi berean, eragin handia dute *Zientziarako konpetentziaren*, *Matematikarako konpetentziaren* eta *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* emaitzetan. Izan ere, ISEK mailak, egokitasunak eta familia-hizkuntzak hein handi batean baldintzatzen dute ikasleen hizkuntza-konpetentzia bi hizkuntza ofizialetan.

Hurrengo taulan, elebitasunaren tipologietan sailkatutako ikasleak deskribatuko ditugu, beste aldagai batzuen arabera

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA (ED19)					
ELEBITASUN-TIPOLOGIAK BANAKAKO ISEKA	Banakako ISEKa	Adin- egokitasun egoera	Atzeritar jatorria	Familia- hizkuntza euskara	H1 (3 urte bete arte)
Euskaraz et gaztelaniaz gaitasunik gabeko ikasleak.	-0,55	81,4	16,0	18,2	32,5
Ikasle erdaldun elebakarrak	-0,28	87,5	14,6	8,0	21,2
Ikasle euskaldun elebakarrak	-0,06	94,8	7,2	50,1	67,5
Ikasle elebidun orekatuak	-0,02	94,9	9,2	20,5	40,7
Ikasle erdal elebidunak	0,26	97,6	8,0	5,0	21,4
Ikasle euskal elebidunak	0,29	98,7	4,7	48,2	69,9
Ikasle elebidun orekatu goi mailakoak	0,50	99,2	3,7	27,3	51,6
GUZTIRA	0,04	92,1	13,5	26,6	41,1

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA (ED19)

ELEBITASUN-TIPOLOGIAK	Banakako ISEKa	Adin-egokitasun egoera	Atzeritar jatorria	Familia-hizkuntza euskara	H1 (3 urte bete arte)
Euskaraz et gaitelaniaz gaitasunik gabeko ikasleak.	-0,47	64,5	11,3	13,0	34,6
Ikasle erdaldun elebakarrak	-0,10	80,4	10,7	6,5	26,9
Ikasle euskaldun elebakarrak	-0,08	90,9	4,8	47,8	74,0
Ikasle elebidun orekatuak	0,15	95,1	4,5	23,5	53,5
Ikasle erdal elebidunak	0,35	95,9	4,9	10,6	35,1
Ikasle euskal elebidunak	0,40	99,1	1,9	45,9	73,7
Ikasle elebidun orekatu goi mailakoak	0,58	99,1	2,1	25,0	56,9
GUZTIRA	0,04	92,1	13,5	26,6	40,2

- *Euskaraz eta gaitelaniaz gaitasunik gabeko ikasleek* dute ISEK mailarik txikiena, baita errepikatzeen eta atzeritar jatorriko ikasleen ehunekorik handienak ere.
- *Ikasle erdaldun elebakarrek* aurrekoaren antzeko profila dute, baina balioak ez dira hain muturrekoak.
- *Ikasle elebidun orekatu goi mailakoek*, bi etapetan, ISEK maila handiena dute, errepikatzeen tasa txikienetako bat eta atzeritar jatorriko ikasleen ehuneko txikia.
- *Ikasle elebidun orekatuek*, bi etapetan, batez besteko balioak dituzte ia aldagai guztietan.
- *Ikasle euskal elebidunek*, LHko 4. mailan, gaitelania nagusi duten ikasle elebidunen antzeko ISEK maila dute, eta DBHko 2. mailan, berriz, goi-mailako ikasle elebidun orekatuen antzeko ISEK maila. Bi etapetan, adin-egokitasunaren tasarik handienetako bat du, atzeritar jatorriko ikasleen tasarik txikienetako bat (DBHko 2. mailan txikiena) eta familia-hizkuntza euskara dutenen ehunekorik handienetako bat (DBHko 2. mailan handiena).
- *Ikasle erdal elebidunek* ikasle euskal elebidunen antzeko ISEK maila dute, adinegokitasunaren tasa handia, atzeritar jatorriko ikasleak % 8 dira LHko 4. mailan, eta % 4,9 DBHko 2. mailan, eta familia-hizkuntza euskara dutenen ehuneko txikia (LHko 4. mailan % 5, eta DBHko 2. mailan % 10,6).


Azterketan nabarmendu den beste ondorio nagusietako bat zera da, familia-hizkuntzak eta lehen hizkuntzak elebitasun maila baldintzatzen dutela. Alegia, familia-hizkuntzak eta lehen hizkuntzak (H1) asko baldintzatzen dutela euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-gaitasun erlatiboa.

Hurrengo grafikoetan, H1 euskara edo beste hizkuntza bat duten ikasleen ehunekoa aurkezten da. H1 honako hau da: 3 urte bete aurretik ikasitako lehen hizkuntza.

5.3.a. grafikoa

LHko 4. maila. ED19.


H1 euskara duten ez duten ikasleen ehunekoa



- Lehen Hezkuntzako 4. mailako erdaldun elebakarren % 78,8ren H1 euskara ez den beste hizkuntza bat izan da; beste horrenbeste gertatzen da euskaraz eta gaztelaniaz gaitasunik gabeko ikasleen 2/3 baino gehixeagoren kasuan (% 67,5); baita erdal elebidunen kasuan ere (% 78,6).
- Euskal elebakarren % 67,5en kasuan, euskara izan da lehen hizkuntza, eta euskal elebidunen % 69,9ren kasuan ere bai.
- Azkenik, ikasle elebidun orekatuen % 40,7ren eta elebidun orekatu goi mailakoen % 51,6ren H1 euskara izan da.

5.3.b. grafikoa

DBHko 2. maila. ED19.

H1 euskara duten eta ez duten ikasleen ehunekoa


- DBHko 2. mailako ikasle erdaldun elebatarren % 73,1en H1 euskara ez den beste hizkuntza bat izan da; beste horrenbeste gertatzen da euskaraz eta gaztelaniaz gaitasunik gabeko ikasleen 2/3 ingururen kasuan (% 65,4); baita erdal elebidunen kasuan ere (% 64,9).
- Euskaldun elebatarren % 74ren kasuan, euskara izan da lehen hizkuntza, eta euskal elebidunen % 73,7ren kasuan ere bai.
- Azkenik, ikasle elebidun orekatuen % 53,5en eta elebidun orekatu goi mailako ikasleen % 56,9ren H1 euskara izan da.

Bestalde, familia-hizkuntza euskara izatearen aldagaian honako familia hauek sartzen dira: gutxienez gurasoetako batek, amak edo aitak, euskaraz hitz egiten duten eta etxean euskaraz nahiz gaztelaniaz edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten duten familiak.

Hurrengo grafikoetan, ikasleen ehunekoa familia-hizkuntzaren arabera aztertuko dugu, eta hezkuntza-sistemak elebitasunari egiten dion ekarpena agerian geratuko da.


5.3.c. grafikoa

LHko 4. maila. ED19.

Familia-hizkuntza euskara duten eta ez duten ikasleen ehunekoa

5.3.d. grafikoa

DBHko 2. maila. ED19.

Familia-hizkuntza euskara duten eta ez duten ikasleen ehunekoa

- Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 22,7k euskara dute familia-hizkuntza (4353 ikasle), eta DBHko 2. mailan ez da % 16ra iristen (2845 ikasle). Beraz, ikasle gehienek ez dute euskara familia-hizkuntza (LH 4ko 14 864 ikaslek eta DBH 2ko 15 409 ikaslek).
- Aldiz, LH 4ko ikasleen % 65,7k (13 040 ikasle) eta DBH 2ko ikasleen % 46,5ek (8836) gainditzen dute euskararen hasierako maila, nahiz eta haien familia-hizkuntza euskara ez izan.
- Ikasle erdal elebakarrei dagokienez, LH 4koen % 92,0 eta DBH 2koen % 93,5ek euskara ez den beste familia-hizkuntza bat dute; beste horrenbeste gertatzen da euskaraz eta gaztelaniaz gaitasunik gabeko ikasleekin (LHko 4. mailan % 81,8 eta DBHko 2. mailan % 87,0); baita erdal elebidunekin ere (% 95 eta % 89,4, hurrenez hurren).
- Familia-hizkuntza euskara dute LHko 4. mailako ikasle euskal elebakarren % 50,1ek eta DBHko 2. mailako ikasle euskal elebakarren % 47,8k, baita LHko 4. mailan euskal elebidunen % 48,2k eta DBHko 2. mailan euskal elebidunen % 45,9k ere.

- Azkenik, ikasle elebidun orekatuei dagokienez, LH 4ko % 20,5en eta DBH 2ko % 23,5en familia-hizkuntza euskara da, eta elebidun orekatu goi mailako ikasleen kasuan, LH 4ko % 27,3rena eta DBH 2ko % 25ena.

ISEI-IVEIk agerian uzten duen beste ondorio bat da gehiago direla euskarara bildu direnak, euskara galdu dutenak baino.

Familia-hizkuntzaren aldagaia elebitasun-tipologiarekin gurutzatuz gero, euskara galtzeko eta mantentzeko prozesuak ebaluatu daitezke, baita euskara maila gehitzeko edo euskarara erakartzeko prozesuak ere.


Azken batean, azterketa horri esker, hezkuntza-sistemak elebitasunari egiten dion ekarpena ebaluatu daiteke, elebitasuna helburutzat proposatu baitzen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legean (10/1982 Legea).

Hurrengo grafikoan, LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen galdu-irabazien azterketaren emaitzen bilakaera ikus daiteke, ebaluazio diagnostikoen edizio guztietan.

5.3.e. grafikoa

LHko 4. maila eta DBHko 2. maila.
ED09-ED19.

Euskararen galeren eta irabazien bilakaera.



- la edizio guztietan, euskarara erakarria gailendu da; LHko 4. mailan % 40 eta DBHko 2. mailan % 26 inguru izan da. Ehunekoa etengabe murriztu da 2009tik 2015era bitarte. Azken edizio honetan (ED19), LHko 4. mailan, % 47,2ra igo da eta, hala ere, DBHko 2. mailan behera egin du, orain arteko ehunekorik txikienera (% 33,6).
- Euskara mantendu duten ikasleen ehunekoa jaitsi egin da azken edizioan, bai LHko 4. mailan, bai DBHko 2. mailan (% 18,6 eta % 13,1, hurrenez hurren). LHko 4. mailan, ehunekoa ED09koa baino handixeagoa da, baina DBHko 2. mailan edizio guztien artean txikiena da.
- LHko 4. mailan euskara galdu dutenen ehunekoa % 3,9ra jaitsi da edizio honetan (ED19), ED17ko % 6,1etik. DBHko 2. mailan, berriz, gora egin du aurreko edizioarekin alderatuta, eta galera-ehunekoa izan da handiena, ED15ekoarekin batera (% 5,3).

ED19ren arabera, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasle gehienak (% 74,5 eta % 70,7, hurrenez hurren) D ereduan daude eskolatuta. Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan, ikasleen ehunekorik handiena duen eredua D eredua da (% 47,9 eta % 42,2, hurrenez hurren).

Abiapuntutzat hartzen badugu euskarazko eta/edo gaztelaniazko hasierako mailan dauden ikasleek ez dutela lortzen sistema osorako ezarritako elebitasunaren helburua, elebidunen tipologiako lehen hiru kategoriak (euskaraz eta gaztelaniaz gaitasunik gabeko ikasleak, ikasle erdaldun elebakarrak eta ikasle euskaldun elebakarrak) honako honen adierazletzat hartu beharko lirateke: hezkuntza-sistemak, bere kabuz, ez duela elebitasunaren helburua betetzen.

- DBHn, elebitasunaren helburua ez da lortu A geruza publikoaren % 96,3n, B geruza publikoaren % 83n, itunpeko A geruzaren % 82,6n, ezta itunpeko B geruzaren % 64,3n. Baina D ereduak ere ez du bermatzen elebitasunaren helburu hori lortzea, ez baita bete D geruza publikoaren % 49,1en eta itunpeko D geruzaren % 57,8n.
- Lehen Hezkuntzan egoerak hobera egin du, hein batean, baina elebitasunaren helburua ez da lortu oraindik ere A geruza publikoaren % 96,2n, itunpeko A geruzaren % 52,7n eta B geruza publikoaren % 65,1en. Aldiz, itunpeko B geruzaren % 56,0k lortu du helburua, baita D publikoaren % 67,2k eta itunpeko Dren % 76,4k ere.

Ikasleak banatzen diren elebitasun-tipologiaren zazpi kategorien ezaugarriak oso bestelakoak direla ikusita, eta elebidun mota desberdinak geruza oso desberdineko ikastetxeetan eskolatzen direla ikusita, tresnak eta neurriak

diseinatu behar dira, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* hobetzea ahalbidetuko duten erantzun malguak eta egokituak eman ahal izateko.

Beste ondorio bat: joera orokorrak D ereduan ere errepikatzen dira.


D eredua euskal hezkuntza-sistemaren bizkarrezurra da, eta maila guztietan da nagusi. Euskarazko murgiltze-sistema bat da, testuinguru soziolinguistiko jakin batean ezartzen dena, eremu askotan euskara hizkuntza minoritarioa izanik, oraindik ere, eta minorizatua Euskadi osoan.

Hurrengo grafikoetan, sare publikoko eta itunpeko sareko D ereduan eskolatutako ikasleen ehunekoaren bilakaera ikus daiteke, elebitasun-tipologiaren arabera.

5.3.f. grafikoa

LHko 4. maila eta DBHko 2. maila. ED09-ED19.


Ikasleen ehunekoaren bilakaera, elebitasun tipologiaren arabera, D eredu publikoan



5.3.g. grafikoa

LHko 4. maila eta DBHko 2. maila. ED09-ED19.

Ikasleen ehunekoaren bilakaera, elebitasun tipologiaren arabera, itunpeko D ereduan




- D ereduan euskaraz eta gaztelaniaz gaitasunik gabeko ikasleen ehunekoa gora egiten ari da EDren azken edizioetan, bi sareetan eta bi etapetan. Azken ehunekoak, oro har, Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietako handienak dira.
- DBHko 2. mailako D ereduan, ikasle erdaldun elebakarren kopuruak nabarmen egin du gora, bai sare publikoan, bai itunpekoan. Sare publikoan, ED09ko % 16tik ED19ko % 36ra igo da, eta itunpeko sarean, % 13,5etik % 30,7ra. Lehen Hezkuntzako 4. mailan ere gorakada izan da bi sareetan, baina azken edizioan (ED19) ikasle horien ehunekoak behera egin du aurreko edizioarekin alderatuta (% 26tik % 18,7ra sare publikoan, eta % 18tik % 13,4ra itunpeko sarean). Hala eta guztiz ere, ikasle erdaldun elebakarren ehunekoa lehen ediziokoa (ED09) baino handiagoa da, oraindik ere, bi etapetan eta bi hezkuntza-sareetan.
- D ereduan eskolatutako ikasle euskaldun elebakarren ehunekoa igotzen ari da Lehen Hezkuntzako 4. mailan bi hezkuntza-sareetan, baina DBHko 2. mailan kontrakoa gertatzen ari da.
- Ikasle elebidun orekatuen ehunekoa jaisten ari da bi sareetan eta bi etapetan, eta ED19an, ikasle horiek Ebaluazio Diagnostikoaren edizio guztietako ehunekorik txikienak dituzte. Azken edizioan (ED19), aurreko edizioarekin alderatuta, behera egin du ikasle erdal elebidunen kopuruak eta, aitzitik, gora egin du ikasle euskal elebidunen kopuruak. Bi joera horiek bai LHko 4. mailan, bai DBHko 2. mailan gertatzen dira, eta bi hezkuntza-sareetan.
- Ikasle elebidun orekatu goi mailakoen ehunekoak gora egin du LHko 4. mailan, eta behera DBHko 2. mailan, bi hezkuntza-sareetan.

Hurrengo grafikoan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* emaitzen bilakaera ikusiko dugu, D geruza publikoan eta itunpekoan.

5.3.h. grafikoa

LHko 4. maila eta DBHko 2.maila. ED09-ED19.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera, D geruza publikoan eta itunpekoan



Grafikoan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako 4. mailan puntuazioak murriztu egiten dira ED19ra arte, bai D estratu publikoan (ED10etik), bai itunpekoan (ED11tik). Azkeneko edizioan (ED19), 5 puntuko igoera izan da bi geruzetan ED17rekin alderatuta.

Egoera bestelakoa da DBHko 2. mailan. Maila horretan, puntuazioak behera egiten du arian-arian ED10etik, eta ED19an lortutako emaitzak edizio guztietako txikienak dira bi geruzetan (244 D geruza publikoan eta 254 itunpeko D geruzan). Aurreko edizioarekin alderatuta, 10 puntuko galera gertatu da D geruza publikoan, eta 11 puntukoa itunpeko D geruzan.

Bi etapetan, sare publikoko D ereduak emaitzak txikiagoak dira itunpeko sarekoak baino.

Aztertu behar den gaia zera da, ea denbora honetan guztian funtsezko aldaketarik gertatu ote den bi geruza horietan eskolatzen diren ikasleen ezaugarrietan, batez besteko puntuazioaren beherakada zergatik gertatu den argitu dezaketenak.

D eredu publiko eta itunpekoaren hainbat aldagairi (egokitasuna, jatorria, ISEKa, familia-hizkuntza, hizkuntza-erabilera) buruzko datuak hartu eta 2009koak eta 2019koak konparatuz gero, ikus daiteke ikasle aniztasun handiagoa

dagoela duela urte batzuk baino, eta horrek eragina izan dezake geruza horien puntuazio-galeran, bereziki sare publikoan. Gogoratu behar da adinaren egokitasunaren aldagaiak eragiten duela arrakala handiena, 47 puntu inguru gaitasun honetan 2019an bi etapetan, eta 56 puntu baino pixka bat gehiago DBHko 2. mailako ikasleen kasuan –bi ikasturteko atzerapena dute–; adinaren egokitasunaren atzetik, familiaren jatorriaren aldagaia dator, 24 puntu pasatxoko arrakala eragiten baitu Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta 30 puntu pasatxokoa DBHko 2. mailan.

Azkenik, ikastetxeetako euskararen erabilerari dagokionez, beheranzko joera ikusten da eta, azken batean, hizkuntza-gaitasun honen emaitzak baldintzatzen ditu horrek.


Hurrengo grafikoan, ikastetxeetako euskararen erabilerak Ebaluazio Diagnostikoaren azken bost edizioetan izan duen bilakaera aurkeztuko dugu, betiere Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek galdera-sortan emandako erantzunaren arabera.

Bilakaera nahiko egonkorra da bi etapetan, baina euskararen erabileraren ehuneko guztietan jaitsiera txiki bat ikusten da ED19an, ED17rekin alderatuta.

5.3.i. grafikoa

LHko 4. maila eta DBHko 2. maila. ED09-ED19.

Euskararen erabileraren bilakaera ikastetxean



Azterketek agerian uzten dute hezkuntza-sistemaren ekarpena, oso esanguratsua izan arren, ez dela nahikoa, bere kabuz, ikasleen elebitasuna bermatzeko.

Izan ere, euskal hezkuntza-sistemak milaka hiztun berri izaten ditu urtero, maila guztietan, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn. Baina EAEko hainbat eremu soziolinguistikotan euskara egoera minoritarioan eta minorizatuan dagoela kontuan hartuta, eta lehen hizkuntzak eta familia-hizkuntzak seme-alaben elebitasunean duten eragina kontuan hartuta, ezin du bermatu, bere kabuz, ikasle guztiak elebidun


bihurtuko direnik. Ezin du bermatu, halaber, ez dela galerarik egongo familia-hizkuntza euskara duten ikasleen artean, ezta D ereduan ere.

Azkenik, 2019ko Ebaluazio Diagnostikoaren arabera, euskararen erabilerak lotura zuzena du gaitasun honen emaitzekin. Horrela, bada, ikastetxeetan euskara erabiltzea oso garrantzitsua dela egiaztatu da, hizkuntza ikasi ahal izateko. Eragin hori handixeagoa da DBHn: $R^2=0,5962$ eta $R^2=0,4996$.

5.3.j. grafikoa

LHko 4. maila. ED19.


Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako puntuazioaren eta "euskararen erabilera, oro har, ikastetxean" adierazlearen beheko kuartilean dauden ikastetxeko ikasleen ehunekoaren arteko erlazioa



5.3.k. grafikoa

DBHko 2.maila. ED19.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako puntuazioaren eta "euskararen erabilera, oro har, ikastetxean" adierazlearen beheko kuartilean dauden ikastetxeko ikasleen ehunekoaren arteko erlazioa

**5.4. Ikastetxeen digitalizazioa**

Informazioaren eta Jakintzaren Gizartea gaur egungo gizartean gertatzen ari den eraldaketa handienetako bat da. Jakintza edo ezagutza salgaririk baliotsuena bihurtu da, eta heziketa da hura eskuratzeko eta ekoizteko bidea. Ezagutzan oinarritutako ekonomia lehen mailako helburu bihurtu da, eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) ezagutza hori sustatzeko tresna indartsuak dira.

Horrela, bada, euskal hezkuntza-sistemaren diagnostikoan funtsezkoa da gaitasun digitalaren ezarpena aztertzea, eta hori ez da ebaluatzen baliabide horien erabilaren eta erabilera-maiztasunaren irizpide kuantitatiboen arabera, baizik eta baliabide horiek aplikatzeko kaudimenaren arabera.

5.4.1. Ikastetxeen heldutasun teknologikoa

174/2012 Dekretua, irailaren 11koa, ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak (IKT heldutasuneko ereduak) onartzen dituena, eta ikastetxeetako heldutasun-mailak egiaztatzeko ziurtagiriak eta zigiluak ezartzen dituena.

Irakaskuntza, administrazio eta komunikazioko prozesuak digitalizatzeko, zein mailatan erabiltzen duten ikastetxeek teknologia-baliabideak, halako IKT heldutasun-maila izango dute. Maila bat erdiesteko, aurreko maila egiaztatuta izan beharko da.

Ikastetxe publiko nahiz pribatuen IKT heldutasun-mailaren egiaztapenak egin diren urte hauetan guztietan, guztira **683 ikastetxek** lortu dute ziurtagiriren bat, eta unibertsitateaz kanpoko euskal hezkuntza-sistemak **1291 ziurtagiri** lortu zituen, guztira, 2012. urtetik 2020. urtera bitarte.

Urtea	Ziurtagiri kop.
2012	209
2014	285
2015	87
2016	222
2017	303
2018	132
2020	53
GUZTIRA	1291

Ziurtagiri horiek teknologia-heldutasunaren 3 mailatan sailkatzen dira:


- **Oinarrizko maila** «Trobatzea eta erabiltzea»: maila honetan, irakasteko materialak eta administrazioak digitalizatzen hasiko dira ikastetxeak. Ikastetxean eskura dauden baliabide informatikoak erabiliko dituzte irakasleek: IKT gelak, ikasgeletako ordenagailuak, arbel digitalak, multimedia proiektagailua, eta abar. Hezkuntza-komunitatearekin dituzten harremanetan aplikazio informatikoak erabiltzen hasiko dira, bai Sailak jarritakoak, bai ikastetxeak berak jarri dituen beste batzuk; hala ere, aldi batean, beste konponbide tradizional batzuetara jo ahal izango da.
- **Tarteko maila** «Ikasgelak digitalizatzea»: maila honetan, ahaleginak egingo dira ikasgeletan, eta IKTak erabiliko dira curriculumeko arloak lantzeko. Orokortu egingo da ikasgai guztietan IKTak eta bereziki Internet erabiltzea, eta ikasgeletan, berriz, teknologia-baliabideak izango dituzte, Internet egunero erabiltzeko. Espazioaren eta denboraren kontzeptua eskola-orduetatik haratago doa; horrenbestez, hezkuntza-plataformen bidez (teleprestakuntza, blogak, intranet-estranet, wikiak...), kanpokoei zabaltzen zaizkie ikasgelako ateak. Irakasleek eta familiek on line eskura ditzakete ikastetxeko informazio jakin batzuk edota ikasgaiei buruzkoak (esate baterako, ikastetxearen webgunean, taldearen webgunean, buletin elektronikoetan, blogetan eta abarretan begiratuta).
- **Maila aurreratua** «Ikastetxea birtualizatzea»: maila honetan, irakaskuntza, kudeaketa, administrazio eta komunikazioko prozesu guztietan erabiliko dira IKTak. Ikastetxeak, bere proiektuaren barruan eta duen autonomia erabiliz, aurreikusi egingo du langile guztiek IKTak orokorrean erabiltzea, eta erabili ere aipatutako prozesu horietan guztietan. Ikastetxeak hezkuntza-plataforma du, hezkuntza-komunitateko gainerako eragileekin etengabe eta noranzko bietan komunikatzeko.

Unibertsitateaz kanpoko euskal hezkuntza-sistemak lortutako ziurtagirien banaketa jasotzen da hurrengo irudian: ikastetxeek lortutako gehieneko ziurtagirien % 55,2 tarteko mailakoak dira, eta ikastetxeen ia laurden batek lortu dute ziurtagiri gorena (maila aurreratua).

5.4.1.a. grafikoa

Hezkuntza Sailaren datuak. 2021eko maiatza.

Ikastetxeen tasa, lortutako ziurtagirien gehieneko mailaren arabera.



5.4.2. Sakabanaketa teknologikoa

Ikastetxeetan gaitasun digitala ezartzearen beste alderdi azpimarragarri bat ikasleen sakabanaketa teknologikoa izan daiteke. Epigrafe horren barruan sartzen da zentroak teknologia berriak ezartzeko erabiltzen ari diren teknologien (hardwarea, sistema eragileak, soluzioak hodeian...) aldeko apustua.

Horrela, bada, 2021eko Ebaluazio Diagnostikoan unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako 4. mailetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailetan egindako inkesten arabera, erabiltzen dituzten teknologia edo sistema teknologiko nagusiak bi dira: Oinarrian Windows duten sistemak, eta Chromebook gailuetan oinarritutako sistemak.

Aukera nagusia Chromebook-en erabilera da, eta aukera horretan sartzen dira Chromebook hardwarez hornitutako ekipok ez ezik, hainbat


soluzioren bitartez –Cloud Ready, esaterako– “chromebookizatu” diren PC motako ekipok ere; izan ere, hardware zaharra (eskola 2.0 ordenagailu zaharrak, kasu) berrerabiltzea ahalbidetzen du, eta beste sistema eragile batzuekin ez lirateke hain erabilgarriak izango.

Bi aukera nagusi horiekin batera, beste bi aukera ere badaude (% 8 eta % 4): PC ordenagailuak Windows sistema eragilerik gabe erabiltzea (Linux, batez ere) eta iPad-ak erabiltzea.

Aipatzekoa da, halaber, hainbat ikastetxek plataforma teknologiko desberdinak aukeratzen dituztela hezkuntza-mailaren arabera. Adibidez, Lehen Hezkuntzarako Chromebook-ak erabiltzen dituzte eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan iPad-ak.

5.4.2.a. grafikoa

ED21.

Plataforma informatikoen erabileraren ehunekoa ED21ean**5.4.3. WIFI konektagarritasuna**

Ebaluazio Diagnostiko bakoitzarekin, ISEI-IVEIk wifi konektagarritasunari buruzko inkesta bat egiten du Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan ikasleak dituzten ikastetxe guztietan. 2021ean, horri buruzko datu hauek jaso dira:

WIFI konektagarritasuna	Ikastetxeen %-a
Arazorik gabe	84,0
Arazoak noizean behin	14,6
Konektagarritasunik ez	1,3

Informazio horretatik honako ondorio hau ateratzen da: ia ikastetxe guztiek badute haririk gabeko konexioa aipatutako gela horietan, eta gela horien %15ek, gutxi gorabehera, zailtasunak dituzte noizean behin konektatzeko, edo ez dute wifi bidezko konexiorik. Kasu askotan, ethernet (kable bidez) konexioa izaten dute.


WIFI konektagarritasuna (%-ak)	LH. PUBL.	LH. ITUN.	DBH. PUBL.	DBH. ITUN.
Arazorik gabe	83,2	88,1	83,2	90,7
Arazoak noizean behin	15,5	10,0	16,0	8,8
WIFI konexiorik ez	1,2	2	0,8	0,5

Hezkuntza-sarearen arabera, ikastetxe itunduetan ikastetxe gehiagok ez dute inolako konexio-arazorik, baina aldi berean ikastetxe gehiagok ez dute konexiorik.

5.4.3.a. grafikoa

ED21.

WIFI konektagarritasuna




5.4.4. Euskadiko etxeetako hornidura

5.4.4.a grafikoa

EUROSTAT.

Interneterako sarbidea duten etheen %-aren bilakaera Euskadin




2016. urtetik 2020. urtera, EUROSTATEk egindako biztanleria-inkestaren arabera, Interneterako sarbidea duten etxeen portzentaia % 83 izatetik 2020an % 95 izatera iritsi da, eta urtez urte etengabe egin du gora.

Era berean, eta inkesta beraren arabera, Interneterako banda zabalaren bidezko sarbidea duten etxeen ehunekoak ere gora egin du urtetik urtera, 2020an % 95eko ehuneko berera iritsi arte.

5.4.4.b. grafikoa

EUROSTAT.

Interneterako banda zabaleko sarbidea duten etxeen %-aren bilakaera Euskadin




6. Eranskinak



1. GRAFIKOA:

Helduen (25-64 urte) prestakuntza-mailaren bilakaera (2000, 2009 y 2019)

Gizarteen eta pertsonen garapenean gehien eragiten duten faktoreetako bat helduen prestakuntza-maila da. Zenbat eta hezkuntza-maila handiagoa, orduan eta enplegu-tasa handiagoa, soldata handiagoak, parte-hartze handiagoa gizartean, osasun-egoera hobea, desparekotasun desberdintasun txikiagoa gizartean...



Iturria:

EUROSTAT.

A1.1 taularen laburpena eta OCDE, Education at a Glance [database]. Euskadiren kasuan, EUROSTATen datuak*. EUROSTAT*: Population aged 25-64 by educational attainment level, sex and NUTS 2 regions (%) [edat_lfse_04].


2019. urtean, Euskadin unibertsitate-ikasketak dituzten 25-64 urteko biztanleen ehunekoa (% 50,8) ELGAkoa baino 11,2 puntu handiagoa da, eta EB-23koa baino 13,4 puntu handiagoa. Bigarren hezkuntzako bigarren zikloari zein tertziario ez diren bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketei dagokienez, 2019an, EB-23k du ehunekorik handiena (% 44,8), ondoren ELGAk (% 42,3) eta, azkenik, ehuneko askoz ere txikiagoekin, Espainiak (% 22,7) eta Euskadik (% 21,3). Ehuneko txikienetik handienara ordenatuta, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzako lehen etapan hone-l geratzen dira: EB-23 (% 18,3), ELGA (% 21,9), Euskadi (% 27,9) eta Espainia (% 38,7).

Bilakaerari buruzko datuetan (2000-2009-2019) ikus daitekeenez, kasu guztietan behe-mailen ehunekoek behera egin dute, eta hirugarren mailako hezkuntzaren ehunekoek, berriz, gora. Bigarren hezkuntzako bigarren etaparen eta hirugarren mailakoa tertziarioa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko etaparen kasuan, ehunekoak gutxi aldatu dira, baina goranzko joera izan dute, EB-23 eta ELGAren kasuetan izan ezik; izan ere, 2019an, 2009ko datuekin alderatuta, 2,4 puntu eta 3,7 puntu jaitsi baitira, hurrenez hurren.

2.1. GRAFIKOA:

Helduen (30-34 urte) guztizkoaren banaketa, hezkuntza-mailaren arabera (2019)

Aztertutako adin-taldea gazteagoa denean (30-34 urte), kualifikazio-mailak hobera egiten du



Ehuneko txikienetik handienara ordenatuta, haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzako lehen etapan.

Iturria:

EUROSTAT.

Oharra: Herbehereak (d) seriearen haustura.


EB*: EB-23 (25-64 urte) eta EB-27 (30-34 urte) alderatzen ari gara.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketak eta Bigarren Hezkuntzako lehen etapako ikasketak dituzten biztanleen ehunekoek behera egin dute, eta gora, berriz, hizkuntza tertziarioa lortu dutenen ehunekoek. Euskadin, % 27,9tik % 21,2ra jaitsi da; hau da, oinarritzko prestakuntza-maila duen biztanleriaren ehunekoak 6,7 puntu egin du behera, eta prestakuntza tertziarioa duen biztanleriaren ehunekoa, berriz, % 50,8tik % 59ra igo da, hau da, 8,2 puntu. Beste horrenbeste gertatzen da Espainian eta EBn, 6 eta 2,1 puntu jaitsi baitira oinarritzko hezkuntzan, eta 6,1 eta 2,9 puntu igo hezkuntza tertziarioan, hurrenez hurren.

Grafikoan agertzen diren herrialdeetatik eta EB-27ko batez bestekotik, Euskadik du ehunekorik handiena prestakuntza tertziarioa duten 30-34 urteko biztanleen kasuan (% 59), Zipre (% 58,8) eta Lituania (% 57,8) atzetik dituela. Hala ere, oinarritzko hezkuntza duten biztanleen ehuneko handienak dituzten herrialdeetako bat da (% 21,2); EB-27ren gainetik dago (% 16,2), baina Espainiaren azpitik (% 32,7).

2.2. GRAFIKOA ETA TAULA:

Helduen (30-34 urte) banaketa generoaren arabera, hezkuntza-maila kontuan hartuta (2019)



Ehuneko txikienetik handienara ordenatuta, haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzako lehen etapan, honako genero honen arabera: "Gizona".

Grafiko honetan, 30-34 urteko biztanleria hezkuntza-mailaren eta generoaren arabera banatuta agertzen da. Alde handiagoarekin edo txikiagoarekin, herrialde guztietan eta EB-27ko batez bestekoan, emakumeek gizonak gainditzen dituzte hezkuntza tertziarioan. Bigarren hezkuntzako bigarren etapan eta hezkuntza tertziarioa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko etapan, gizonak iristen dira prestakuntza-maila hori burutzeraz, emakumeak baino hein handiagoan, Alemanian

(0,3 puntu) eta Euskadin (5,9 puntu) izan ezik; izan ere, azken horietan emakumeen proportzioa handiagoa baita gizonena baino. Beste horrenbeste gertatzen da oinarritzko hezkuntza-mailan, gizonen ehunekoak emakumeenak baino handiagoak direnez; Txekiar Errepublika (0,2 puntu), Austria (1,1 puntu) eta Bulgaria (0,4 puntu) salbuespenak dira, horietan emakumeek gizonen baino ehuneko handiagoan lortzen baitute hezkuntza-maila hori.

Euskadin, gizonen eta emakumeen proportzioaren arteko aldea portzentajezko 8,3 puntu da: gizon gehiago emakumeak baino oinarritzko hezkuntzaren mailan. Portzentajezko 5,9 puntuko aldea dago emakumeen alde bigarren hezkuntzan; hezkuntza tertzarioan ere horixe bera gertatzen da, non emakumeek gizonen baino 2,4 puntu gehiago baitituzte.

2019 30-34 urte	Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako lehen etapa		Bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta tertzarioa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko hezkuntza		Hezkuntza tertzarioa	
	G	E	G	E	G	E
Polonia	6,0	3,9	56,8	39,7	37,2	56,4
Kroazia	6,1	5,6	69,2	52,7	24,7	41,8
Eslovenia	6,1	4,9	59,4	38,0	34,5	57,1
Txekiar Er.	6,5	6,7	64,0	52,3	29,5	41,0
Lituania	6,9	4,6	46,2	25,9	46,9	69,5
Eslovakia	9,5	9,5	58,3	42,3	32,2	48,3
Irlanda	10,0	7,0	39,1	33,3	50,8	59,7
Austria	10,8	11,9	49,8	42,5	39,3	45,6
Finlandia	11,5	6,9	49,9	36,5	38,6	56,6
Letonia	12,1	7,1	52,9	35,9	35,0	57,0
Grezia	12,3	11,4	51,0	39,2	36,7	49,3
Hungaria	12,3	11,7	60,5	48,4	27,2	39,8
Suedia	12,6	10,7	41,9	29,4	45,5	59,9
Luxenburgo	13,3	13,1	32,3	29,0	54,5	57,9
Alemania	13,6	12,4	51,3	51,6	35,1	35,9
Herbehereak	13,7	12,3	38,8	32,5	47,6	55,2
Frantzia	14,5	11,2	43,1	36,5	42,4	52,3
Zipre	15,1	8,9	36,0	22,9	49,0	68,2
Erresuma Batua	15,5	12,6	37,9	34,2	46,6	53,3
Belgika	16,7	13,1	43,4	31,7	39,8	55,2
Estonia	17,0	7,5	49,4	32,5	33,5	60,0
Norvegia	17,2	13,5	41,1	29,6	41,7	56,9
Bulgaria	17,6	18,0	55,9	43,0	26,4	39,0
EB-27	18,0	14,4	47,0	39,9	35,1	45,6
Danimarka	19,5	14,6	39,3	28,2	41,2	57,1
Errumania	23,2	23,5	54,7	46,8	22,2	29,8
Euskadi	25,4	17,1	16,8	22,7	57,8	60,2
Italia	30,3	22,9	48,1	43,3	21,6	33,8
Portugal	34,8	23,8	35,5	33,7	29,7	42,5
Malta	36,0	22,6	32,2	31,9	31,8	45,6
Espainia	38,7	26,7	22,8	22,5	38,5	50,8

Ehuneko txikienetik handienera ordenatuta, haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzako lehen etapan, "Gizona" generoaren arabera.

Iturria:

EUROSTAT ((%) [edat_ifse_04]).

Oharra: Herbehereetan (d), seriearen haustura. Kroaziako generoaren arabera datuak konparagarritasuneko arazoak dituzte.

“Emakumea” generoa izanik erreferentzia, oinarrizko hezkuntza-mailan, Euskadi (% 17,1) EB-27 (% 14,4) baino beherago dago, eta Espainia (% 26,7) baino gorago. Erdi-mailako hezkuntzan, Euskadi (% 22,7) Espainiaren mailan dago (% 22,5) eta EB-27tik portzentajezko 17,2 puntura (% 39,9). Eta goi-mailako hezkuntzan, Euskadi (% 60,2) Espainiaren (% 50,8) eta EB-27ren (% 45,6) gainetik dago.

Generoaren arabera alde txikiena duten herrialdeei dagokionez, oinarrizko hezkuntza-mailan Bulgaria (% 0,4), Errumania (% 0,3) eta Txekiar Errepublika (% 0,2) daude, eta alde


handiena duten herrialdeen artean, berriz, Malta (% 13,4), Espainia (% 12) eta Portugal (% 11). Erdi-mailako hezkuntzan, generoari dagokionez, alde txikiena duten herrialdeak Euskadi (% 5,9), Alemania eta Espainia (% 0,3 bi kasuetan) dira, eta alde handienak dituztenak, aldiz, Eslovenia (% 21,4), Lituania (% 20,3) eta Polonia (% 17,1). Hezkuntza tertziarioan, generoaren arabera alde txikiena duten herrialdeak Alemania (% 0,8), Euskadi (% 2,4) eta Luxenburgo (% 3,4) dira.

3. GRAFIKOA:

Eskolatzetasak Haur Hezkuntzako bigarren zikloko adin teorikoetan, adinaren arabera (2018)

Haur-hezkuntzako eskolatzeari gero eta arreta handiagoa eskaintzen zaio, haurren garapen sozioemotionalan eta kognitiboan garrantzi handia duelako. PISA txostenaren arabera, maila horietan eskolatu diren ikasleek emaitza hobeak lortzen dituzte eskolatu ez direnek baino (ELGA, 2016c). Bestalde, ingurune sozioekonomiko eta kultural xumeetako haurren kasuan, inklusioa bultzatzen du eta desparekotasuna arintzen du

gizartean (ELGA, 2017c). Azkenik, hezkuntza-etapa horren hedapenak laneko eta familiako bizitza bateragarriago egitea ahalbidetzen du, eta emakumea lan-munduan sartzeko mesedegarria da (ELGA, 2018d; ELGA, 2016e). Horien guztien ondorioz, hezkuntza-etapa horren garapena eta hedapena lehentasun bihurtu da herrialde askotako hezkuntza-politikan.



Iturria:

B2.2 taularen laburpena.

Oharra: Euskadi, EUSTATen datuak. Eskola-jardueraren estatistika.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko adin teorikoetan, eskolatzeko tasa erabatekoa da Euskadin. Espainian % 98 inguru da, eta EB-23ko (% 91) eta ELGAko (% 87) ehunekoak txikiagoak dira. Adin teorikoko eskolatzeko tasari dagokionez, 6 urterekin, Euskadin erabatekoa izaten jarraitzen du, eta ia erabatekoa ELGAN

(% 99), EB-23n (% 98) eta Espainian (% 97). Grafikoan ikus daitekeenez, INSN 1 hezkuntza-mailan eskolatutako haurren ehunekoak % 10,1 da EB-23n eta % 12,2 ELGAN, 5 urterekin; eta 6 urterekin INSN 2 hezkuntza-mailan jarraitzen dutenena, berriz, % 36,2 EB-23n eta % 27,3 ELGAN.

4. GRAFIKOA:

Ikastetxe pribatuetako ikasleen proportzioa, hezkuntza-mailaren arabera (2018)

Grafiko hau interesgarria da, erakusten baitu ikastetxe pribatuetan publikoetan baino ikasleen proportzio handiagoa ote dagoen haur-hezkuntzan, lehen hezkuntzarekin eta bigarren hezkuntzarekin alderatuta.



Iturria:

B2.3 taularen laburpena.

Euskadi, EUSTATEN datuak. Eskola-jardueraren estatistika.

Oharra: INSN 0 (0-5 urte) INSN 1 (0-2 urte) INSN 2 (3-5 urte)

Euskadin, haur-hezkuntzan eskolatutako ikasleen % 47,7 ikastetxe pribatuetan dago, bai finantzaketa publikoa duten ikastetxeetan ("itundutako ikastetxeak"), bai finantzaketa pribatua dutenetan. Euskadi portzentajezko 10,6 puntura dago Espainiatik (% 37,1), 15,4 puntura ELGAtik (% 32,3) eta 20,3 puntura EB-23tik (% 27,4).

Finantzaketa pribatuko ikastetxeetan haur-hezkuntzako ikasle gehien dituen herrialdea

Irlanda da (% 99,3), eta atzetik Japonia (% 76,4) eta Alemania (% 67,2) datoz. Erakunde pribatuetan ikasle gutxien dituzten herrialdeak Frantzia (% 13,4), Finlandia (% 15,3) eta Mexiko (% 17,6) dira.


Txilen izan ezik, gainerako herrialdeetan, erakunde pribatuetan eskolatutako ikasleen ehunekoak handiagoa da haur-hezkuntzako lehen zikloan (INSN 01), bigarren zikloan baino (INSN 02).

5. GRAFIKOA:

15-19 urteko biztanleen eskolatze-tasaren bilakaera (2005, 2010 eta 2018)

15-19 urteko biztanleek, oro har, derrigorrezko eskolatze-etapa amaitu eta bigarren hezkuntzako bigarren etapan ikasten jarraitzen dute.

Grafiko honetan, 15-19 urtekoen eskolatze-tasen bilakaerari buruzko datuak biltzen dira Euskadin eta Espainian, baita ELGAko batez bestekoa eta EB-23ko batez bestekoa ere.



Iturria:

B1.1 taularen laburpena.

Euskadi, EUSTATen datuak. Eskola-jardueraren estatistika eta Biztanleen Udal Estatistika.

Oharra: Adin-tarte horretako biztanle guztiei dagokienez.

2018. urtean, 15-19 urteko ikasleen eskolatze-tasa % 95,3 izan zen Euskadin, EB-23ko (% 87,8), Espainiako (% 87,2) eta ELGAko (% 84,1) tasak baino handiagoa.


2005etik 2018ra bitarteko bilakaerari dagokionez, ELGAren eta EB-23ren kasuetan datuak egonkorak direla ikusten da, ez direla ia aldatu, hamarren 1 edo 2 ez bada. Ez da gauza bera

gertatzen Euskadin eta Espainian, adin horietan eskolatutakoen ehunekoak gora egin baitu pixkanaka. Euskadin, 2005eko % 85,3tik 2018ko % 95,3ra igo da. Alegia, Euskadin, 13 urtean, 15-19 urtekoen taldean eskolatutakoen ehunekoak 10 puntu egin du gora. Espainiaren kasuan, igoera portzentajezko 9 puntukoa izan da.

6. GRAFIKOA:

15-19 urteko biztanleen eskolatzeta-tasa, hezkuntza-mailaren arabera (2018)

Grafiko honetan, 15-19 urteko biztanleak nola banatzen diren ikusten da, eskolatuta dauden hezkuntza-mailaren arabera, 2018. urtean.



Iturria:

B1.2 taularen laburpena.

Euskadi, EUSTATen datuak. Eskola-jardueraren estatistika eta Biztanleen Udal Estatistika.

Oharra: Italiako bigarren hezkuntzako bigarren etapako datuetan hirugarren mailako tertziarioak ez diren bigarren hezkuntzako ikasketak egiten ari diren ikasleak ere sartzen dira. Erresuma Batuko hirugarren hezkuntzako ziklo laburraren datuetan graduiko ikasleak zati txiki bat ere sartzen da. Datuak adin-tarte horretako biztanleria osoaren arabera kalkulatu daude.

Euskadin, 15-19 urtekoen %26,9 bigarren hezkuntzako lehen etapan dago. Bigarren hezkuntzako bigarren etapa ikasten ari direnen artean, %29,9k bide orokorretik jotzen dute, eta %14,4k lanbide-heziketaren bidetik. Tertiarioak ez diren bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak egiten ari direnak %5,9 dira, eta hezkuntza tertziarioan daudenak, berriz, %18.

15-19 urteko biztanleei dagokienez, bigarren hezkuntzako bigarren etapa bide orokorretik egiten dutenen eta lanbide-heziketaren bidetik egiten dutenen ehunekoen arteko alde handiena duten herrialdeak Irlanda (%46,1), Brasil eta Txilen (%37,3 bi kasuetan) eta Espainia (%23,9) dira. Grafikoan agertzen diren herrialdeetatik,


soilik Italian (%5,8) eta Herbehereetan (%4,2) hautatu dute ikasle gehiagok lanbide-heziketaren bidea, bide orokorra baino. Bigarren hezkuntzako bigarren etapan, bide orokorraren aukera soilik dute bi herrialdek: Greziak eta Estatu Batuek.

Hezkuntza tertziarioari dagokionez, Grezia (%21,1), Euskadi (%18,0) eta Erresuma Batua (%15,9) dira ehunekorik handienak dituzten herrialdeak. Ehuneko txikienak Finlandiak (%2,9), Suediak (%3,0) eta Norvegiak (%4,0) dituzte. Hezkuntza-etapa horretan, Euskadi Espainiatik 4,1 puntura dago, eta ELGAtik 8,8 puntura.

7. GRAFIKOA:

Bigarren hezkuntzako bigarren etapan lanbide-heziketaren bidean eskolatutako ikasleen proportzioa (2018)

Grafiko honetan ikus daitekeenez, bigarren hezkuntzako bigarren etapan lanbide-heziketa hautatzen duten ikasleen proportzioa murriztu egiten da adinarekin. Herrialde guztietan, eskolatutako ikasle gehienak 15-19 urteko tartean daude.



Ehuneko handienetik txikienera ordenatuta, “15-19 urte” irizpidearen arabera.

Iturria:

B1.2 taularen eta B1.3 taularen laburpena.

Euskadi, EUSTATen datuak. Eskola-jardueraren estatistika eta Biztanleen Udal Estatistika.

Oharra: Italiako bigarren hezkuntzako bigarren etapako datuetan hirugarren mailako tertziarioak ez diren bigarren hezkuntzako ikasketak egiten ari diren ikasleak ere sartzen dira.

20-24 urtekoen kasuan, lanbide-heziketaren bidea hautatu duten ikasleen ehuneko handienak Finlandian (%13,2), Herbehereetan (%12,8) eta Norvegian (%6,8) dituzte, eta ehuneko txikiak, berriz, Txilen (%0,3), Mexikon (%0,5) eta Brasilen (%0,6). Euskadi EB-23ren (1,7 puntu), Espainiaren (1,5 puntu) eta ELGaren (0,9 puntu) azpitik dago.

25 urtetik aurrera, Finlandia (%3,3), Irlanda (%1,8) eta Herbehereak eta Erresuma Batua (%1,0 bi kasuetan) izan ezik, gainerako herrialdeak %1etik behera daude.


8. GRAFIKOA:

Langabezia-tasa hezkuntza-mailaren arabera (2019)

25-34 urteko langabeen ehunekoa, prestakuntza-mailaren arabera.

Euskadin, 2019. urtean, 25-34 urtekoen kasuan, behe-mailako prestakuntza dutenen langabezia-tasa % 25 da, % 14 erdi-mailakoa dutenena, eta % 5 goi-mailako hezkuntza dutenena. Bestela esateko, Euskadin, zenbat eta hezkuntza-maila handiagoa izan, langabezia-tasa orduan eta txikiagoa da.

25-34 urteko tartean, bigarren hezkuntzako bigarren etapatik beherako hezkuntza-mailari dagokionez, Euskadik du langabezia-tasarik handiena –Greziakoa baino 5 puntu gutxiago–, Espainiaren (% 23), EB-23ren (% 16) eta ELGAren (% 13) gainetik.



Bigarren hezkuntzako bigarren etapatik beherako hezkuntza-mailaren langabezia-tasa, handitik txikira ordenatuta.

Iturria:

A3.4 taularen laburpena.

Euskadiko datuak, Adierazleen Estatuko Sistema 2020 (HetaLHM). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Urteko batez bestekoak) (EIN).

Oharrak: Euskadiko datuak langabezia-tasari buruzkoak dira, eta bigarren hezkuntzako bigarren etapako datuetan eta tertziarioak ez diren bigarren hezkuntzako datuetan bide orokorra eta lanbide-heziketaren bidea sartzen dira. Txileko datuak 2017koak dira. Brasilgo datuak 2018koak dira. Japoniako hirugarren hezkuntzako datuen barruan dago bigarren hezkuntzako bigarren etapa edo tertziarioa ez den bigarren hezkuntzaren ondokoa (helduen % 5 baino gutxiago sartzen dira talde horietan).

Bigarren hezkuntzako bigarren etapan, bigarren hezkuntzaren ondoko heziketa oro-korreetan eta lanbide-heziketan, eta hezkuntza tertziarioan langabezia-tasa handiena duten herrialdeak honako hauek dira: Grezia (bigarren hezkuntzako bigarren etapan eta bigarren hezkuntzaren ondokobideorokorrean % 21; lanbide-heziketaren bidean % 30, eta hezkuntza tertziarioan % 19), Espainia (bigarren hezkuntzako bigarren etapan eta bigarren hezkuntzaren ondoko bide orokorrean % 17; lanbide-heziketaren bidean % 16, eta hezkuntza tertziarioan % 12), eta Italia (bigarren hezkuntzako bigarren etapan eta bigarren hezkuntzaren ondoko bide orokorrean % 16; lanbide-heziketaren bidean % 13, eta hezkuntza tertziarioan % 12).

Hezkuntza-maila guztietan langabezia-tasa txikiena duten herrialdeak Herbehereak, Erresuma Batua eta Mexiko dira.

Oro har, 8. grafikoan agertzen diren herrialdeetan, zenbat eta hezkuntza-maila handiagoa izan, orduan eta langabezia-tasa txikiagoa da, Suedian, Txilen, Portugalen eta Norvegian izan ezik. Azken horietan, hezkuntza tertziarioan, langabezia 1 puntu handiagoa da bigarren hezkuntzako bigarren etapan baino eta bigarren hezkuntzaren ondoko lanbide heziketaren bidean baino. Mexikon bakarrik gertatzen da langabezia-tasak gora egiten duela eskuratutako hezkuntza-maila handiagoa den heinean. Grezian eta Mexikon izan ezik, gainerako herrialdeetan langabezia-tasa txikiagoa da bigarren hezkuntzako bigarren etapan eta bigarren hezkuntzaren ondoko lanbide-heziketaren bidean, betiere bide orokorrekarekin alderatuta.




9. GRAFIKOA:

Enplegu-tasa prestakuntza-mailaren arabera (2019)

25-64 urteko enplegatuen ehunekoa adin bereko biztanle guztiei dagokienez, prestakuntza-mailaren eta programa motaren arabera.

Euskadin, 25-64 urteko biztanleen artean, gehienez ere bigarren hezkuntzako bigarren etapatik beherako hezkuntza-maila eskuratu dutenen % 57 lanean ari dira 2019. urtean. Bigarren hezkuntzako bigarren etapako eta tertziarioa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko prestakuntza dutenen % 72 lanean ari dira, eta hezkuntza tertziarioa lortu dutenen artean, % 85



Ehuneko txikienetik handienera ordenatuta, hezkuntza tertziarioa lortu duten 25-64 urteko biztanleen irizpidearen arabera.

Iturria:

A3.1 taularen laburpena.

Euskadiren kasuan, EUROSTATen datuak.

Oharrak: Txileko datuak 2018koak dira. Alemania, Brasil eta Italiako datuak 2017koak dira. Japoniako hirugarren hezkuntzako datuen barruan dago bigarren hezkuntzako bigarren etapa edo tertziarioa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko (helduen % 5 baino gutxiago sartzen dira talde horietan). Japoniako programen orientazioaren arabera, falta diren datuak ez daude eskuragarri. AEB, Brasil eta Japoniako datuak, bigarren hezkuntzako bigarren zikloa, beste kategoriatan sartu dira. Erresuma Batuan falta diren datuak aplikatzekoak ez diren kategoriei dagozkie. Euskadin, tertziarioa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak Bigarren Hezkuntzako bigarren etapari sartuta daude.

Oro har, eta erreferentziatzat hiru hezkuntza-maila hartuta –bigarren hezkuntzako bigarren etapatik beherakoa, bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta tertziarioa ez den bigarren etaparen ondoko, eta hezkuntza tertziarioa–, prestakuntza-maila zenbat eta handiagoa izan, 25-64 urteko enplegatuen ehunekoa orduan eta handiagoa da. Grafikoan ageri diren herrialdeen artean, Finlandia da bakarra non tertziario hezkuntzako prestakuntza duten enplegatuen ehunekoa (% 86) txikiagoa den hezkuntza tertziarioa ez diren bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak dituzten enplegatuen ehunekoa baino (% 95).


Bigarren hezkuntzako bigarren etapako eta tertziarioak ez diren bigarren hezkuntzaren ondoko mailak kontuan hartuz gero, zortzi kasutan ikusten da enplegatutako biztanleriaren ehunekoa txikiagoa dela tertziarioak ez diren derrigorrezkoaren ondoko mailatan, bigarren hezkuntzako bigarren etapako mailan baino.

10. GRAFIKOA:

Hilean behin bullying motaren baten eraginpean hainbat aldiz, gutxienez, egon direla dioten 15 urteko ikasleen ehunekoa, gurasoen hezkuntza-mailaren arabera (2018)

Ikasleak Ebaluatzeko Nazioarteko Programa (PISA 2018).

10. grafikoan agertzen diren datuen arabera, gurasoen ikasketa-mailak eragina du parekideen aldetik *bullyinga* jasaten dutela dioten ikasleen ehunekoa. Zenbat eta ikasketa-maila handiagoa, orduan eta *bullyinga* ehuneko txikiagoa; hala ere, bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta tertziarioa ez den bigarren hezkuntzaren ondokoa gainditzeak ez dakar aparteko onurarik.

**Iturria:**

A6.1 taularen laburpena.

Euskadi, PISA 2018 datuak (ISEI-IVEI).

Euskadin, PISA 2018 nazioarteko ebaluazioaren arabera, beren parekideen aldetik *bullyinga* pairatzen dutela dioten ikasleen ehunekoa, gurasoen gehieneko ikasketa-mailari dagokionez, %20 da bigarren hezkuntzako bigarren etapatik beherako mailan, %17 bigarren hezkuntzako bigarren etapan eta tertziarioa ez den bigarren hezkuntzakoaren ondokoa, eta %19 hirugarren hezkuntzan. Hau da, Euskadiren kasuan, gurasoek gehienez ere bigarren hezkuntzako bigarren etapako eta tertziarioa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko prestakuntza dutenean, parekideen *bullyinga* jasaten dutela dioten ikasleen ehunekoa txikiagoa da.


Soilik Portugalen, Espainian eta Frantzian, tertziario hezkuntza izateak aparteko onura dakar *bullyinga* jasaten dutela dioten ikasleen ehunekoaren murrizketan. Deigarria da Mexikoren eta Brasilen kasua; izan ere, zenbat eta handiagoa izan gurasoen ikasketa-maila, orduan eta handiagoa baita *bullyinga* jasaten dutela dioten ikasleen ehunekoa.

Azterketarako interesgarria izan daiteke honako ikuspegi hau ere: ikasleak eskola-jazarpenaren behatzailatzat hartzea eta jazarpenaren aurrean dituzten erreakzioak aztertzea. 2018an, PISA ebaluazioan eskola-jazarpenarekiko jarrerari buruzko bost galdera egin ziren, 11. grafikoan ikus daitekeenez.

11. GRAFIKOA:

Bullyingari buruzko adierazpen jakin batzuekin ados edo oso ados daudela dioten 15 urteko ikasleen ehunekoa, gurasoen hezkuntza-mailaren arabera (2018)

Ikasleak Ebaluatzen Nazioarteko Programa (PISA 2018).



Herrialdeak txikitik handira ordenatuta, lehenengo adierazpenaren guztizko batezbestekoaren arabera: "Jazarpena jasaten ari den ikasle bat inork defendatzen ez duenean haserretu egiten naiz".

Iturria:

A6.2 taularen laburpena.
Euskadi, PISA 2018 datuak (ISEI-IVEI).

Euskadin, batez beste, gurasoen hezkuntza-maila tertziarioa ez den derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako bigarren etapa denean, ikasleek adostasun-maila handiagoa dute eskola-jazarpena eragozten duten egoera eta jarrekin, eta tertziario ikasketak izateak ez dakar aparteko onurarik.

12. GRAFIKOA:


Derrigorrezko eskolaldia hezkuntza orokorrean (2014 eta 2019). Lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako lehen etapa ikastetxe publikoetan

Lehen hezkuntzako mailetan eta bigarren hezkuntzako lehen etapan derrigorrezko eskolaldia, guztira, oro har, herrialde bakoitzean etapa horiek duten iraupenaren arabera izaten da.

ELGAko herrialde gehienetan, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzako lehen etapan eskolaldiaren ordu kopurua ez da asko aldatzen

ELGAren batezbestekoaren kasuan bakarrik gertatzen da familiaren hezkuntza-maila zenbat eta handiagoa izan, adierazpen bakoitzarekiko adostasun-maila handiagoa izatea. Adierazpen guztiekin ados dauden ikasleen ehunekoaren batezbestekoa handiena duten herrialdeak Irlanda, Erresuma Batua eta Estatu Batuak dira.

urte batetik bestera. Hala ere, 2014tik 2019ra bitarte, herrialde gehienetan gutxienez behin aldatu dira eskolaldiari buruzko arauak. Aldaketa horiek eragina izan dezakete derrigorrezko hezkuntzak dituen maila kopuruan, ikasturte akademikoaren luzapenean edo ikasgai eta ikasturte bakoitzaren eskolaldiaren banaketan.



Iturria:

D1.1 irudia. A grafikoa. Derrigorrezko eskolaldia hezkuntza orokorrean (2014 eta 2019)

Euskadiko datuak: 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. (I. ERANSKINA)

Oharra: Zirkulu argiek adierazten dute zer herrialdetan ez den aldaketarik izan ikasketa-denboran erreferentzia-urteen artean.

1. Erreferentzia-urtea ez dator bat 2019arekin.
2. Finlandian eta Suedian, irakasgai batzuen ikasketa-orduen banaketa malgua da ikasturteen artean.
3. Bigarren hezkuntzako lehen etapako ikasturteak hiru edo lau dira, adarraren arabera. Laugarren urtea lanbide-heziketatik kanpo dago

ELGAko herrialde gehienetan, 2019an, curriculuma modu honetan ematen da: lehen hezkuntzako sei ikasturte eta bigarren hezkuntzako lehen etapako hiru ikasturte; guztira, bederatzi ikasturteko derrigorrezko irakaskuntza, bi etapetan. Australian, Danimarkan, Islandian, Lituanian, Norvegian eta Eskozian (Erresuma Batua), lehen hezkuntzako irakaskuntzak zazpi ikasturte ditu, eta hori da, hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzaren gehieneko maila kopurua. Bigarren hezkuntzako lehen etapak bost ikasturte irauten du Alemanian, Eslovakiako Errepublikan eta Errusiako Federazioan, eta Lituanian, berriz, sei maila ditu (gehieneko maila kopurua). Gainera, herrialde askotan, bigarren hezkuntzaren bigarren etaparen zati bat edo etapa osoa sartzen da derrigorrezko hezkuntzan, eta Belgikan, Kanadan, Txilen, Alemanian, Herbehereetan eta Portugalen eskolatzea derrigorrezkoa da 18 urte bete arte. Espainian, eskolatzea derrigorrezkoa da 16 urte bete arte, hau da, DBHko 4. mailara arte.

Eskola-egunen igoeraren ondorioa da Lituanian (15 egun) eta Portugalen (5 egun) eskola-egunak gehiago izatea. Danimarkan, eskolaldia, guztira, % 36 handitu da hango *Folkeskolen* ikastetxetan izandako (lehen eta bigarren hezkuntzako eskola integratuak) erreforma baten ondorioz; izan ere, eskola-jardunaren batez besteko denbora luzatu dute, urtean 200 eguneko eskolaldia aldatu gabe. Hungarian, curriculum berrirako trantsizioan, eskolaldia % 13 handitu da urteko 180 eskola-egunak aldatu gabe.

ELGAko herrialdeen heren batek, gutxi gorabehera, derrigorrezkoak ez diren ikasgaiak sartzen ditu eskolaldiaren barruan. Herrialde horietako bostetan, %10 edo gehiago igo da derrigorrezkoak ez diren gai horietara bideratutako denbora. Derrigorrezkoak ez diren curriculum-orduak areagotu egin dira hainbat arrazoiengatik: berreskuratze- edo laguntza-eskolak (Eslovenia eta Grezia), aukerako ikasgaiak, hala nola atzerriko beste hizkuntza batzuk (Finlandia, Frantzia eta Eslovenia), edo proiektuak garatzeko eskolak (Grezia). (*Hezkuntzaren panorama, ELGAren adierazleak 2020. HetaLHM*).


Euskadiren kasuan, derrigorrezko eskolaldia 10 urtekoa da, bi etapatan banatuta: Lehen Hezkuntza 6 ikasturte eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 4 ikasturte. Derrigorrezko irakaskuntzaren aldi osorako eskola-egutegiak 175 eskola-egun ditu, gutxienez. Lehen Hezkuntzan, 25 ordu astean eta 875 ordu urtean; guztira, 4 725 ordu hezkuntza-etapa osoan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 30 ordu astean eta 1 050 ordu urtean; guztira, 3 850 ordu hezkuntza-etapa osoan. Ordu kopuru horiek bi etapetan derrigorrezkoa den gutxieneko ordutegiari dagozkio. DBHko 4. mailan, curriculumaren % 75 berdina da ikasle guztientzat, % 17 hurrengo hezkuntza-etapako aukeretara bideratzen da, eta % 8 atzerriko beste hizkuntza batzuetara edo ikastetxe bakoitzak eskaintzen dituen aukeretara.

13. GRAFIKOA:

Ikastetxeetako urteko gastua (publikoa eta pribatua), guztira, ikasle bakoitzeko, zerbitzu guztietarako. Lehen hezkuntzatik hirugarren hezkuntzara (2016)

Dolar baliokideetan, erosteko ahalmenaren parekotasunaren (EAP) arabera bihurtuak, hezkuntza-maila bakoitzean, lanaldi osoaren baliokidean oinarrituta.

Euskadin, unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-establezimenduetan, ikasleko eta denbora baliokideko hezkuntzaren gastu publiko eta itundua 11 439 dolar AEB da, eta hirugarren hezkuntzan, I+G barne, 15 753 dolar AEB.



Iturria:

ELGA. Hezkuntzaren Panorama: ELGAren adierazleak - 2019ko edizioa (C1.2 taularen laburpena)

Euskadiko datuak: OECD.Education at a glance 2019, eta EUSTAT. Hezkuntzaren Kontua.

Oharra: Euskadiko datuak, hezkuntza-establezimenduetan ikasle bakoitzeko denbora baliokidean egindako gastuari dagokio adierazleak; EAEra, Hezkuntzaren Kontuaren emaitzak doitu da lortzen da.

Tertziarioa ez den irakaskuntza guztiaren gastuari dagokionez, Euskadi (11 439 \$ AEB) EB-23ren (9 649 \$) eta ELGAren (9 357 \$) gainetik dago. Ikasle bakoitzeko antzeko gastua dute Islandian (11 707 \$), Suedian (11 549 \$), Alemanian (11 294 \$), Herbeheretan (11 121 \$) eta Erresuma Batuan (11 061 \$). Hirugarren Hezkuntzari dagokionez, Euskadi (15 753 \$)


EB-23ren (15 863 \$) eta ELGAren (15 556 \$) tartean dago. Euskadik baino gastu handiagoarekin, 18 000 \$ eta 16 000 \$ tartean daude Belgika, Finlandia, Alemania eta Frantzia; eta 12 000 \$ eta 11 000 \$ tartean, Euskadik baino gastu txikiagoarekin, Espainia, Italia eta Portugal, besteak beste.

14. GRAFIKOA:

Ikastetxe publikoetan aurreikusitako derrigorrezko eskola-orduak (2020)

Orientazio orokorreko programetan, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako lehen etapako ikasleentzat programatutako derrigorrezko irakaskuntza-orduen urteko batez bestekoa.

Euskadin, Lehen Hezkuntzan, gutxieneko derrigorrezko irakaskuntza-orduen urteko batez bestekoa 875 ordu da, eta ELGAko (804 ordu), Espainiako (792 ordu) eta EB-23ko (769 ordu) batez bestekoa gainditzen ditu.



Iturria:

D1.1 taularen eta D1.2 taularen laburpena.

Oharra: Euskadiko datuak: 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum ahozkoa zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. (I. ERANSKINA).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Euskadiko urteko batez bestekoa 1 050 ordu da, Espainiakoaren antzekoa (1 054 ordu) eta ELGAren (922 ordu) eta EB-23ren (892 ordu) gainetik.

Lehen Hezkuntzan urtean derrigorrezko ordu gutxien dituzten herrialdeak Finlandia (651 ordu), Alemania (724 ordu) eta Suedia (733 ordu) dira. Etapa horretan, Txilen (1 008 ordu), Estatu Batuetan (971 ordu) eta Herbehereetan (940 ordu) dituzte derrigorrezko ordu gehien urtean.


Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Grezia (791 ordu), Finlandia (808 ordu) eta Suedia (830 ordu) dira urteko derrigorrezko ordu gutxien dituzten herrialdeak. Ordu gehien dituzten herrialdeak Mexiko (1 167 ordu), Espainia (1 054 ordu) eta Txile (1 052 ordu) dira.

15. GRAFIKOA:**Escola-orduak ikasgai bakoitzeko. Lehen Hezkuntza (2020)**

Lehen hezkuntzako ikasleen derrigorrezko eskolaldiaren guztizkoaren ehuneko gisa.

Jarraian, lehen hezkuntzan hizkuntza eta literaturari, atzerriko hizkuntzari, matematikari eta natur zientziei eskainitako denboraren ehunekoa erakusten da, eskolaldiaren guztizkoarekin alderatuta.

ELGAko eta EB-23ko batez besteko ehunekoetan eta grafikoan agertzen diren gainerako herrialdeetan, eskolaldiaren guztizkoaren ehuneko handiena hizkuntza eta literatura ikasgaiak (% 26) hartzen duela ikusten da, ondoren matematikak (% 18) eta balio txikiagoekin natur zientziek (% 8) eta atzerriko hizkuntzak (% 7).

**Iturria:**

D1.3 taularen laburpena.

Euskadiko datuak: 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. (I. ERANSKINA)

Oharrak: Finlandian eta Suedian, zenbait ikasgaiaren eskola-orduen banaketa malgua izaten da maila batetik bestera. Herrialde hauek ez dira sartzen nazioarteko batez bestekoetan: Belgika, Italia, Herbehereak, Portugal eta Brasil. Portugalen, natur zientziak derrigorrezko ikasgaia da, eta ordutegi malgua du. Irlandan, bigarren hizkuntzan beste hizkuntza nazional batzuk ematen dituzte. Euskadin, Hizkuntza eta Literatura ikasgaian Euskara eta Gaztelania sartzen dira; datuak Dekretuan ezarritako gutxienezko ordu kopuruari dagozkio, eta ez dira sartzen ikastetxeak erabakitzeko 19 orduak.


Herrialdeen artean 20 puntuko aldea dago (Frantzia 38 - Portugal 18) hizkuntza eta literaturaren kasuan, 13 puntukoa (Mexiko 27 - Grezia eta Euskadi 14) matematikan, 12 puntukoa atzerriko hizkuntzan (Irlanda 14 - Japonia 2) eta 9 puntukoa (Mexiko 13 - Irlanda eta Alemania 4) natur zientzietan.

ELGAri, EB-23ri eta Espainiari dagokienez, Euskadik gaintitu egiten ditu hizkuntza eta literaturan (denboraren guztizkoaren % 27), eta horiek baino beherago dago matematikaren dedikazioan (% 14). Natur zientzietan (% 7), EB-23ren eta Espainiaren parean dago, ELGAtik puntu batera (% 8); eta bigarren hizkuntza atzeritarrean (% 11), Espainiaren parean dago, EB-23 eta ELGA baino 4 eta 5 puntu gehiagorekin, hurrenez hurren.

16. GRAFIKOA:**Eskola-orduak ikasgai bakoitzeko. Bigarren hezkuntza (2020)**

Orientazio orokorreko programetan, bigarren hezkuntzako lehen etapako ikasleen derrigorrezko eskolaldiaren guztizkoaren ehuneko gisa.

Bigarren hezkuntzan, grafikoan agertzen diren herrialdeetako ehunekoen batez bestekoa % 16 da Hizkuntza eta literatura eta atzerriko hizkuntza ikasgaietan eta, horien atzetik, matematikako (% 13) eta natur zientzietako (% 10) eskolaldiaren batez besteko ehunekoak datoz.

**Iturria:**

D1.4 taularen laburpena.

Euskadiko datuak: 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumazehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. (I. ERANSKINA).

Oharrak: Finlandian eta Suedian, zenbait ikasgaiaren eskola-orduen banaketa malgua izaten da maila batetik bestera. Herrialde hauek ez dira sartzen nazioarteko batez bestekoetan: Belgika, Ingalaterra (Erresuma Batua), Irlanda, Herbehereak eta Portugal. Italiako hizkuntza eta literaturaren datuan, gizarte-zientzietan emandako denboraren ehunekoa ere sartzen da, eta matematikaren datuan, berriz, natur zientzietan emandakoa. Portugalen natur zientziak eta bigarren hizkuntza eta beste hizkuntza batzuk derrigorrezko ikasgaiak dira, eta ordutegi malgua dute. Txilen, Espainian eta Norvegian beste hizkuntza batzuetan emandako denbora beste kategoriatzat hartzen da (ez dira agertzen) zenbatzen da. Euskadin, Hizkuntza eta Literatura ikasgaietan Euskara eta Gaztelania sartzen dira, eta Natur Zientzietan, berriz, Biologia eta geologia eta Fisika eta kimika; datuak Dekretuan ezarritako gutxienezko ordu kopuruari dagozkio, eta ez dira sartzen ikastetxeak erabakitze 16 orduak.

Hizkuntza eta literatura eta Matematika ikasgaietan, herrialdeetako irakaskuntza-ehunekoen arteko aldea txikiagoa da lehen hezkuntzan baino. Hizkuntza eta literaturan, Irlandak du dedikazio txikiena (% 9), eta denbora gehien eskaintzen dion herrialdea Euskadi da (% 23; 14 puntuko aldea); matematikan, Irlandak du dedikazio txikiena, % 11, eta Txilek handiena, % 16 (5 puntuko aldea).

Espainiarekin (% 17), EB-23rekin eta ELGArekin (% 15, bi kasuetan) alderatuta, bigarren hezkuntzan hizkuntza eta literaturari denbora gehien eskaintzen dion herrialdea Euskadi da (% 23). Matematikan eta natur zientzietan, puntu bateko aldea baino ez dago (Euskadi eta ELGA % 12, Espainia eta EB-23" % 13). Atzerriko hizkuntzari dagokionez, Euskadi (% 12) Espainia baino puntu bat gorago dago (% 11), eta ELGA (% 15) eta EB-23 (% 16) baino 2 eta 4 puntu gorago, hurrenez hurren.

1. taula: Ikasle-irakasle ratioa, hezkuntza-mailaren arabera (2017)

Lanaldi osoaren baliokidean oinarritutako kalkuluak.

Ikasle-irakasle ratioa hezkuntza-sistemek dituzten giza baliabideen adierazle bat da, eta, batzuetan, hezkuntza-kalitatearen irizpide moduan erabiltzen da. Hala ere, interesgarria da bi kontu argitzea: lehenik eta behin, ez dira nahastu behar ikasle-irakasle ratioa eta ikasgela bakoitzeko ikasle kopurua; eta, bigarrenik, ratioa ikasleen eskola-orduen kopuruaren arabera da, betiere irakasleen zuzeneko irakaskuntza-orduei, indartzeko-laguntzako eskolei, hautazkoen eta aukerakoen eskaintzari... dagokienez.

	Lehen Hezk. (INSN 1)	Bigarren hezk. lehen etapa (INSN2)	Bigarren hezk. bigarren etapa (orokorra) (INSN 3)	Bigarren hezk. bigarren etapa (lanbide) (INSN 3)	Hirugarren hezkuntzako ziklo laburreko programak (INSN 5)	Gradua, masterra, doktoregoa edo baliokidea (INSN 6, 7 eta 8)
Euskadi	14	12***			13****	
Spainia	14	12	12	9	11	13
ELGA	15	13	13	13	16	15
EB-23	13	11	12	13	16	15
Frantzia	19	14	13	8	12	18
Grezia	9	8	10	8	a	m
Italia	12	11	12	9	a	20
Portugal	12	9	9*	9*	14**	14**
Alemania	15	13	12	14	12	12
Herbehereak	16	16	16	18	12	15
Finlandia	14	9	14	22	a	15
Norvegia	10	9	11	10	11	9
Suedia	14	11	14*	14*	7	10
Brasil	24	25	26	14	3	25
Txile	19	20	21	19	m	m
Mexiko	26	33	27	16	20	18
Estatu Batuak	15	15	15	a	14*	14*
Irlanda	15	m	13	m	20**	20**
Erresuma Batua	20	16	15	25	15**	15**
Japonia	16	13	12*	12*	m	m

Iturria:

D2.1 taularen laburpena.

Euskadiko datuak: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika.

Oharrak: Italia, Japonia eta Portugalgo Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako datuetan, hezkuntza maila honetan sailkatu gabeko programak sartzen dira.

Irlandako datuak ikastetxe publikoei buruzkoak dira, ez besterik.

*INSN 3 datu bateratua.

*INSN 4, 5, 6,7 eta 8 datu bateratua.

*** (Bigarren hezkuntzako lehen etapa, bigarren hezkuntza orokorreko bigarren etapa, bigarren hezkuntzako lanbide-heziketaren bigarren etapa).

****Hirugarren hezkuntzako ziklo laburreko programak, Gradua, masterra, doktoregoa edo baliokidea.

Euskadi eta Espainia bat datoz lehen hezkuntzako ratioetan: 14 ikasle irakasle bakoitzeko, 12 ikasle bigarren hezkuntzan eta 13 ikasle hirugarren hezkuntzan Ratio horiek EB-23koen (Lehen Hezkuntza 13, Bigarren Hezkuntza 11 eta Hirugarren Hezkuntza 15) eta ELGAkoen (Lehen Hezkuntza 15, Bigarren Hezkuntza 13 eta Hirugarren Hezkuntza 15 ikasle irakasle bakoitzeko) oso antzekoak dira.

Ratio txikienak Grezian (9, 8, 10), Norvegian (10, 9, 11) eta Portugalen (12, 9, 9) dituzte lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzako lehen


etapan eta bigarren hezkuntzako bigarren etapan (orokorra); eta Mexiko (26, 33, 27), Brasil (24, 25, 26) eta Txile (19, 20, 21) dira ratio handienak dituztenak maila horietan. Bigarren Hezkuntzako bigarren etapan (Lanbide Heziketa), Frantzia (8), Grezia (8) eta Espainia (9) dira ratio txikienak dituzten herrialdeak, eta Erresuma Batua (25), Finlandia (22) eta Txile (19), berriz, ratio handienekoak. Azkenik, INSN 6, 7 eta 8ri dagokionez, Norvegian (9), Suedian (10) eta Alemanian (12) daude ikasle-irakasle ratio txikienak, eta beste muturrean daude Brasil (25), Irlanda (20) eta Italia (20).

17. GRAFIKOA:

Ikasle/irakasle ratioa bigarren hezkuntzan (lehen eta bigarren etapa) ikastetxe publiko eta pribatuetan (2018)

Titulartasunaren arabera, lanaldi osoaren baliokidean oinarritutako kalkuluak.

Hezkuntza-erakundeen titulartasuna kontuan hartuta, bigarren hezkuntzako ikasle-irakasle ratioa ia berdina da erakunde publikoetan eta itundutako erakunde pribatuetan, EB-23ko (11, 11) eta ELGAko (13, 12) batez bestekoari dagokionez.



Datuak ikastetxe publikoetako ratioaren ehuneko txikienetik handienara ordenatu dira.

Iturria:

D2.2 taularen laburpena.

Euskadiko datuak: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika.

Oharra: Italia, Japonia eta Portugalgo Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako datuetan, hezkuntza maila honetan sailkatu gabeko programak sartzen dira.

Ikastetxe publikoen edo pribatuen ikasle-irakasle ratioen arteko alderik handienak Mexikon (16 pertsona gehiago irakasle bakoitzeko ikastetxe publikoetan, pribatuetan baino), Euskadin (9 pertsona gehiago irakasle bakoitzeko ikastetxe pribatu-itunduetan, publikoetan baino), Estatu


Batuetan (6 gehiago publikoan), Txilen (6 gehiago pribatuan) eta Espainian eta Finlandian (bi kasuetan, 5 ikasle gehiago irakasle bakoitzeko ikastetxe pribatuetan, publikoetan baino) daude. Grafikoan agertzen diren gainerako herrialdeetan ia ez dago alderik.

18. GRAFIKOA:**Ikasgela bakoitzeko ikasleen batez besteko kopurua ikastetxe publikoetan (2018)**

Kalkuluak honela egin dira: ikasle kopurua/talde kopurua.

Azterlan erabakigarriak ez badago ere, ikasgela bakoitzeko ikasle kopurua irakaskuntzaren kalitatean eragiten duen elementutzat hartzen da, batez ere, maila sozioekonomiko apaleko inguruneetan.

Ikasgela bakoitzeko ikasleen batez besteko kopurua aldatu egiten da grafikoan agertzen diren herrialde batetik bestera eta aztergai den hezkuntza-etaparen arabera.

**Iturria:**

Euskadiko datuak: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika.

Oharra: Euskadin, Bigarren Hezkuntzan sartzen dira honako hauek: DBH, BBB/UBI, LOGSE Batxilergoa, Lanbide Heziketa, LOGSE Lanbide Heziketa eta MP.

Finlandian (20 ikasle lehen hezkuntzan – 19 ikasle bigarren hezkuntzan) eta Erresuma Batuan (27 ikasle lehen hezkuntzan – 24 ikasle bigarren hezkuntzan) izan ezik, grafikoan agertzen diren gainerako herrialdeetan, ikasgela bakoitzeko ikasleen batez besteko kopurua txikiagoa da lehen hezkuntzan bigarren hezkuntzako lehen etapan baino.

Ikasgelako ikasle-kopuruari dagokionez, Euskadi (18 – 21) EB-23ren (20 – 21), ELGAren (21 – 23) eta Espainiaren (21 – 25) azpitik dago lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzako lehen etapan, hurrenez hurren.


Lehen hezkuntzan ikasgela bakoitzeko ikasle gutxien dituzten herrialdeak Grezia (17), Euskadi (18) eta Italia (19) dira. Eta etapa horretan bertan ikasgela bakoitzeko ikasle gehien dituzte Txilen (28) eta Japonian eta Ingalaterran, biak ere 27 ikasle izanik ikasgela bakoitzean.

Bigarren Hezkuntzako lehen etapan, ikasgeletan ikasle gehiago bildu ohi dira, eta ikasgela bakoitzeko ikasle gehien dituzten herrialdeak Japonia (32), Txile (29) eta Brasil (28) dira. Aldiz, ikasle gutxieneko herrialdeak Finlandia (19), Grezia (20) eta, ikasgela bakoitzeko 23 ikaslerekin, Euskadi, Italia eta EB-23 dira.

19. GRAFIKOA:**Ikasgelaren tamainaren aldakuntzaren indizea ikastetxe publikoetan 2005-2018 aldian**

Kalkuluak honela egin dira: ikasle kopurua/talde kopurua.

Ikasgelaren tamainaren aldakuntza-indizea aztertzen badugu, 2005etik 2018ra bitarte, grafikoan agertzen diren herrialde gehienetan ikasgeletan ikasle gutxiago daudela ikus daiteke edo, gehiago izanez gero, oso gutxi gehiago, honako kasu hauetan izan ezik: Mexiko (25 puntu) eta Portugal (16 puntu), lehen hezkuntzako etapan.

**Iturria:**

D2.3 taularen laburpena.

Euskadiko datuak: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika.


Oharra: Euskadin, Bigarren Hezkuntzan sartzen dira honako hauek: DBH, BBB/UBI, LOGSE Batxilergoa, Lanbide Heziketa, LOGSE Lanbide Heziketa eta MP.

Lehen hezkuntzan, murrizketa handienak Txilen eta Grezian izan dira. Bigarren Hezkuntzako lehen etapan, Espainia, Frantzia, Euskadi eta Estatu Batuak dira ikasgela bakoitzeko ikasleen batez besteko kopurua handitu duten herrialde bakarrak. Murrizketa garrantzitsuenak Grezian, Txilen eta Brasilen gertatu dira.

20. grafikoa: Irakasleen lan-ordutegiaren antolaketa ikastetxe publikoetan. Ikasturteko irakaskuntza-egunak (2019)

Urteko irakaskuntza-egunen kopurua.

Urtean ematen diren eskola-egunen kopurua aldatu egiten da herrialde batetik bestera. Euskadin, 175 irakaskuntza-egun izaten dira ikasturtean, haur-hezkuntzatik bigarren hezkuntzako bigarren etapara bitarte. Espainian, urtean batez beste 176 irakaskuntza-egun izaten dira, Euskadin baino egun bat gehiago, eta bien gainetik daude EB-23 (194 egun Haur Hezkuntzan, 180 egun Lehen Hezkuntzan eta 179 egun Bigarren Hezkuntzako bi etapetan) eta ELGA (194 egun Haur Hezkuntzan, 183 egun Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzako lehen etapan, eta 181 egun bigarren hezkuntzako bigarren etapan).



Herrialdeak txikitik handira ordenatuta daude, irakasleek Lehen Hezkuntzan ematen dituzten egunen kopuruaren arabera.

Iturria:

D4.1 taularen laburpena.

Euskadiko datuak: Ebazpena, Hezkuntzako sailburuordearena, 2020-2021 ikasturtearen antolakuntzari buruzkoa (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza). 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa.

Oharra: H. / h.: Hezkuntza esan nahi du. Alemania, Espainia, Frantzia, Irlanda eta Mexikoko datuak bat datoz irakaskuntza-orduen ohiko kopuruarekin. Txile, Grezia, Norvegia, Herbehereak eta Portugalgo datuak bat datoz irakaskuntza-orduen gehieneko kopuruarekin. Finlandia eta Italiako datuak bat datoz irakaskuntza-orduen gutxieneko kopuruarekin. Estatu Batuetako datuak 2018koak dira.

Grafikoan agertzen diren herrialdeetatik, ikasturtean irakaskuntza-egun gutxien dituztenak Frantzia (162 egun), Portugal (169 egun Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta 165 egun Bigarren Hezkuntzako bi etapetan) eta Italia (189 egun Haur Hezkuntzan eta 174 egun gainerako etapetan) dira. Ikasturtean irakaskuntza-egun gehien dituztenak, berriz, Japonia (203 egun Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzako lehen etapan, eta 196 egun Bigarren Hezkuntzako bigarren

etapan), Brasil (200 egun etapa guztietan) eta Herbehereak (200 egun Haur eta Lehen Hezkuntzan).

Lehen Hezkuntzan, egunean 3,6 ordu ematen dituzte Finlandian eta Alemanian, eta beste muturrean Frantzia, Txile eta Estatu Batuak daude, 5,6 ordurekin. Euskadiko Lehen Hezkuntzako ikasleek 4,6 eskola-ordu dituzte egunean, Espainian baino 3 hamarren gutxiago eta EB-23n eta ELGAN baino 5 hamarren eta 3 hamarren gehiago, hurrenez hurren.

Oharrak

Iturria: EUSTAT.

Eskolatze-tasa: Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-umeen eta biztanleen arteko erlazioa, adinez adin, guztira eta hezkuntza-maila bakoitzean.

Aintzat hartutako eskola-umeen artean ez dira sartzen Araubide Bereziko Ikasketak –hala nola hizkuntzak, musika, dantza eta kirolak– egiten ari diren ikasleak, eskolatutako biztanleen zenbaketan bikoiztasunak saiheste aldera.

Aipatu behar da, gainera, Estatuko beste erkidego batzuetako ikasleak ere sartzen direla Euskal Autonomia Erkidegoan eskolatutako biztanlerian, eta eragina handiagoa dela unibertsitate-ikasketak egiten ari direnen kasuan.

Ikasleen adina ikasturtea hasi den urteko abenduaren 31koa da.

Maila bakoitzean honako hauek sartzen dira:

- **Haur - Lehen Hezkuntza:** Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako maila guztietan dauden ikasleak, eta maila horietako hezkuntza berezia.
- **Bigarren Hezkuntza:** DBH, Batxilergoa eta erdi-mailako Lanbide Heziketa egiten ari diren ikasleak. Maila horietako hezkuntza berezian dauden ikasleak ere sartzen dira.

DBH: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak eta maila horretako hezkuntza bereziko ikasleak sartzen dira.

Lanbide Heziketa: erdi-mailako lanbide heziketa egiten ari diren ikasleak eta maila horretako hezkuntza bereziko ikasleak sartzen dira.

HLPP: Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak

Goi-mailako ikasketak: Goi-mailako lanbide-heziketa eta unibertsitateko ikasketak egiten ari diren ikasleak.

Unibertsitateaz kanpoko goi-mailako ikasketak: goi-mailako Lanbide Heziketa egiten ari diren ikasleak.

HHI: Araututako prestakuntza-programetako ikasleak sartzen dira.

Hezkuntza Berezian sartzen dira berariazko ikasgeletan dauden ikasleak.

HHIn, guztizkoaren tasa garbia baino ez da kalkulatu, ez adinaren arabera

Biztanleria: Tasak kalkulatzeko garaian, EUSTATEk egindako biztanleria eguneratua erabili dugu, azkeneko ikasturtean izan ezik; izan ere, ikasturte horretan, EUSTATEk egindako biztanleriaren proiektzioa erabili dugu (2001eko Biztanleriaren Zentsuan oinarrituta).

Taula prestatzeko, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta unibertsitateaz kanpoko goi-mailako ikasketetan, ikasleen banaketa gutxi gorabehera kalkulatu behar izan dugu hogeita bost urtetik gorako adin bakoitzean.

EAEko 2001eko azken zentsuak ematen dituen datuetan oinarrituta egin dugu kalkulua. (milako euro).

Estimazioa 2001eko EAEko azken erroldak emandako datuetan oinarritzen da.

1.10. grafikoa

Ikastetxe pribatuetan matrikulatutako ikasleen/ mutikoen ehunekoa (erakunde pribatu independenteak eta gobernuaren mendekoak)

Oharra: Lehen haurtzaroko hezkuntza-garapeneko programak = INSN 01, eskolaurreko hezkuntza = INSN 02; INSN 5 = ziklo laburreko hirugarren hezkuntza; INSN 6 = lizentziatura edo baliokidea; INSN 7 = maisutza edo baliokidea.

1. Langile bakoitzeko haurren proportzioari buruzko datuak ikastetxe publikoetarako eta gobernuaren mendeko ikastetxe pribatuetarako dira.
2. Datuetan ez dira sartzen haurtzaindegiak eta lehen haurtzaroko umeak hezteko eta zaintzeko zentro integratuak.

3. Maisutza bat edo titulu baliokide bat izatea ez da aldez aurreko baldintza, baina Lehen Haurtzaroko Hezkuntza eta Arretako irakasle gehienak maila hori dutela hasten dira jardunean.
4. Erreferentziako urtea 2017 da, ez 2018.

Iturria:

Ad hoc inkesta, INES eta OCDE / UIS / Eurostat (2020). Kontsultatu Iturria atala informazio gehiago lortzeko, eta 3. eranskina oharrak ikusteko (<https://doi.org/10.1787/69096873-en>). Kontsultatu Irakurlearen gidaliburua falta diren datuen ikurrei eta laburdurei buruzko informazioa eskuratzeko.

7. Eranskineko grafiko eta taulen aurkibidea

1. grafikoa: 1.1 grafikoa (A1.1 taularen laburpena eta OECD, *Education at a Glance [database]*). Helduen (25-64 urte) prestakuntza-mailaren bilakaera (2000, 2009 y 2019).

2. grafikoa: (1.5 grafikoa (A1.2 taularen laburpena)). Helduen (25-34 urte) banaketa generoaren arabera, hezkuntza-maila kontuan hartuta (2019).

3. grafikoa: (1.9 grafikoa (B2.2 taularen laburpena)). Eskolatzeta-tasak Haur Hezkuntzako bigarren zikloko adin teorikoetan, adinaren arabera (2018).

4. grafikoa: (1.10 grafikoa (B2.3 taularen laburpena)). Ikastetxe pribatuetako ikasleen proportzioa, hezkuntza-mailaren arabera (2018).

5. grafikoa: (1.12 grafikoa (B1.1 taularen laburpena)). 15-19 urteko biztanleen eskolatzeta-tasaren bilakaera (2005, 2010 eta 2018).

6. grafikoa: (1.13 grafikoa (B1.2 taularen laburpena)). 15-19 urteko biztanleen eskolatzeta-tasa, hezkuntza-mailaren arabera (2018).

7. grafikoa: (1.14 grafikoa (B1.2 taularen eta B1.3 taularen laburpena)). Euskadi, EUSTATen datuak). Bigarren hezkuntzako bigarren etapan lanbide-heziketaren bidean eskolatutako ikasleen proportzioa (2018).

8. grafikoa: (2.8 grafikoa (A3.4 taularen laburpena)). Langabezia-tasa hezkuntza-mailaren arabera (2019).

9. grafikoa:
(2.9 grafikoa (A3.1 taularen laburpena)).
[Enplegu-tasa prestakuntza-mailaren arabera \(2019\).](#)

10. grafikoa:
(2.16 taula (A6.1 taularen laburpena)).
[Hilean behin *bullying* motaren baten eraginpean hainbat aldiz, gutxienez, egon direla dioten 15 urteko ikasleen ehunekoa, gurasoen hezkuntza-mailaren arabera \(2018\).](#)

11. grafikoa:
(2.17 taula (A6.2 taularen laburpena)).
[Bullyingari buruzko adierazpen jakin batzuekin ados edo oso ados daudela dioten 15 urteko ikasleen ehunekoa, gurasoen hezkuntza-mailaren arabera \(2018\).](#)

12. grafikoa:
(A grafikoa. Derrigorrezko eskolaldia hezkuntza orokorrean (2014 eta 2019)).
[Lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako lehen etapa ikastetxe publikoetan eta \(D1.1 irudia\).](#)

13. grafikoa:
(2.20 taula (C1.1 taularen laburpena)).
[Bullyingari buruzko adierazpen jakin batzuekin ados edo oso ados daudela dioten 15 urteko ikasleen ehunekoa, gurasoen hezkuntza-mailaren arabera \(2018\).](#)

14. grafikoa: (3.1 grafikoa (D1.1 taularen eta D1.2 taularen laburpena)).
[Ikastetxe publikoetan aurreikusitako derrigorrezko eskola-orduak \(2020\).](#)

15. grafikoa:
(3.2a grafikoa (D1.3 taularen laburpena)).
[Ikasgai bakoitzeko eskola-orduak \(2020\).](#)

16. grafikoa:
(3.2B grafikoa (D1.4 taularen laburpena)).
[Ikasgai bakoitzeko eskola-orduak \(2020\).](#)

1. taula: (3.3 taula. (D2.1 taularen laburpena)).
[Ikasle-irakasle ratioa, hezkuntza-mailaren arabera \(2017\).](#)

17. grafikoa:
(3.4 grafikoa (D2.2 taularen laburpena)).
[Ikasle-irakasle ratioa bigarren hezkuntzan \(lehen eta bigarren etapa\) ikastetxe publiko eta pribatuetan \(2018\).](#)

18. grafikoa:
(3.5 grafikoa (D2.3 taularen laburpena)).
[Ikasgela bakoitzeko ikasleen batez besteko kopurua ikastetxe publikoetan \(2018\).](#)

19. grafikoa:
3.6 grafikoa (D2.3 taularen laburpena).
[Ikasgelaren tamainaren aldakuntzaren indizea ikastetxe publikoetan 2005-2018 aldian.](#)

20. grafikoa:
3.7b grafikoa (D4.1 taularen laburpena).
[Irakasleen lan-ordutegiaren antolaketa ikastetxe publikoetan. Ikasturteko irakaskuntza-egunak \(2019\).](#)

